

Zu hemen zaude.

goiena



Hezkuntza Legea:
akordioa lortzeko
oinarriak lantzen

Emma Gallardo
nekazari perutarriari
elkarrizketa



Galdegazte saioan, Juantxo Arakama, Glaukomakoa.



Hurretik saio berriko protagonista, Kepa Errasti.



Kantari saioaren grabazioa.



Puri Altube, Urkuluren gaineko erreportaje berezian.

Goiena telebista: saio berriak eta askotarikoak

Udaberriko programazioa estreinatuko du egunotan




ORRI BEREZIAK BARRUAN / 23



Txomin Madina, Hemen Debagoiena saioko aurkezlea.



Biki bizi erreportaje berezian, Xeli eta Mari Karmen Etxeandia bikiak.



Baru saioan, Debagoieneko eskalatzailak, Xabier Urzelaiarekin.



Amaia Txintxurreta, gaurkotasuneko erreportaje bat grabatzen.

Sahararako elikagaiak, bidean

Debagoiengan ia sei tona elikagai batu eta Sahararantz bidali dituzte, kamioietan, oraingo astean / 3

SINADURAK

 ALEX LABAIEN / 6	 MAIALEN MADARIAGA / 28
 HORAZIO ARGARATE / 10	 MIREN ZUBIA / 35
 JOKIN LARRAÑAGA / 15	 ANDER ETXEBERRIA / 48

Kontrako iritzien artean, "greba eskubidea" aldarrikatu dute Ikasle Abertzaleek / 4

Martxoaren 8a begi-bistan dela, emakumezkoen taldea sortzekotan dira Elgetan / 22



Hemen GARBIKETAK

ZURE KONFIANTZAKO GARBIKETA ENPRESA

ESKORIATZA • T. 943 71 48 45
www.hemen-garbiketak.com
hemen@hemen-garbiketak.com



VW Tiguan berria

Udalaitz

Gipuzkoa etorbidea, 36 • ARRASATE • 943 71 18 70

Das Auto



LABeko kideak, Bergarako Irizar jauregiko ganbaran, martitzenean. MIREN ARREGI

Lanuzteak deitu dituzte erakunde publikoetan

Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoetako langileen lan baldintzak erregulatzeko Udahiltz akordioa ez dela betetzen salatu du LABek. Eta, ELAekin batera, lau orduko lanuztea deitu dute otsailaren 28rako

Miren Arregi ARRASATE

Otsailaren 28a da Udahiltz –Euskal instituzioetako langileen lan baldintzen akordio erregulatzailerako akordioa "ez dela betetzen" salatzen ELA eta LABek aukeratutako eguna. Abenduan eman zioten bi sindikatuek hasiera mobilizazio dinamika eta horren baitan egingo da otsailaren 28an lanuztea. Mar-

titzenean egin zuen LABek lanuztearen berri emateko prentsaurrekoa, Bergaran.

Egun horretarako, lau orduko lanuztea proposatu dute sindikatuek. 11:00etatik 15:00etara egingo dira eta arratsaldean lanean dihardutenek 15:00etatik 19:00etara. 12:30ean, Donostian egingo da manifestazioa. Baitatik autobusak antolatuko dituzte.

Udalitz hitzarmena

Udahiltz da udal eta foru administrazioetako lan hitzarmena. Hori Eudelekin negoziatu eta adostu izan da eta azken hitzarmena 2008koa da, hasiera baten bi urteko iraupena izango zuena. "Azkena 2008an egin zen –2008-2010 iraupenarekin–; gerora, honen luzapena eta etengabeko erasoak eta ez betetzea izan dugu.

Gainera, gure instituzioek ez dute berau betetzeko inolako borondateirik erakusten. Horregatik guztiagatik, Udahiltzeko mahaitik altxatu gara", esan du Bergarako LABeko kide Aitor Arantzabalek.

Salatu zuten, azken urteetan "lanpostu ugari" galdu dira sektorean. Guztira, 3.400. "Hutsik geratu diren lanpostuak bete gabe eta zerbitzu osoak pribatizatuz, administrazio paraleloa sortzen ari dira", gehitu dute. Gainera, betetzen diren lanpostuak "behin-behineko langileekin betetzen" direla eta pribatizazioak langileen lan baldintzak okertzen dituela esan du Arantzabalek. Ez hori bakarrik, LABeko kideek azaldu baitute eremu publikoan jarraitzen duten langileen %36 behin-behinekotasun egoeran daudela, "Eudelek berak aitortzen duenez, Udahiltzen, %6ko tasa hitzartuta dagoenean". Gainera, gehitu dute "eros-ahalmena %10 baino gehiago murriztu" dela.

"Madrilen menpe"

Sindikatuek salatu duenez, "ez dago benetako negoziazio kolektiborik sektorean. Madrilen menpe gaude, Madrilek agintzen du, praktikan Madrilek gobernatzen gaituela dirudi. Negoziatzen jarraitzea nahi dute, antzerkia luzatzea, bake soziala lortzeko. Eudeli eta bereziki bertako lehendakaritza duen EAJ-PNVri dagokio joko zelai desberdina eraikitzea. Ez dezatela adostu PPrekin aurrekonturik, ez aurrekontu legerik edo eta gure sektorearen aurkatuko politikarik". Horren aurrean ahotza altxatu gura izan du LABek: "Horren kontra azaldu gura dugu eta inondik inora ez dugu ondo ikusten hau PPrekin aurrera eramatea. Azken finean,

Madrilen hitzartzen diren aurrekontuak eta han hartzen diren erabaki guztiak gure kontra datozelako. PPren nahia delako sektore publikoa desmantelatzea", zioen Arantzabalek.

Egoera hori izanik, ELA eta LABek elkarlanerako hitzarmena sinatu dute, "egoera hau salatu gura" dutelako eta Udahiltzen "gehiengo absolutua" dutelako –%70eko ordezkartza dute sindikatuek mahaian–. Hala, dei egin diete bertako erakundeei "ildo propio bat" jorra dezaten, herritarrei ematen zaizkien "zerbitzu publikoak bermatzeko eta hauek kalitatezkoak" izan daitezen. Horretarako, murrizketak politikak alde batera uzteko eta zerbitzu publikoetan lanean diharduten langileen lan baldintzak "hemen erabakitzea" ezinbestekotzat jotzen dute.

Sektorearen aldarrikapenak

Sektorearen aldarrikapenak zeintzuk ziren ere zehaztu dute prentsaurrekoan. Honela zenbatu dituzte: zerbitzu publikoak garatzea, suntsitutako enplegu publikoa berreskuratu eta egonkortzea; negoziazio kolektiborako eskubidea berreskuratzea eta galdutako eskubideak eta erosteko ahalmena berreskuratzea. Mobilizazio dinamika hurrengo protestak, datorren eguzterako proposatu dituzte; udal, foru aldundi eta mankomunitateetan.

LAU ORDUKO LANUZTEAK DEITU DITUZTE UDAL, ALDUNDI ETA MANKOMUNITATEETAN

Pentsiodunen protestak hiriburuetara iritsi dira

Pentsioen eros ahalmena berreskuratzeko protesta Donostiara iritsi da, Debagoieneko ordezkartzarekin

M.A ARRASATE

Pentsiodunak haserre daude, eta 2011tik hona jasotzen duten diru kopuruak urtero izan duen %0,25eko "igoera lotsagarria" salatzen ekimenek ez dute bukararik. Oraingoan, hiriburue-

tara egin dute, atzo egin baituzten bai Gasteizen, bai Bilbon eta bai Donostian, euren haserre beste behin adierazteko elkarretaratzeak. Debagoienetik "350 lagun" izan ziren Gipuzkoako hiriburura joan zirenak. Arra-

saten, zazpi autobus bete ziren, Oñatin hiru eta Bergara, Elgeta eta Antzuolatik bana. Eskualdeko pentsiodunak "oso pozik" zeuden erantzunarekin.

Donostiako Amara auzoan egin zuten protesta; pentsioak KPIaren maila berean igotzea aldarrikatu zuten, baita Europako Karta Sozialak aholkatutako 1.080 euroko gutxieneko pentsioa ezartzea eta Gizarte Segurtasun sistema propioa sortzea ere bai. Pentsio sistema "duin baten alde" egin zuten.



Debagoieneko pentsiodunak, atzo, Donostian. ITZIAR USANDIZAGA



Saharaldebako kideak elikagaien kutxak prestatzen, Arrasaten. JOSU BILBAO

La sei tona elikagai Saharara bidean dira

Saharaldeba, Bubisher eta Anelkar eta Sagiri elkarteek abiatu zuten elikagai eta konpresa bilketa, eta, arduradunek azaldu dutenez, "aurreikuspenak gainditu egin dira". Karabana osatzen duten kamioiak eguaztenez irten ziren hegoalderantz

Josu Bilbao DEBAGOIENA

Gabonen ostean martxan jartzen da, urtero, Saharara elikagaiak eta arropak bidaltzeko karabana solidarioa, eta aurten, Debagoien mailan, aurreko urteetan baino jaki eta material gehiago batu dute bailarako Saharaldeba eta Sagiri elkarteek eta Bergarako Bubisherrek. Guztira, ia sei tona elikagai batu dituzte

urtarrilean zehar, eta, jakiak sailkatu ostean, eguaztenez eraman zituzten kaxak kamioietan Bilbora eta Donostiara. Hiriburuetatik hegoaldera abiatuko da egun hauetan karabana solidarioa, Saharako kanpalekuetarako.

Aurten, elikagaiez gain, konpresak batzeko eskaera berezia egin dute elkarteek, eta eran-

tzuna "bikaina" izan dela azpimarratu dute.

Saharaldebak, Arrasaten

Arrasaten bakarrik burutu dute aurten Saharaldebako kideek jakien eta konpresen bilketa, eta aurreikuspenak gainditu egin dituztela azaldu du Saleh Salek arduradunak. "Aurten, Arrasatera bakarrik murriztu

dugu bilketa, eta harrিতuta gel-ditu gara, iaz baino elikagai eta konpresa gehiago batu ditugulako". Guztira, elikagaiei dagokienez, ia 2,5 tona batu dituzte –atun latak, lekaleak, arroza, pasta eta sardinak–, eta, konpresei dagokienez, iaz batu zutenaren bikoitza –palet osoa–.

"Eguazten goizean igaro zen kamioia Arrasatetik eta elikagaiak Donostiara eraman zituzten. Hortik, arratsaldeko bostetan irten zen karabana Alacantera bidean. Gure aldetik, Saharaldeba moduan, karabana solidarioan parte hartzen dugun bigarren aldia izan da. Iaz Aretxabaletan eta Eskoriatzan ere egin genuen deialdia, baina, oraingo honetan, indar guztiak Arrasaten jarri ditugu. Aurreikuspenak gainditu eta iaz baino kilo gehiago batu ditugu. Horregatik, eskerrak eman behar dizkiegu arrasatearrei eta, batez ere, elikagaia batzen ibili diren boluntario guztiei. Lan zoragarria egin dute", esan du Salekek.

Bubisher eta Sagiri

Bergarako Bubisher elkarteak, bestalde, 3.158 kilo elikagai eta 850 konpresa pakete batu ditu aurten. Batzea Bergaran, Elgetan, Antzuolan eta Mutrikun egin dute, boluntarioak herri horietan dituzte eta. Horrela, eguaztenez abiatu zen kamioia, elikagaiz beteta, Bilbora. Bilbotik, zazpi trailer atera dira dagoeneko Alacantera, eta hortik Espainiako beste hainbat txokotatik bildutako produktuekin itsasontziz Wahran herrira iritsiko da materiala (Aljeria). Bertan, Ilargi Gorriko sahararrek kanpalekura bideratuko dituzte kamioiak.

Bubisherko boluntarioek azaldu dutenez, aurten, "beste ba-

tzuetan baino konpresa gehiago" batu dira, ikastetxeetatik egingo deialdiei esker. "Emakumeen beharrak kontuan hartu dira beste batzuetan baino gehiago. Bubisheretik eskerrak eman nahi dizkiegu Debagoieneko herritar guztiei horren eskuzabalak izateagatik", azaldu du elkarteko Aitziber Osak.

Antzuolan, bestalde, Sagiri elkarteko kideak Anelkarrekin elkarlanean ibili dira produktuak jasotzeko. Behin elikagaiak eta arropa jasota, Bergarara bidali zituzten, Bubisherko kideek zebaketa egin zezaten.

Ospakizunak aste bukaeran

Datorren martitzenean, otsailak 27, saharar errepublikaren aldarrikapenaren 42. urteurrena ospatuko dute Debagoieneko sahararrek, eta aste bukaerarako ekitaldiak antolatuko dituzte hainbat herritan. Besteak beste, Antzuolan, saharar kutsua duen festa egingo dute bihar, Zurragi plazan, eta martitzenean elkarretaratzea egingo dute Herriko Plazan, Sagirik deituta.

Bergaran, Bubisherrek antolatuta, sahararrei ikurrin dantza eskainiko diete bihar, San Martin plazan –12:00etan– eta ostean marrazki lehiaketako sari banaketa egingo dute.

Arrasaten, martitzenean egingo dute ekitaldia Saharaldebako kideek. Karpak jarriko dituzte Biteri plazan, eta saharar tea eta gozoak dastatzeko aukera egingo da.

ALACANTETIK ITSASONTZI BIDEZ ERAMANGO DUTE BILDUTAKO ALJERIAKO KOSTARA

"Horrelako arrain hilketa bat gertatzeko, oso larria izan da"

JON UGARTE BASOZAINA

Isurketa "oso larria" izan dela azaldu du basozainak

J.B. DEBAGOIENA

Pasa den astean, Osintxu eta Soraluze inguruan milaka arrain hilik agertu ziren zianuro isurketa bategatik. Gainera, urtarrean angulak askatu zituzten basozainek Deba ibaian.

Errekan ezbeharrak eragin duena zianuroa izan dela baieztatuta da...

Ur-emari handia zeraman errekan, eta, horrelako hilketa bat gertatzeko, oso gauza larria izan da. Milaka arrain agertu ziren Soraluze inguruan, eta Bergaran

ere hilik agertu ziren batzuk poliki-poliki. Laginak hartu dira eta zianuroa agertu da. Hori enpresa batetik doan produktu bat da. Triste da, egun, enpresa batek errekararen horrenbeste zianuro kantitatea botatzea... **Kolpe handia ibaiko faunarendako?**

Erreka errekueratuko da, baina oso triste da izan da, isurketa zelan izan den ikusita. Horrelakorik urte askoan ez dugu eza gutu. Debak asko hobetu du, batez ere, Epele egin zenetik, baina kolpea izan da, bai.



Jon Ugarte. J.B.

Bestalde, Barajas aireportuan atzemandako angulak askatu dituzte bailaran...

Asia aldera eraman nahi zituzten, eta Guardia Zibilak atzeman zituen aireportuan. Harrapatutako kantitatea izugarria izan da, ia 300 kilo. Eusko Jaurlaritzak hemen askatzeko ahalmena genuela esan, eta Urola, Oria, Urumea eta Deba ibaietan askatu ziren. Debagoienean, Artia ibaian askatu genituen, Usakotik gora; eta Antzuolan, Arrandegi errekan.

Ikasleen greba eskubidea aldarri, eztabaida artean

Arizmendiko Ikasle Abertzaleen ekimenez, ehunka ikaslek manifestazioa egin dute eguenean Arrasaten. Eta hautsak harrotu ditu ekimenak. Protesta moduaren aurka egin dute Arrasateko EH Bilduk, Leintz Bailarako Sortuk eta LABek, esaterako

Iker Oñate ARRASATE

Hautsak harrotu ditu Ikasle Abertzaleek deituta, atzo, Arrasateko kaleetan eginiko manifestazio nazionalak. Bada, ehunka ikasle bildu ziren, *Greba eskubidea orain! Arizmendi bete zure hitza* lelopean; Euskal Herriko leku askotako jendeak esku hartu zuen hitzorduan. Hala, Arizmendiko Ikasle Abertzaleek eskerrak eman zizkieten bertaraturikoei, eta, protesta bukaeran, eskaera gutun bat utzi zuten ikastolako Gaztelupe gunean – zuzendariari eman gura zioten eskura, baina ez zen inor azaldu gutuna jasotzera-. Oihartzuna izan du atzoko manifestazioak, asteen protesta moduaren aurka azaldu baitira zenbait erakunde eta alderdi politiko –Arrasateko EH Bildu, Leintz Bailarako Sortu eta LAB, tartean-. Eta, era berean, horren kontra egin dute Arizmendiko zenbait ikasle ordezkariak, zuzendaritzak eta Ikastolen Elkarteak.

"Urteak daroatzagu greba eskubidea aldarrikatzen. Eta ez da behar moduko urratsik egin. Etengabe dihardute atzeratzen. Orain, gu omen gara horretarako aitzakia", diote Arizmendiko Ikasle Abertzaleek.

Gaur-gaurkoz, horren buelta-ko parte hartze prozesua dute



Ikasle Abertzaleek deitutako manifestazioa, atzo, Arrasaten. URKO SAROBE

martxan ikastolan. Baina bertako Ikasle Abertzaleek kritika egin diote parte hartze moduari: "Ez da benetako parte hartzea sustatzen. Behetik gorakoa baino, goitik beherakoa da prozesua. Bertan erabakitakoak entzun besterik ez ditugu egiten ikasleok, proposatzeko aukera izan barik. Guretzat, hori ez da parte hartzea". Bada, horren arrastorik ere izan da manifestazioko leloetan: "Non dago parte hartzea?".

Zehatz esanda, hainbat aldarrikapen jarri dituzte mahaiaren gainean Arizmendiko Ikasle

Abertzaleek: %25eko desbinkulazio langa kentzea, greba egunetako azterketak atzeratzea, DBHko 4. mailako enpresarako eskubidea aitortzea, lanuzte eskubidea onartzea eta Ikasle Abertzaleetako kideen jarduna askatasunez gauzatzeko baldintzak adostea.

Zenbait eragileren babes

Ikasleen alorretik harago joan da auzia. Eta herriko hainbat eragilek babes erakutsi diete horiei; tartean dira AGAKO eta Askapena. "Langileek borroka

Protesten aurkako ahotsak Ikastolan

Arizmendi Ikastolako zenbait ikasle ordezkariak ez dute bat egin protesta ekimenekin; eta, era berean, aurka azaldu da bertako Zuzendaritza. "Ikasleen proposamena oinarri, grebarako baldintzak birdefinitzeko parte hartze prozesua hasi genuen. Ikasle Abertzaleek ez dute bertan parte hartu gura izan; trabak jarri besterik ez dute egin. Beraz, ez dut ulertzen euren jokaera", azaldu du Iñaki Etxezarretak, Arizmendi Ikastolako zuzendariak.

Modu berean, erakundeak zabalduetako oharren kontra egin du: "Sistema kapitalistaren barruko tresna gabela diote. Eta ikasleak erregimen burgesaren esku uzten ditugula esanez epaitu gaituzte. Oso akusazio larriak dira horiek. Badirudi ez dakitela zer den ikastola bat; are gutxiago, hezkuntza kooperatiba bat". Hala, Arizmendi Ikastolari babes helarazi dio Ikastolen Elkarteak.

Arizmendiko zenbait ikasle ordezkariak, bestetik, protesten kontrako oharra helarazi dute –DBHko 3. eta 4. mailakoak eta Batxilergokoak-. Azaldu dute Ikasle Abertzaleen helburu berekin dihardutela: "Greba araudia aldatzea". Baina ez dute bat egiten erakundeak erabilitako jardun moduarekin: "Ez dugu uste beharrezkoa denik informazio zehatzik eduki gabe komunikabideetan guri buruzko berriak zabaltzea eta pintaketak egitea".

luzeen ondorioz lortu duten eskubidea da grebarena, parte hartze politiko eta protesta eskubiderako giltzarri dena. Horregatik, bat egiten dugu edozein antolakundek eskubide hori garatzeko eta gauzatzeko egin ditzakeen mobilizazioekin", azaldu du Askapenak.

Alderdi politikoen erreakzioak

Bestetik, herriko zenbait alderdi politikok ere eskaini gura izan dute euren irakurketa. Bada, "greba eskubidearen aldarrikapenarekin" bat egin du Baleikek. "Ikasleen burujabetza eta ahalduzko ezinbesteko dira gizartearen eraldaketa sustatzeko; eta, era berean, subjektu politiko aktibo bilakatzea, eskubideak defendatu eta areagotzeko", dio.

Bestalde, herriko EH Bilduk eta Leintz Bailarako Sortuk ez

dute bat egin Ikasle Abertzaleen protesta moduarekin. "Arizmendi Ikastolako ikasleak murgildurik dauden parte hartze prozesua –eta ahalduzkoa– errespetatuz, manifestazio nazionala modu horretan deitzea neurritz kanpoko delatza iruditzen zaigu", azaldu du Leintz Bailarako Sortuk. Eta gaineratu du "indarrak batzeko" unea dela, "Espainiako erresuma inboluzio atzerakoi eta espainolista betean murgilduta dagoelarik".

Eta lan esparrukoek ere eman dute euren iritzia. LAB sindikatuak ez du bat egin manifestazio nazionalarekin: "Neurriz kanpoko iruditzen zaigu ikastetxe batean eztabaidagai den araudiari halako dimentsioa ematea". Hori bai, onartu dute babesten dituztela Arizmendiko ikasleen aldarrikapenak.

Genero berdintasuna helburu, esperientziak partekatuz

Genero berdintasunera bidean enpresek eta erakundeek egindako urratsak partekatu dituzte Miguel Altunan

Iker Oñate BERGARA

Eskoziako eta Herbehereetako jardun kideekin batzartu dira Miguel Altuna Lanbide Heziketakoak. Hain zuzen ere, enpresek eta erakundeek genero berdintasunera bidean egindako urra-

tsak partekatzea izan dute helburu. Eta aurrera begirakoa ere zehaztu dute. *Engendering Stem* programaren baitan gauzatu dute egitasmoa.

Zehatz esanda, irailean hasi zuten *Engendering Stem* proiektu-

tua. "Enpresa industrialetan genero berdintasuna indartzea eta industria alorreko formakuntza zentroetan emakumeen presentzia areagotzea da gure asmoa", diote bultzatzaileek.

Hala, gaur-gaurkoz, hogeita hamar enpresa inguruk egin dute bat egitasmoarekin; enpresa txikiak eta ertainak dira horiek –hogeita berrehun langile artean dituzte-. Eta, hainbat artean, gaiari buruzko autoebaluzioa egitea dagokie, galdeketa baten bitartez.



Saioetan parte hartu dutenak, industria-gunean. MIGUEL ALTUNA LANBIDE HEZIKETA

"Presio handia jasaten dugu transexualok"

IXOTZ LOUYEST LGTBI ASKAPENERAKO EKINTZAILEA

Ekai gazte ondarrutarrak bere buruaz beste egin du joan den astean. Transexuala zen hura. Bada, gertatutakoak zalantzan jarri du gizarteak gaiarekiko duen onarpen maila

Iker Oñate DEBAGOIENA

Hautsak harrotu ditu Ekai ondarrutarraren heriotzak. Transexual izateagatik jasaniko presioengatik, bere buruaz beste egin zuen 16 urteko gazteak. Bada, agerian gelditu da normaltasunaren bidean urratsak daudela egiteke. Horren inguruan jardun du Ixotz Louyest bergararrak; sexu identitatea burokratikoki zuzentzea erabaki zuen, eta atzera begira jartzea eragin dio Ekairi gertatutakoak.

Ekai 16 urteko gazte transexualak bere buruaz beste egin du Ondarroan.

Tristura handia eragiten du horrek; eta, agerian utzi, oraindik lan asko dagoela egiteke. Bere buruaz beste egitera iritsi izana oso larria da. Erabaki zaila, zinez. Finean, esan ohi da bizitzen ez segitzea dela errazena, baina ez da horrela, inolaz ere. Eta gertatutakoak agerian uzten du sexu identitatea burokratikoki zuzendu gura duena ez dela edonolako prozesuan murgiltzen. Nekeza da oso; eta gogorra, batzuetan. Ikerketen arabera, transexualen %41ek bere buruaz beste egitea pentsatu izan dute noizbait –hori, soilik ezagutzen diren kasuetan–. **Beraz, ez da kasu isolatua...**

Ez. Eta horretan eragina du hainbat sektoreren pasibotasunak. Esaterako, oso garrantzitsua litzateke hezkuntza alorrean transexualon inguruan hitz egitea. Izan ere, baliteke klasean sexu identitatea burokratikoki zuzendu gura duen norbait izatea –etorkizunean, agian–. Beraz, transexualen bazterketa saihesteko balioko luke heziketak; edo murrizteko, gutxienez.

Baina ez da hezkuntza alorrera magatu behar, ezta?

Inolaz ere ez. Osasungintzan edo administrazioan ere aldatu beharreko asko dago gaiari dagokionez. Tartean, esan dezakegu ez dela normala Nortasun Agirian sexu identitatea aldatu gura



Ixotz Louyest, Bergaran. JOSU BILBAO

"NIREGATIK ERABAKI NUEN FISIKOKI SEXUA ALDATZEA; ETA, EZ, GIZARTEAREN ONARPENA IZATEKO"

duenak horrenbeste itxaron behar izatea –iragazki asko pasa behar izaten dira–. Sekulako presioa eragiten du horrek.

Bada, zeuk noiz jakin zenuen mutila zinela?

Egia esan, ezin dut adin zehatz bat eman. Txikitatik sentitu izan dut neska rolen barnean deseroso nengoela. Geroago, amari azaldu nion gertatzen zitzaidana. Orduan jabetu zen hura. Dena den, adin txikikoa nintzenez, ezer egin aurretik itxarotea erabaki genuen. Ezkutuan nuen gordeta; oso gogorra izan zen, bizitzeko gogorik ere ez nuen une batzuetan. Azkenean, 18 urte beteta, neure bi lagun mini aitortzea erabaki nuen. Banekien onartuko zutela.

Eta ostean zer?

Ba, pertsona transexualen errespeturako eta integrazioarako lanean diharduen Errespetuz

elkartarekin jarri nintzen harremanetan. Orduan ikusi nuen nirea ez zela kasu isolatua. Eta fisikoki sexua aldatzeko prozesuari ekitea erabaki nuen. 23 urte nituen orduan.

Ingurukoek nola hartu zuten erabakia?

Kasuak kasu dira. Etxean babestu egin zuten erabakia. Eta denarik topatu nuen gizartean. Dena den, esan beharra dut nik neuregatik hartu nuela erabakia; ez nuen egin gizarteak onar zedin. Finean, onartzen ez badu, gizartea da arazoa duena; ez neu. Izan ere, horrelako egoeretan jakiten da nor den benetako pertsona.

Gaur-gaurkoz, gaia naturaltasunez joratzeko kapaz da gizartea?

Onartu beharra dut nabari dudala Euskal Herriko gizarteak irekiago diharduela gaur egun; gero eta indartsuagoa da gaiarekiko kontzientzia. Jende asko dabil gaia natural bihur dadin lanean. Hori bai, oraindik gertatzen dira Ekairena moduko kasuak. Beraz, gaur-gaurkoz, badugu zer egin. Horretarako, gauzak aldatu beharko dira hezkuntzaren, osasungintzaren... alorrean.

Kanpaina berriaren balorazioa eskaini du Kaleratzeak Stopek

Epaiketetara heldutako "kasu guztiak" irabazi ditu Debagoieneko Kaleratzeak Stop plataformak

I.O. DEBAGOIENA

Gehiegizko klausulen kontrako kanpainari hasiera eman eta urtebetera, egitasmoaren gaineko balorazioa eskaini du Debagoieneko Kaleratzeak Stop plataformak. Epe horretan, batez ere, hipoteketan ezarritako epemuga aurreratua, zorua eta hipoteka-gastuen kontrako klausulak izan dituzte erdigunean. Eta hainbat herritar gerturatu zaizkie laguntza eske; azaldu dutenez, arrasatearrak gehienak. Bada, kasuak kasu, nork bere bidean dihardu: tramitean, bankuekin negoziazio prozesuan, epaitegietan...

26 espediente, Arrasaten

Hori horrela, argitu dute urtebetean 26 espediente zabaldu dituztela Arrasaten. "Hamaika, Laboral Kutxari lotutakoak", diote. Gainerako kasuetan, bes-

tetik, Caja Duero, Kutxabank, Santander, BBVA, Caja Rural, Banco Popular eta Banco de Sabadell leudeke inplikaturak.

Horrez gain, Debagoieneko Kaleratzeak Stopek kideek nabarmendu dute "epaiketa guztiak irabazi" dituztela: salatzaileen aldeko ebazpenak izan dira eskualdekoak, "hipoteka-kontratuen gerdentasunik eza dela eta".

Legez besteko proposamena

Gainera, iragarri dute aurrera segitzen duela, EAEko Kaleratzeak Stopek bultzatuta, EH Bildu eta Elkarrekin Ahal Dugu alderdiek Eusko Legebiltzarrean aurkezturiko legez besteko proposamenak. "Horrek hainbat konpromiso exijitzen dizkio Jaurlaritzari. Tartean, EAEko Etxebizitzaren Legea guztiz gara dezala, eskubide sozialean sakontzen hasteko", azaldu dute.



bertako

igogailuak | ascensores
igogailuen mantentze-lanak

24 orduko


asistentzia abisu guztientzat

Iraupen-konpromisorik

gabeko kontratuak

Orotariko zerbitzua

100 €-tik aurrera

Euskarazko

zerbitzua

LARRIALDI TELEFONOA DOAN

GARAIA Goiru 1A - Arrasate • 943 90 34 50
www.bertako.eus • info@bertako.eus



ZABALIK

ALEX LABAIEN

Erregistroa

Martitzenean 15 urte bete ziren *Euskaldunon Egunkaria*-ren erregistro eta itxieratik. Guardia Zibilak, indarrez, euskal kultura, hizkuntza eta gizarteari eraso bortitza egin zionetik. Estatuaren manipulazioaren erakusgarri. Erreportaje eder askoa zekarren *Berria*-k domekan.

Erregistroa gora eta erregistroa behera aurreko astean ere, futbol jainko ahalguztidunak bizkaitarren eta gipuzkoarren harmonia hankaz gora jarri zuenean. Nahikoa izan da Athletic berriro be Donostia aldean arrantzan hastea sare sozialak, tertuliak, lagunarteak... gori-gori jartzeko. Aitzakixia zein? Ba, Iñigo Martinezek, Twitter-eko txioan, agurrerako erabili zeban hizkuntz erregistro ustez ezin desegokixagoa... Suak eta garrak hartuta jardun dabe batzuk sare sozialetan –Realak *Bai euskarari* ziurtagirixa daukala eta formaltasuna zaindu beharko zebala, batuan egin beharrekua zala, analfabetua dala jokalarixa...–. Ez dakit, baiña zorroztasun horren arrastorik ez neban nik sumau orain dala ez hainbeste,

LEHEN MAILAKO ZERURA ITZULI IZANAK ZEUKAN ORDUAN GARRANTZIA, EZ HIZKUNTZAK

etxean–. Ez neban, orduan, bazterretan bape kejarik entzun. Orduan erregistrua ez ei zan inportantia. Ez erregistrua. Ez hizkuntza bera. Lehen Maillako zerura itzuli izanak zeukan orduan garrantzia...

Zapatuan, berriz, *Euskalkiak, batua eta eskizofrenia* artikuluan, *Berria*-n hau be, Idurre Eskisabelek bi gazteren kasua aittatzen zeban: batetik, Gipuzkuako oso eremu euskalduneko oso ikasle euskaldun batek bildurrez eta amorruez bizi ei dau euskara batua, batez be, unibersidadian izandako esperientziagaitik –erregistro formalai uko...–; eta, bestetik, sortzez Gipuzkuako oso eremu euskaldunekua izanda, Bilbon urtiak daroiazan adiskidiaren alabiak, etxian euskalkixan egin arren, kalian amari debekau egitten ei jao euskalkixan egittia, gehixegi ez nabarmentziarren, itxuria –erregistro formala nahixago–...

Hau da jiria hau! Hainbeste eskatzen ete jau erderiari?

Reala Lehen Maillara itzuli zala eta, Anoetan antolatu zeben ekitaldixan taldeko kapitaiñak mikroa hartu eta dan-dana gaztelania hutsean bota zebanean –"Aita, zegaittik egin dau erderaz?", entzun behar izan neban nik

MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA



HANDIK ETA HEMENDIK

Boom!

BEÑAT LIZASO

'AIURRI' ASTEKARIAN ARGITARATUA
[...] Lagunekin sagardotegi batean ginen berria jaso genuenean: Idiazabal eta Elgoibarko gazteek futbol epaileak zelaian euskaraz hitz bat entzun orduko kaleratuko zituen mehatxupean hasi zuten partida. Medio zein jende askok epailearen jatorriari egundoko garrantzia eman dio. Bada derrepentean euskaltzale amorratu bihurtu denik ere, epaile andaluziar batek espainola berdegunean inposatu zuelako. Ni ere futbol epailea naiz. [...] Nik ez diet jokalariei gaztelera inposatu behar. Beraiek dira, inork ezer

esan gabe, espainolez mintzo direnak. Orain dela hilabete Lazkao-Idiazabal partida epaitu nuen. Jokalariek haien artean euskaraz egiten zuten arren, niri zuzentzeko garaian espainola zarabilten. Nik euskaraz erantzun, eta harridura eta lasaitasunaren arteko aurpegi konplizez begiratzen ninduten. Arazoa non dago? Andaluzian, Madrilan? Edo etxean? Zuek esan.

Garaipen historikoa

AXIER LOPEZ

HTTPS://LABUR.EUS/VSLD1

'ARGIA'-N ARGITARATUA

Borroka luzea da Britainiako Notre Dame des Landes-eko

aireportuaren aurkakoa. [...] Urtarrilean, ordea, Frantziako Gobernuak jakinarazi zuen atzera egingo duela eta aireportua ez duela eraikiko. Historikotzat jo dute garaipena eta hala ospatu dute asteotan ZADeko erresistentzia eremuan bizi direnek. Izan ere, aireportuarentzat ziren lurak eta etxeak okupatu eta biziberritu dituzte azken urteotan; bizigune, etxola, landa, baratze, gasnategi, okindegi, zurgintza tailer, liburutegi eta abarrak sortuz. Herri bat. Hori da orain arriskuan dagoena. Han bizi den jendea indarrez kanporatzeko agindu baitu Gobernuak. Borroka berri baten hasiera da.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Sailletako arduradunak

Xabi Urtzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).

Maketazioa

Imanol Soriano, Aitor Lagoma.

Publizitatea

Amala Mundiñano,
Ziortza Martin,
Imanol Elortza.

Administrazioa

Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,
Nerea Artola.

HARPIDETZA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 00
publi@goiena.eus

EGOITZA NAGUSIA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tirada: 19.000 ale
Difusioa: 18.723 ale

Argitaratzailea

Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkartea
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria

Aitor Izagirre.
Zuzendari nagusia
Iban Arantxabal.

Eduki zuzendaria

Eneko Azkarate.

Erredakzio batzordea

Eneko Azkarate, Goyatz Arana,
Monika Belastegi, Mirari Altube.

Zuzendari komertziala

Mireia Larrañaga.

Administrazio zuzendaria

Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna

Iñaki Iturbe.

Hizkuntza arduraduna

Sergio Azkarate.

Harpidetza eta banaketa arduraduna

Marta Leturia.

LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiako Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

BERBAGAI

"Bergarako historia hurbildu gura izan diegu herritarrei"

LOURDES ODRIOZOLA HISTORIALARIA

Iker Oñate BERGARA

Herriko historia laburtzen duen liburua kaleratu berri du Bergarako Udalak: *Bergarako historiaren sintesi labur eta dibulgatiboa*. Lourdes Odriozola historialariak izan du hori idazteko ardura -Udalak Eusko Ikaskuntzari egin zion enkargua-; eta hainbat herritarren laguntza izan du horretarako. Liburuaren eta hiri-gutunaren inguruan berba egin du Odriozolak. **750 urte igaro dira Bergarako hiri-gutuna jaso zuenetik. Liburua idatzi duzue.**

Finean, herritar ororendako irakurgai izan zitekeen historia liburua idatzi gura genuen. Eta herritarrek pilatutako dokumentuak erabili ditugu, gaurko Bergara hobeto ulertzeko baliagarri izan daitezke. Alegia, egitasmoaren helburua ez da izan herriko artiboetan sekulako bilaketa egitea. Hori horrela, esan beharra dago bergararekin izandako



Lourdes Odriozolak idatzi du liburua, herritarren laguntzarekin. LOURDES ODRIOZOLA

elkarlanaren fruitu dela liburua.

Zein esangura izan zuen hiri-gutunak Bergararentzat?

Hiria sortzeko mugari izan zen aitortza hura; eskubideak eta erregearen babesa eman

zizkion Bergarari. Eta ez soilik harresi barruan bizi ziren herritarrei; landa-eremukoei ere horiek aitortu zitzaizkien. Hiri-gutunak izan ez balitz, Bergara ez zen gaur egungoa izango.

Gaur egungoa ezagutzeko garrantzitsua izan ohi da atzera begiratzea, ezta?

Duda barik. Jakin behar dugu, besteak beste, Bergarak zergatik dituen Seminarixoa, Laboratorium museoa eta halakoak. Ez da kasualitatea. Esan moduan, mugari izan zen hiri-gutuna jasotzea. Ostekoa definitu zuen horrek. Eta pixkanaka-pixkanaka aldatu da herria, garaian garaia egokituz. Tartean, garrantzi handikoa izan zen XVIII. mendean sorturiko Bergarako Errege Mintegia -Seminarixoa-; horrek leku onean kokatu zuen herria, ikerketaren alorrari gagozkolarik.

Eta bestelako berezitasunik ere izango du herriak...

Asko. Besteak beste, bertako industriari errepara diezaiokegu. Alegia, Erdi Aroan, inguruko herriek kanoiak egiten ziharduten bitartean, Bergaran guraizeen eta labainen ekoizpena zen nagusi. Oihalgintzak garrantzi handia izan du herrian. Eta, bestetik, aipatu beharrekoa da emakumeek industrian zuten presentzia. Esan dezakegu 1940ko hamarkadan %40tik gora emakumeak zirela. Esangura handiko datua da hori, duda barik.

HAU BE BADOGU!

Egunkaria itxi zutenetik 15 urte igaro dira



Sare sozialetan ere bolo-bolo ibili da aste honetan gaia, otsailaren 20an, martitzenean, bete ziren-eta 15 urte *Euskaldunon Egunkaria* itxi zutenetik:

@IruneLasaA: "Otsailaren 20 hartan, Guardia zibila oraindik han zela, gure ondoko Latz lantegiko langileak folioz egindako txartelekin atera ziren. Orduetik aurrera, bata bestearen atzetik, etengabe iritsi ziren elkartasun keinuak. #Egunkaria #Egunkaria15".

Aitor Zabaletaren omenez, harmaila

Realak animaziorako harmaila berria sortuko du zale txuri-urdinendako Anoetan, eta honek Aitor Zabaleta Harmaila izena eramango du:

@iruinxo: "Brutala. Aitorrek, azkenean, merezi duen lekua izango du. #AitorZabaletaHarmaila".
@etxaniz_a: "Malkoak begietan eta zirrara bihotzean... Eskerrik asko Real Sociedad! #Nortasuna #Harrotasuna #Maitasuna #AitorZabaletaHarmaila".

Elkartasun mezuak Ekai ondarrutarrari

Bere buruaz beste egin duen transexual gaztea gogoratu dute askok sare sozialetan:

@pototxak: "Bihotza oraindik apurtuta. Ez zaitugu inoiz ahaztuko #Ekai! Transfobiarik ez!".

@ChrysalisEH: "Adiorik ez, #Ekai, gero arte! Gaur mina, tristura eta amorrua sentitzen dugu. Lanen jarraituko dugu, eta ez tristurak edo amorruek bultzatuta, baizik eta maitasunak bultzatuta. Gure seme-alabekiko sentitzen dugun #maitasuna".

ITURRI ONETIK

Oñatitik Herbehereetara, Emusik jaialdira

Oñatiko Jose De Azpiazu Musika Eskolako ikasle eta irakasle talde bat aurten Herbehereetan egingo den Emusik jaialdian izango da maiatzaren 8tik 11ra bitartean. Europako hainbat hiriburutan bi urtetik behin egiten da jaialdia eta 2016an Donostian egin zen, Europako Hiriburutzaren baitan. Donostiako jaialdiaren ekitaldietako bat, gainera, Oñatin egin zen. Folk musika da jaialdi horren oinarria. Aurtengoa 13. aldia da eta Seneek hirian egingo dute, Herbehereen iparraldean.

ALBISTE IZAN ZEN

2003-02-20

'Egunkaria' itxi zutela salatzen, kalera

Martitzenean, otsailaren 20an, bete dira 15 urte itxi zutela *Euskaldunon Egunkaria*. Guardia zibilek, Espainiako Auzitegi Nazionalako epaile baten aginduz, egunkariaren egoitzan sartu, hura itxi eta arduradunak atxilotuta Madrilera eroan zituzten. Atxilotuen artean zen Fermin Lazkano bergararra, urteetan gerente izandakoa. Goienako langileak kalera irten ziren eta euskarazko egunkari bakarraren itxiera salatu zuten.



GOIENA

Pagapea

JOSEBA IPARRAGIRRE SAN SEBASTIAN

ANTZUOLA

Gaur EITBn berriak ikusten nengoela, Nafarroan, Lesaka inguruan egindako ekintza baten berri eman dute.

Ikastolak antolatuta, haur eta guraso, zuhaitzak landatzera joan dira. Hori ikusita, gure Pagapearekin gogoratu naiz.

Bazen Antzuolan, Estala gainean, toki bat herritar askorentzat kuttuna, Pagapea bezala ezaguna zena. Iturri bat ere bazen, gaur egun lehortuta, desagertuta. Sasoi baten, gurasoei hala entzunda, udako arratsaldeetan merienda hartuta bertara joaten ziren *arratsalde-pasa*.

Autobiaren obrak hasi zirenean, lurrak mugitu eta nonbaitera bota behar eta, pentsatu zuten Estalako futbol zelaiaren gaineko aldea betetzea: Pagapea, hain zuzen. Izan ziren ika-mikak, kezka eta zalantzak herritar askoren aldetik, erreguak halakorik ez egiteko zuen arriskuagatik, baina basoa bota egin zuten. Lanak egiten hasi ere bai, baina teknikariek ikusi zutenean lurra ez zela batere egonkorra, bertan behera utzi zuten euren asmoa, baina ordurako Pagapea galdua zen.

Gogoan dut orduko Aldundiko agintariek nola agindu ziguten bertako espezieak landatuko zituztela –orain ez, sasoi ez delako–, baina kito! Ez zen halakorik gertatu eta hor gelditu zen lur eremua biluzik eta gu, ondarrerik gabe.

Lesakakoa ideia erakargarria iruditu zait; ni prest nengoek, eta uste dut nahi duten haur, guraso eta herritarrendako gauza ederra litzatekeela galdu zena berreskuratzen saiatzea.

Mutikoa nintzela, Arrola Mendizale Taldeak antolatuta, Deskargatik Arrolara doan bidean landatu genituen zuhaitzak, nik urki bat landatzen parte hartu nuen; gaur egun, bide horretatik pasatzen naizenean, eskua bere enborreko azal zurian ipiniaz agurtzen dut. Ederra

litzateke hemendik 30 edo 40 urtera gaur egungo Antzuolako haurrek gauza bera egin ahal izatea Pagapean.

Hori bai, agindua zor, zuhaitz landareak ordaindu eta ekarri ditzala Aldundiak, eta landatzera joango gara herritarrok.

Oxfam

GORKA MARTINEZ

HARREMAN DENDA BIDEZKO MERKATARITZAKO KOORDINATZAILEA ARRASATE

Azken asteotan jaso ditugu nazioarteko gobernuz kanpoko erakunde honen inguruko berri txarrak benetan. Nire helburua ez da izango gertaerak azaltzea, ezta erakunde erraldoi hori justifikatzea, beraien webgunean atal bat zabaldu baitute garai hartako gertaerak eta erakundearen ikuspegia azaltzeko. Gonbidatzen zaituztet ikustera, zenbait gauza ondo ezkututzen baititu prentsa kontserbatzaileak.

Harreman Dendan, Oxfam Intermon-eko –Espainiako Oxfam GKE– Bidezko Merkataritzako produktuak dauzkagu, eta gure jarrera argi laga nahi dugu; zero tolerantzia horrelako gertaerei. Oso zorrotz kritikatzeko eta salatzen ditugu bai errudunak –abusuen egileak–, baina baita ardura zutenak ere –beste alde batera begiratu zuten zuzendariak–.

Hau esanda, gustatuko litzaidake aipatzea zurrumbilo honekin sektore guztia zaku berean sartu nahi dutela batzuek. Eta noski, hori ere gogor kritikatzeko dugu, ezjakintasunean oinarritutako iritziak eta akusazioak entzun baitira azkenaldi honetan.

Oxfam GKEk hiru lan-ildo ditu: Laguntza Humanitaria –gosesteak, lurrikarak, eta abar daudenean–, Intzidentzia Politikoa –txosten objektiboen bitartez ezkutututako errealitateak azalaraztea helburu– eta Bidezko Merkataritza –ekoizleak duintasunez tratatzea–. Orain albiste penagarri diren horiek

Laguntza Humanitarioan gertatu ziren; beraz, gure aldetik, Fairtrade Mugimendua errealitate bihurtzen dugunok, ez daukagu, inondik inora, lotsarik sentitu behar.

Haserrea eta kezka

ILLART AZKARATE, EIDER ZUMALDE, IÑAKI GONZALEZ, AMAIA ARRIETA, ARITZ OYANGUREN, AMAIA IDIGORAS, ENERITZ URRUTIA, BEÑAT IRAZABAL ETA ELI BERRIDI (ARIZMENDI IKASTOLAKO IRAKASLEAK) DEBAGOIENA

Ikasle Abertzaleak taldeak Arizmendi Ikastolaren aurkako manifestazio nazionala deitu duen honetan, gure kezka eta haserrea adierazi nahi dugu.

Greba araudia aldatzearena Ikastolaren aurka egiteko aitzakia da. Ikasturte hasieran, greba araudiaren lanketa lehentasun moduan jarri zuen Bigarren Hezkuntzako zuzendaritzak. Gela bakoitzeko ikasle ordezkariak, bi irakaslerekin batera, bilerei ekin zieten. Bileren helburua araudiko puntuen inguruan hausnarketa egin eta aldatetako proposatzea da, ondoren, ordezkariak beraien geletan proposamenaren kontrastea egiteko. Batzorde honen atekak beti egon izan dira zabalik arautegiaren aldatetako parte aktibo izan nahi duen ororentzat. Prozesu parte hartzailea; eta ikasleak, aldatetaren protagonista. Ezin dugu ulertu beraien lana eta gaitasuna gutxieste. Kanpotik, inork, egin behar dutena inposatzea. Greba araudia aldatzeko prozesua abian da eta ikasleak dira ahots garrantzitsua, gure hezkuntza komunitatearekin adostasunean. Horregatik defendatzen dugu Arizmendi Ikastolan martxan jarri dugun prozesu hau.

Ikastolak izan gara euskal hezkuntza asmatu, garatu eta zabaldu dugunok Euskal Herri osoan, Aturritik Ebroraino. Hau euskal herritar askoren beharra izan da betidanik; herritarrok izan gara sortzaile eta kudeatzaile lehen ikastola sortu zenetik. Arizmendi bera

kooperatiba integrala da, eta, langile eta familia bazkideez gain, kolaboratzaile bazkideak ere baditu, 700 bat herritar dira Arizmendi Ikastolaren proiektuan sinesten duten bazkide kolaboratzaileak. Honek gure hezkuntza komunitatea 5.000 pertsona ingurukoa izatera darama, antolaketa autoeratuarekin. Herrigintzatik sortuak eta herrigintzan ekinez dihardugu; beraz, ez dugu inondik inora onartzen IAK bere adierazpenetan diskurtso kapitalistaren inguruan aipatzen dituen gezurrak, gure ikastola etsai modura lerrokatuz. Ezta zenbait adierazpen egiteko erabili dituen moduak ere. Gure lanarekin eta gure ikasleekin harro gaude eta Arizmendi Ikastola osatzen dugun guztiok proiektu sendoa egiten ari garela uste dugu herri, bailara eta Euskal Herriarentzat. Arizmendi Ikastola, beste batzuen artean, gizarte eraldaketarako elementu klabea da bailaran, eta bertako partaideok pertsona aske, burujabe, arduratsu, ekintzaile eta euskaldunak garatzeko beharrezkoak diren antolaketa eta testuinguru pedagogikoak sortzen dihardugu. Hori da gure xedea, ez besterik.

Oñatiko Kultura Sariak, ke guay!

XABIER ELORZA COLINAS

OÑATI

Otsailaren 16an Amaia Erostarbek Oñatiko PNVren udal taldearen izenean GOIENAn idatzitako iritzi artikulua inguruan nire iritzia eman nahiko nuke.

Gutun horretan, Amaiak, Oñatiko PNVren udal taldearen izenean, Oñatin Kultura Saririk ez dagoela eta Udaletik Kultura Saria sortzea proposatzen du, dirudienez, eta beraien ustetan, hori baita kulturaren esparruan diharduen edo jardun duen edonoren lan ona, ahalegina eta ibilbidea aitortzeko, balioan jartzeko eta bistaratzeko modua.

Ez naiz ni izango Kultura Saria jasotzeko merituak egin

dituen inor. Beno, agian, bai. Nork daki! Baina badira urte dezente kulturaren esparruan lanean –xaxaketan– nabilela: kontzertuak antolatzen, musika sortzen, jaietako Txosna Batzordeko eta Gazte Asanbladako kide bezala ekintzak antolatzen eta herrian eginiko beste mota askotako kultur ekintzetan parte hartzen. Eta zera esan nahi diet Amairi eta Oñatiko PNVren udal taldeari: jendeak egindako lana, ahalegina, eta abar ez dira talonario, txeke zuri, opari eta prentsarako ateratako argazki bidez saritzen. Hemen, udal baliabideak jendearen eskura jarri behar dira, burutu nahi diren ekintzak samurtuz. Jendeak burutu nahi dituen proiektuak babestu behar dira. Jendeari egiten utzi behar zaio! Baditu jada 37 urte, eta ondo gogoan dut nola PNVren aldetik herritar askoren lanak mespretxatu egin izan diren, eta ez diren inoiz aintzat hartu izan. Traban geundela sentiarazi gaituzue askotan!

Herriko musika taldeen kasuan, lokalen eraberritzearen ondoren –eraberritze kaxkarra!–, 10-15 urte eman genituen Errekaldeko eskolako sotoan zeuden musika lokaletako baldintza negargarriak jasaten! Zure alderdia Udaleko buru zela, gainera. Inolako irisgarritasun neurrik gabe, osasunerako ere kaltegarriak ziren baldintzetan, arratoiz eta hezetasunez lepo zeudelarik!

Beraz, sari gutxiago eta kulturaren esparruan dabilten baldintzak hobetzeko lan gehiago!

Onartzen dut. Litekeena da jeloskor egotea, nik ez baitut Goyarik irabazi –zorionak Aitorri eta lantalde osoari. Bai, horixe!–, baina zein polita den saritua zoriontzea! Gogoratuko zinateke saririk lortu izan ez balu?

Bukatzeko, eta euskal senari ezin eutsiz, etorkizunean Kultura Saririk balego, ona hemen hautagai batzuk:

Antixena gaztetxea, Txosna Batzordea, auzoetako jai batzordeak, eta abar, eta abar, eta abar.



Iaz apirillean egindako Merkemerkaun, herritarrak arropak begiratzen. GOIENA

Denden maukak kalean, erosleen mesederako

Gaur arratsaldean eta bihar egun osoz, Ibai-artereko merkatariek euren produktuak aterako dituzte kalera, beste behin. Elkarteko zuzendaritzak ekintzetan parte hartzera animatu nahi ditu Ibai-artereko kide ez diren dendari guztiak

Xabi Gorostidi ARRASATE

2018ko lehen Merkemerkaun egingo du Ibai-arterek gaur eta bihar artean.

Irailean egin zen azken edizioa, Erdi Aroko feriarekin batera. Horren eragina gutxitzeko asmoz, Ibai-artereko dendariak azoka egubakoitz arratsaldean ere egitea erabaki zuten, eta, ondo joan zela ikusita, asteburu honetan ere bi egunez aterako dituzte produktuak kalera.

"Erdi Aroko azoka zela eta erabaki genuen Merkemerkaun ostiralez ere egitea. Oso erantzun ona izan zuen, eta, hori ikusirik, formula berbera erabili dugu oraingoan ere", adierazi du Ibai-artereko kide batek.

Laguntza musikala

Hala, gaur, egubakoitza, 16:30etik 20:00etara egongo da maukak erosteko aukera. Bihar, aldiz, egun osoz, 10:00etatik 20:00etara. Gaur arratsaldean, herriko kaleetan musika falta ez dadin, Trikitixa Eskolaren laguntza

izango dute merkatariek. Ibai-arteren helburuen artean dago herriko beste eragile batzuekin elkarlana izatea, eta Trikitixa Eskolaren parte hartzea horren adibide da.

Bihar, ordea, BraZZtet Brass Band taldeak izango du ardura hori, eta bi txandatan arituko dira: goizean 11:30etik 13:30era eta arratsaldean 17:00etatik

19:00etara. Aurretik parte hartu izan dute merkatariek elkartearrekin; adibidez, 2017ko urrian antolatutako *Zatoz Ibai-arterekin plazara* ekimenean.

Herriko 30 komertzio

Oraingo honetan, udazkeneko eta neguko produktuak prezio erakargarrietan jarriko dituzte herriko 30 dendariak.

Besteak beste, moda, lentzeria, osagarriak eta oinetakoak izango dira aukerak. Azkenaldiko eguraldi petralik ez da izango, eta giro atsegina alde izango dute, bai gaur, eta baita bihar ere.

Honako kale hauetan eta plazetan jarriko dituzte euren maukak salgai: Biterin, Erdiko kalean, Garibain, Olarten, Otalaran, Iturriotzen, Ignacio Zuloagan, Arbolapetako karpan, Juan Carlos Guerra plazan, Maalako Errebalean, Zerkaostetan, Foruen plazan, Doctor Bañezen, Maisu Aranoren eta Zarugalden.

Elkarteko kide ez direnei deia

Ibai-arterek ahalik eta kide gehien izateko ahaleginari eusten dio. Hala, elkarteko kide ez izan arren bere ekintzetan parte hartzeko aukera eman nahi die oraindik bazkide ez diren komertzioei. Informazio gehiago jasotzeko, 943 79 30 90 zenbakira deitu.

Sahararen aldeko bigarren eskuko azoka egingo da bihar

Sagiri elkarteak antolatuta, Sahararen alde dirua batzeko azoka egingo dute bihar goizean. Bigarren eskuko hainbat produktu egongo dira bertan: arropak, jostailuak eta liburuak, besteak beste. 10:30erako postuak gertu egongo dira Seber Altube plazan. Eguraldi txarra eginez gero, Biterin jarriko dute azoka solidarioa.

Trena ardatz hartuta, bisita gidatua izango dute zapatu goizean

Gida Turistikoaren Nazioarteko Eguna dela eta, bisita gidatua antolatu du Udalak zapaturako. Trena Arrasatera iritsi zela 100 urte bete berritan, Zaldibarko frontoitik Elorregiraino joango den bisita gidatua prestatu dute, trenaren historia eta haren inguruko transformazio urbanistikoak jorratzeko. Hitzordua, 11:00etan, Zaldibarko frontoian.

Hezkuntza informala, ez formala eta formala mapa baten bueltan

'Hezkuntza' kontzeptua "eskolatik harago" dagoela irudikatzeke egin du mapa Udaleko Hezkuntza Sailak

X.G. ARRASATE

"Egun, *hezkuntza* kontzeptua eskolaz harago doa eta gure bizitzan prozesu iraunkor bezala, herrian, ematen da. Testuinguru honetan, udalerririk eremu hezitzaileak dira eta herritarrak eragile hezitzaileak eta hezkuntza tipologia guztiek -formala, ez formala, informala- osatzen dute esparru hezitzailea", azaldu dute Hezkuntza Sailekoek.

Mapa bat eta liburuxka bat egin dituzte, hezkuntzarekin zerikusia duten eragileak zeintzuk diren erakusteko asmoz.

Bertan, herriko ikastetxe publiko eta kontzertatuak, akademiak, kultur elkarteak eta elkarte feministak ageri dira, besteak beste. Liburuxkak 215 orri ditu, eta bertan, eragile bakoitzari buruzko informazioa praktikoa dago, klik batzuk eginaz.

Horretarako, *Arrasate.eus* webgunean jarri dituzte bai mapa eta baita liburuxka ere. Hezkuntza Sailaren orrian sartuz gero, ezkerrean dauden aukeretan azkenean egin behar da klik; *Arrasateko Heziguneak 2018* izena duenean, hain zuzen.



ARTGAZKI

1.020 euro Aspanogi laguntzeko

Domekan, Artgazki elkarteak antolatutako *Udazkena Euskal Herrian* lehiaketako sari banaketa egin zuten Kulturaren. Lehen postua Igor Altunak lortu du, bigarrena Iban Yañizek eta hirugarrena Iñigo San Vicentek. Erakusketan 45 argazki onenak egon dira salgai, eta horietako 34 saldu dituzte minbizidun gazteekin lan egiten duen elkarte laguntzeko.



Ekideko langileak Arrasateko egoitzako *showroom*-ean ateratako argazkian. XABI GOROSTIDI

Ekidek 102 lanpostu sortu ditu bost urtean

Enpresa arrasatearrak 28 urte ditu, baina hazkunde nabarmena izan du azken bost urteetan. Gaur egun, 149 langile daude enpresan –2012ko kopuruaren hirukoitza–. Krisi garaian nazioarteratzeko egindako apustua giltzarria izan da hazkunde horretan

Xabi Gorostidi ARRASATE

Enpresetan krisi garaiak aukeren garaiak direla esan ohi da. Momentu horietan inoiz baino garrantzitsuagoa izaten da jarraitu beharreko estrategia ondo definitzea eta baliabide guztiak horretara bideratzea. Azken krisialdian, Arrasateko enpresa batek nazioarteratzeko apustu

sendoa egin zuen, eta, urte batzuk geroago, nabaria da fruituak jaso dituela.

"Enpresa munduan, erabaki gehienek ez dute emaitzarik ematen epe laburrean. 2008tik 2009ra gure fakturazioa %28 jaitsi zen, baina garbi geneukan bide onetik ari ginela. Maletak hartu, eta Europako enpresak

bisitatzen aritu ginen, eta lan komertzial horren emaitzak urte batzuk geroago heldu dira" azaldu du Ekideko gerente Oscar Sevillanok. Gaur egun, hiru negozio arlotan dihardute: lehen, eta garrantzitsuen, kontrol tresnak; ondoren, ingeniari eta fabrikazioa; eta azkenik, ikuspen artifiziala.



NIRE USTEZ

HORAZIO ARGARATE

Garizuma

Nahiz eta aita santuak ere bertan parte hartu zuen, eta, demaseko parranda egin ostean, ahaztuta dauzkagu Aratusteak. Garizuma aldi sarturik gaude. Karapaixoak ote dira gurean aspalditik gordetzen den aldi honetako ohitura publikoa bakarra?

Elizan aldi garrantzitsua dugu Pazko aurreko berrogei egun hauek. Elizak, garizuman, kristau garenok, bereziki, eta, oro har, herri osoari, jatorriaren eta zintzotasunaren aldeko deia zabaltzen digu. Badakigu dei mota hauek hitzez baino adibideekin eginez gero hobeak direla; hala ere, beharrezkoak ditugu. Gure artean balioak berez sortzen zaizkigula sinisturik baikaude, ilustrazioaren ideia oker bati jarraituz. Honetan ere, errealitateak kontra egiten du.

Horregatik, egiaren, zuzentasunaren eta ontasunaren aldeko aldarrikapena ez da alferrik izango. Zuzenago izango den gizartea nahi badugu, zuzenagoak izango diren pertsonak sortu beharko ditugu. Lan horretan gabiltza, baina ez dugu lortzen. Jatorrizko bekaturen errua izango ote da?

Hizkuntza Eskolaren gela desplazatua, Helduen Eskolan

Arrasate pasealekuan kokatuko da 2018-2019 ikasturtean Eibar-ko Hizkuntza Eskolaren gela desplazatua, Arrasateko Helduen Eskolaren egoitzan.

Herrian aspalditik zegoen hizkuntza atzeritarren zerbitzu hori Arrasatera ekartzeko eskaria, eta, datorren ikasturtetik aurrera, ingelesko, frantseseko eta alemaneko eskolak eskainiko dituzte bertan.

Hori irudikatuzko, Eibarko Hizkuntza Eskolako, Eusko Jaurlaritzako eta Udaleko ordezkariak instalazioak bisitatu zituzten, atzo, osteguna. Gela kopurua, ordutegiak eta izen emate epeak aurrerago zehaztuko dituztela azaldu zuten ordezkariak.

Ekideren emaitzak, datutan

Hona hemen enpresaren hazkunderi buruzko datu batzuk:

Langile kopurua

- **2012** 47 langile ari ziren enpresan lanean.
- **2017** 149 langile ari ziren enpresan lanean; bost urtean kopurua hirukoitza egin zen.

Fakturazioa

- **2007** 6.040.000 euro
- **2013** 10.900.000 euro, krisi aurreko zifra bikoiztetik gertu.
- **2017** 24.000.000 euro, 2007koa baino lau aldiz handiagoa, eta 2012koaren bikoitza.

Bost urtean, langileak hirukoitza

Aipatzen dituen emaitzak nabarmenak dira hainbat esparrutan; fakturazioa, nazioarteko presentzia, langile kopurua eta inbertsioak kasu.

2017an 24.000.000 euroko fakturazioa izan zuen Ekidek. Duela hamar urte fakturatutakoa baino lau aldiz handiagoa da, eta 2013koaren bikoitza.

Gaur egun, Arrasaten daukate egoitza nagusia, eta Euskal Herriko bigarrena Zamudion. Horrez gain, Txinan filiala dute, eta duela gutxi planta berri bat zabaldu dute Mexikon, AEBetako merkaturaren finkatzeko helburuarekin.

Langileei dagokienez, 102 lanpostu sortu dituzte bost urtean –langile kopurua hirukoitza egin dute–. 102 postu horietatik hamazortzi Zamudion sortu dira

eta lau Mexikon, baina gainontzeko guztiak Arrasaten.

"Arrasaten hartu ditugun langileen %90 eskualdeko langileak dira. Horrez gain, inguruko hezkuntza erakundeekin harreman estua daukagu; Mondragon Goi Eskola Politeknikoarekin, Miguel Altuna Lanbide Heziketarekin, Aretxabaletako Lanbide Heziketarekin eta Makina Erremintaren Institutuarekin. Urtero, zentro bakoiztetik pare bat ikasle hartzen ditugu gurean", azaldu du Oscar Sevillanok.

Inbertsio alorrean azpimarragarria da fakturazioaren %6,7 bideratzen dutela ikerketa eta garapen aktibitateetara. Gizarte ekintzara ere bideratzen dute irabazien zati bat, Mundukide eta DYA erakundeak lagunduz, adibidez, eta herriko kirolariak babestuz.



IÑAKI GOROSTIDI

83.670 euro parkea berritzeko

Nao de Santiago kaleko jolas-parkea berritzeko kontratazio prozedura martxan dago. Hilabete bateko epea zehaztu dute lanak egiteko, eta, BEZa barne, 83.670 euroko aurrekontua izango du. Bestalde, Garibai etorbideko espaloia berritzeko lanak Construcciones Artzamendiri SA enpresari esleitu dizkiote, 192.787 euroren truke, BEZa barne.

Horma margotuak biltzen eta ikertzen

Josune Murgoitio ikertzailea Arrasateko eta Euskal Herriko hormetako pintaketak batzen aritu da 2011a ezker. Horien esanahia eta erabilera sinbolikoa aztertu ditu, eta horri buruzko erakusketa jarriko du Kulturaten otsailaren 28tik martxoaren 24ra

Xabi Gorostidi ARRASATE

Josune Murgoitio ikertzaile, kazetari eta idazle arrasatearra 2016an *Colores prohibidos* lehen nobela kaleratu zuen, eta orain, *Margotutako hormak* liburuarri forma ematen dabil. Azken obra horretan, Arrasateko eta Euskal Herriko paretetan ageri diren pintaketak dira protagonista, eta horiek ikusi ahalko dira datorren asteazkenean zabalduko den erakusketan. Murgoitoren arabera, ikuspegi antropologikoa du lanak. "Erakusketak hau ikerketa zientifiko batetik dator. Gizarte-antropologia ikuspegi du, baina baita memoria, bake eta giza eskubide ikuspegi ere".

Erakundeen babesa

Erakusketa antolatzeko, Geuz elkartearen laguntza izan du, Gizartea Eraldatzeko Unibertsitate Zentroarena. Baina Murgoitio azaldu duenez, beste eragile batzuen babesa ere jaso du. "Hasiera batean, Gogora institutuarekin jarri nintzen harremanetan. Ostean, Gipuzkoako Foru Aldundira jo nuen, eta Olatu Talka programaren barruan babesa eman zidaten. Horrez gain, Geuz elkartearen bitartez, Eusko Jaurlaritzaren babesa jaso nuen, eta, azkenik,

baita Arrasateko Udalarena ere. Otsailaren 28an 18:00etan egingo da irekiera ekitaldia Kulturaten, eta bertan, proiektua babestu duten erakundeetako ordezkariak izango dira.

Erakusketa, eta ostean liburua

Libururako batutako argazkiekin osatuko du erakusketa, baina oraindik ez du argitaratu. Irailean plazaratzea da asmoa, eta ostean, Durangoko Azokara eramango du.

Honela definitu du Murgoitio lan hori egitera bultzatu duen helburua: "Horma margotuak denbora luzez egon dira euskal lurraldean. Ikusi egin ditugu, haiei buruz hitz egiten entzun dugu, haien inguruan irakurri dugu, pertsona askok sentitu edo pairatu ere egin dituzte; alabaina, ez dira asko aztertu, ez esplikatuko ere".

Besteak beste, horma horien esanahia, balioa eta erabilera sinbolikoa ikusleekin lantzen ahaleginduko da erakusketa.

Tailerrak

Azken helburu hori lortzeko, bi tailer antolatu ditu, ondorengo egunetarako: martxoaren 10erako, goizez, eta martxoaren 15erako, arratsaldez. Izena emateko, info@geuz.es helbidera idatzi.



Josune Murgoitio idazle, kazetari eta ikertzaile arrasatearra. XABI GOROSTIDI

MERKE 2018 MERKAUA

Arrasateko stock azoka

<div style="background-color: white; color: #008080; padding: 5px; font-weight: bold;">OTSAILA</div> <div style="font-size: 48px; font-weight: bold; margin-top: 10px;">23 24</div>	<p>OSTIRALA 16:30-20:00</p> <p>LARUNBATA 10:00-20:00 (jarraian)</p>
---	---

**ORDAINKETAK:
ESKUDIRUTAN**

Arrasateko kaleetan zehar:
Bilari ezbidia, Erdiko Kalea, Ferretas, Garibal Etxebidea, Iurretz, Maritako erabola, Maizterren 1a plaza, Olatu, Olatu eta Zurugaitze.

Musika Ikuskizunak zuzenean

Antolatzaileak

Babeslea

Martxoaren 8ko kartel irabazlea

Juan Diego Ingelme izan da kartel lehiaketako irabazlea. *Izan direlako gara. Gora feminismoak!* leloa erabili du diseinua egiteko orduan, eta bertan, adindun andre baten itzala baliatu du Martxoaren 8ari keinu egiteko. Guztira, hemeretzi lagunek hartu dute parte kartel lehiaketan, eta horiekin guztiekin erakusketa egingo dute Kulturaten martxoaren 5etik 16ra.



JUAN DIEGO INGELME



Malen Ruiz de Azua –gorriz– eta Maialen Axpe –urdinez–, podiumean. JONATHAN PEREZ

Urrea Ruiz de Azuak eta brontzea Axpek, pertikan

Valentzian jokaturako pista estaliko Espainiako Txapelketa absolutuan podium bitxia osatu da; izan ere, Malen Ruiz de Azuak urrea partekatu du Monica Clemente kataluniarrarekin eta Maialen Axpek, berriz, brontzea Carla Franch valentziarrarekin

Eneko Azurmendi ARRASATE

Emakumezkoen pertika-jauzian ez da zilarrezko dominarik banatu. Izan ere, Malen Ruiz de Azuak eta Monica Clemente urrea partekatzea erabaki dute, marka bera egin ostean. 4,31 metroko marka biek lehenengo saiakeran gainditu ostean, 4,36 metrokoa bietako inork ez du gainditu. "Bi aukera genituen:

berdinketa hori apurtzen saiatu, edo lehenengo postua partekatu. Hitz egiten egon ostean, bigarren aukerarekin geratzea erabaki genuen", azaldu du. Hala, partekatuta bada ere, bigarren urtez segidan irabazi du Ruiz de Azuak pertika-jauzian, pista estalian. "Oso pozik nago. Txapelketara sentsazio onekin iritsi nintzen, aurreko asteetako en-

trenamenduetan maila ona emanaz. Sentsazio on horiek txapelketa honetan errematatu nahi nituen, Espainiako Txapelketa garrantzitsuena delako, azken finean. Zorionez, hala izan da", adierazi du.

Bide batez, bere marka pertsonala ondu du arrasatearrak. Pista estalian 4,21 metroko marka zeukan eta aire zabalean 4,26

Oinarrizko eskalada ikastaroa, kiroldegiko abonatuentzat

'ArraSasoi: hamabi hile, hamaika gai' programaren baitan antolatu du ikastaroa Udaleko Kirol Sailak

E.A. ARRASATE

16 urtetik gora duten kiroldegiko abonatupei zuzendutako ikastaroak izango dira.

Taldeak hamar pertsonakoak izango dira, gehienez, ahalik eta zerbitzu indibidualena emateko.

Hori dela eta, komeni da izena lehenbailehen ematea. Kiroldegiko harreraren bertan izango da horretarako aukera.

Abonatuak bi egun eta lau saio izango dituzte aukeran. Ordu erdiko saioak izango dira. Ba-

tetik, otsailaren 27an –martitzena–, 12:30etan eta 13:00etan. Bestetik, martxoaren 1ean –eguna–, 19:00etan eta 19:30etan.

Irakasleek oinarrizko abileziak erakutsiko dituzte paretan mugitu eta zintzilik mantendu ahal izateko. Ez da inolako materialik eraman behar izango, Uarkapeko frontoiko boulderrean beharrezko material guztia dago eta.

ArraSasoi: hamabi hile, hamaika gai programaren baitan, hori izango da otsaileko eskaintza.


Istar Dapenak, brontzea

Gizonezkoen pertika-jauziari dagokionez, Istar Dapenak brontzea eskuratu du, 5,22 metroko marka lortuta. Hala ere, zapore gazi-goza utzi dio txapelketak. "Urte osoan ibili naiz entrenamendu gogorak egiten eta min hartuta iritsi naiz, orkatila gaizki eta iskieetan gainkarga batekin. Horrez gain, sukarra nuen. Ez nuen lehiatu nahi, motibazio guztia galdu nuen. Hala ere, entrenatzaileak eta ingurukoek animatu ninduten eta parte hartzea erabaki nuen", azaldu du.

Fisikoki ondo ez egon arren, azpimarratu du pertikan teknika ere "oso garrantzitsua" dela, eta, hori ondo landuta, hirugarren postua eskuratu zuen arrasatearrak, azkenean. Kontuan hartuta ze baldintzatan lehiatu zen, emaitza ona da. Hala ere, pena du Dapenak. "Ondo egongo izan banintz, txapelketa irabazteko aukerak izango nituen", nabarmendu du.

Markari dagokionez, 5,22 metroko jauzia egin zuen, pista estalian daukan marka pertsonala bi zentimetro hobetuz. "Hainbeste entrenatu ondoren, gutxienez, 5,40 metroko markaren bueltan ibiltzea espero nuen", dio.

Hala ere, gustura dago Dapena, eta azaldu du horrek motibazio modura balioko diola aurrera begira. "Baldintza hauetan egonda emaitza hauek lortzeko gai izan banaiz, hobetzeko aukera asko titudala iruditzen zait, eta horrek motibatzen nau".



Istar Dapena, dominarekin. J.P.

metrokoa. "Gutxien espero nuen lortu dut", onartu du.

Maialen Axpek ere brontzea partekatu behar izan du. "Txapelketa bera egin dugu. Huts egindako jauzi kopuru bera izan dugu eta 4,16 metroko marka ere biok hirugarrenean gainditu dugu. Beraz, hirugarren postua biontzat", zehaztu du.

Pozik azaldu da egindako txapelketarekin, baina arantzatzoko batekin geratu dela onartu du. "Sentsazio onak nituen eta uste dut hobeto ibil nintekeela".

Axpek ere bere marka pertsonala hobetu du. "Duela bi aste Zaragozan 4,12 metroan ezarri nuen nire marka, eta orain, lau zentimetro ondu dut".

Aitortu du "teknikoki eta fisikoki" hobetuz doala urtetik urtera eta hori dela garrantzitsua. "Ikusten dut hobetzeko aukera dudala oraindik, eta lanean jarraituko dut horretarako".

Azkenik, Ibai Fernandezek ere parte hartu du 60 metroko lasterketan, nahiz eta ez duen lehen kanporaketa gainditzerik izan.

Partidu zaila dauka asteburuan Kanpanzar ARTk

Ligako talde indartsuenetako baten etxean jokatu du bihar, zapatua, 14:00etan, Kanpanzar ARTk. Getxo Artea hirugarren da sailkapenean, 40 punturekin, eta Igor Isasirenak berriz, zazpigarren daude, 19 punturekin.

Pasa den astean etxean galdu ostean, mailari eusteko borrokan bete-bete murgilduta jarraitzen dute arrasatearrek.

Mallabia Seguros Altaldiren aurka ariko da Mondrate

Pasa den astean, konfiantza berreskuratzeko garaipen handia lortu zuen Mondratek, Gernikari 7-1 irabazita.

Dinamika onari eusten saiatuko dira asteburu honetan arrasatearrak. Sailkapenean aurretik duten Mallabia Seguros Altaldiren aurka jokatu dute bihar, zapatua, 17:30ean, Zaldibarko Udal Kiroldegian.

Martxoan hiru kontzertu, Kooltur Ostegunetan

Kooltur Ostegunek atzo eman zioten bukaera otsaileko egitarauari. Eta aurrera begira jarriak dira jada. Bada, iragarri dituzte herriko gaztetxeko agertokian izango direnen izenak: Zazkel, Jorge Da Rocha eta Lie Detectors. Hiru talde egongo dira, beraz

Iker Oñate ARRASATE

Otsaileko egitarauari bukaera eman ostean –Crim talde katalanek jardun zuen atzo–, aurrera begira jarriak dira Kooltur Ostegunetako antolakuntza ki-deak. Eta iragarri dituzte martxoan herriko gaztetxean izango direnen izenak: Zazkel, Jorge Da Rocha eta Lie Detectors. Zehatz esanda, ez dute eman dirik antolatutako martxoaren 8rako –emakume greba dute deitua egun horretarako– eta 29rako –Aste Santuko oporrak dira–. Gainerakoan, betiko dinamika segituko dute Kooltur Ostegunek. 22:00etan hasiko dira kontzertuok; eta bost eurotan eskura daitezke sarrerak, egunean bertan –ezin daitezke aurrez erosi–.

Gauzak horrela, martxoko lehen egunean izango da egitarauko lehen kontzertua. Hain zuzen ere, Zazkel talde bizkaitarrak jardungo du agertoki gainean. "Euskal Pop Erradikala egiten zihardutela esan zuten behinola. Beraz, presente dituzte 80ko hamarkadako doinuak, punkaz apartekoak", argitu du Iker Barandiaranek, antolakuntza taldekoak. Gaur-gaurkoz, bi

disco dituzte kaleratuak bizkaitarrek; azkena, aurreko neguan, *Ez entzun* deiturikoa. Lan horretan, hip hopa, rapa eta mota horretako estiloak uztartzen dituzte 80ko hamarkadako pop doinuekin.

Bestetik, martxoaren 15erako antolatutako hurrengo kontzertua; egun horretan, Jorge Da Rocha musikariari dagokio gaztetxeko agertokian jardutea. Kontrabaxu-jole portugaldarrak doinuek esperimendazioa du erdigunean. "Eskaintza interesgarria dakar. Hainbat instrumenturen doinuak uztartzen ditu kontrabaxuarenekin, *loop-a* erabiliz", argitu du Barandiaranek. Hain zuzen ere, musika taldea izan barik, soinu ezberdinak sartzea ahalbidetzen duen gailua da *loop-a* –zuzenean grabatzen dira soinuok–. Esan beharrekoa da, bestetik, kontrabaxua jotzen dutenen artean erreferente dela Da Rocha.

Eta, hileko egitaraua bukatzeko, Lie Detectors izango da martxoaren 22an. Duela bi urte pasa sortu bazuten ere, eskarmentu handikoa da Donostia aldeko musika taldea: taldekideek urte asko daroatzate musikaren mun-

duan murgilduta; besteak beste, Plan B eta Nuevo Catecismo Catolico taldeetan. Hain zuzen ere, garage musika estiloa erango du gaztetxeko agertokira, punk ukituarekin, beti ere. Aipatu beharrekoa da sona handiko taldea dela Lie Detectors. Eta, hori horrela, kontzertu asko ditu eskainiak Estatuan.

Proiektu berria du esku artean Doke antzerki taldeak

Azaroan aurkeztuko dute antzezlan, eta hainbat berrikuntza iragarri dituzte

I.O. ARRASATE

Egitasmo berria du esku artean Doke antzerki talde arrasatearrak. Bada, oraindik askorik aurreratu ezin dezaketen arren, "bestelako formatua" izango duela diote. "Abesbatzako zenbait kide ere izango dira. Abestu ez ezik, antzeztu ere egingo dute, gainera", argitu du Mariasun Pagoagak, Dokeko kideak.

Aurreikuspenen arabera, proiektu berriak azaroan izango du estreinako emanaldia. Eta hainbat antzezlekutan jardutea litzateke asmoa. Gainera, gazte

talde bat ere batu zaie ohiko antzezleei. Guztira, hamabi antzezle inguruk jardungo dute agertokian.

Bitartean, badago bestelako egitasmoetan parte hartzen dabilen Dokeko kiderik ere. Esaterako, Moriartik ekoiztutako film labur batean jardun du buru-belarri Mariasun Pagoagak: *Mateoren ama*. Hain zuzen ere, Aitor Arregik eta Jose Mari Goenagak idatzi dute gidoia –zuzendari lanak ere egin dituzte–. "Luxua da eurekin lan egitea", aitortu du Pagoagak.



Martxoko egitaraua estreinatuko duen Zazkel taldea. BETITXE SAITUA



DEBAGOIENeko LANBIDE HEZIKETAKO ESPERIENTZIAK

IKASKETAK:
Administrazio eta Finantzak goi-mailako heziketa zikloa. 2. maila.

GAUR EGUN:
Administrazio eta Finantzak goi-mailako zikloa ikasten eta Osarten enpresan lanean, administratzaile, egun erdiz.

Eskola bukatuta, unibertsitate ikasketak hasi zenituen.

Bai; unibertsitatean hasi nintzen Enpresen Administrazioa ikasten, baina ez nengoen gustura, eta beste zerbait probatzea erabaki nuen. Sartzen digute buruan unibertsitate joan behar dugula, baina badaude beste aukera batzuk.

Eta Lanbide Heziketa aukeratu zenuen?

Bai; hasieran, duda izan nuen erabaki ona izango ote zen. Beina orain, ez naiz hartutako erabakiaz damutzen.

Zein desberdintasun igarri dituzu unibertsitate ikasketen eta Lanbide Heziketaren artean?

Lanbide Heziketa praktikoagoa dela esango nuke. Erroketan oinarritutako metodologia

erabiltzen dugu, talde lana asko bultzatzen da. Enpresa mundura bideratuta eta lanera orientatuago dago.

Beraz, orain, ikasketak eta lana bateratzen dituzu?

Bai; goizetan lanera joaten naiz eta arratsaldeetan eskolak izaten ditugu (13:30-19:00). Ez da erraza, gogorra da, baina esperientzia ona da. Merezki du ahalegin hori egitea. Ondo antolatuta behar duzu. Orain, praktikak egin behar ditugu eta nik bertan egingo ditut; beraz, egun osoz bertan egongo naiz.

Eta etorkizunean zer?

Praktikak bukatu eta Osarten-en bertan lanean geratu banaiteke, ederto. Baina, bestela, ikasten jarraitzeko arazorik ez deukat, Lanbide Heziketan edo unibertsitatean.



GOIAZ! 2018

Lanbide Heziketaren Azoka
Apirilaren 17an eta 18an
Kulturaren, Arrasaten

goiazdebagoiena



Gipuzkoako Foru Aldundia
Enpresen, Enpleguaren, Lanbide Heziketaren eta Erretiroaren Departamentua



Bi herrietako dantzariak, 2016ko urrian, Aramaioko Lagun Artean dantza taldearen 60. urtemuga zela eta. GOIENA



Aramaioko dantzariak, aurtengo urtarrilean, Zuraiden. LAGUN ARTEAN

Ofizialki ez, baina senide

Poliki-poliki ari da egiten bere bidea Aramaioren eta Lapurdiko Zuraideren arteko harremana. Erakundeei dagokienez izaera ofizialik ez duen arren, lotura estutzea da asmoa, urtarril amaieran herri bietako dantzariak han egindako saioa modukoekin

Julen Iriondo ARAMAIO

Aramaiok badu gertuko herri bat Lapurdin. Uztaritze, Ainhoa, Senpere eta Ezpeletarekin mugan, Aramaioren antzerako herria da Zuraide biztanle kopuruz. Eta bila hasita, izango dituzte antzekotasun gehiago; esan gabe doa, hizkuntza bera ere badute, bakoitzak bere aldaeran, nahiz eta euskararen erabilera eta egoera desberdina izan batean eta bestean. Aramaio neurri handi-handi batean da euskaldun; Zuraide ere hala izatea nahi lukete batzuek, eta hori da, hain justu ere, bi herrien arteko loturak sendotu nahi izatearen abiapuntua.

Zuraide Indarrean taldeak euskaltzaletasuna du ezaugarrietako bat. Hango kide izandakoa da Susana Axpe, ia hiru hamarkada Lapurdin daramatzan aramaioarra; orain ere bertan dihardu, berriz, Elisabeth Anduezak –lagun minak dira, gainera–. Baliagarri dira euren azalpenak Aramaioren eta Zu-

raideren arteko harremanaren nondik norakoak ulertzeko: "Zuraide ez da herri euskalduna; euskalduna zen, baina euskara hizkuntza bezala ez da erabiltzen, eta pena handia dugu; gu gara euskaraz ari garen azkenetako batzuk, eta pentsatu genuen elkartzea euskaraz ari den herri batekin; Aramaiorekin pentsatu genuen, Susanari esker, eta hasi ginen harremanetan. Biziki aberatsa da", dio Anduezak.

Beste saiakera bat ere bai

Nafarroako Igantzirekin ere saiatu ziren lehenago, baina, lehen hartu-eman bat eduki arren, lotura ez zen gauzatu. Aramaiorekin gehiago: 2015eko apirilean herrian izan ziren lapurtarrak –Gure Esku Dagok antolatutako Joste Eguna zen, gainera, eta festan zuzenean parte hartu ere egin zuten, aramaiorekin batera kantuan, adibidez–; 2016ko urrian berriz ere etorri ziren Zuraidetik, kasu

Antzuola eta Aiherra

Debagoiengan, Antzuola dago Iparraldeko herri batekin senidetuta, Nafarroa Behereko Aiherrarekin. Kasu horretan, 1984an bi familiaren bitartez hasitako harremana ofizial bilakatu zuten udalek 2004an – Aiherran ere bertako Udalak ez zuen ordura arte interesik izan–: "Kulturari eta euskarari diogun atxikimendua kontuan harturik, bi herrien errealitate desberdinen artean loturak indartzeko eta, geroan elgarren arteko helburuak eta ekintzak programatzeko eta antolatzeke nahiarekin bideratzen da hitzarmen hau", dio testuak.

hartan, Alaiki taldeko dantzariak, Lagun Artean dantza taldearen 60. urteurrena zela-eta antolatutako ospakizunetan parte hartzera; iaz, uztailean, Aramaioko ordezkari bat, Udalekoa eta Txirritola elkartekoa, Zuraideko festetan izan zen gonbidatu; eta aurtengo urtarrilean, Lagun Artean dantza taldeko kideak izan dira han bertako dantza taldearekin batera emankizuna egin dutenak.

Zinegotzi bat

Zuraide Indarrean taldeak zinegotzi bat du, gaur egun, herriko udalbatzan; hamahirutik bat. Eta bakarra izan arren, bada taldearen nahia Udala euskalduntasunez *kutsatzea*. Askorik ez dute lortu, orain arte, ez behintzat, zehazki, Aramaiorekiko gaiari dagokionez: "Bai, nahi genuke harreman honi udalek izaera ofiziala ematea, baina gurea ez da horretarako prest egon orain arte; ez da euren lehentasuna".

Udalan pisu handiagoarekin edo txikiagoarekin, dena den, harremanean "sakontzea" da lapurtarren nahia; Udaleko ordezkarietatik harago suma daitezkeen baikor izateko zantzuek animatuta, gainera: "Irudi luke, hala ere, Zuraiden xede hori badela, euskaraz berriz ere hitz egitea eta hizkuntza errekupe-ratzea. Hori sentitzen da, baina indarririk egin gabe, erraz gal daiteke hori... Aramaiorekin harreman hau izatea bide bat liteke. Eta uste dut ongi abiatu dela... Hona heldu direlarik aramaioarrak, hemengoak bortsatuak dira euskaraz hitz egitera, eta gero beharra sentituko da, behar bada, gero eta gehiagotan. Bide bat da hau, behar-

**BATZUEK ZEIN
BESTEEK DIOTE
EUSKARA DELA
HARREMANERAKO
ARRAZOI NAGUSIA**



Elisabeth Andueza eta Susana Axpe, Zuraiden. GOIENA



Lapurtarrak eta aramaioarrak batera, Aramaion, 2015eko apirilko Joste Egunean. GOIENA

ko dira beste batzuk topatu, baina...".

Zuraidekoek nahi dute: "Uste dut guk badugula asko ikasteko haiengandik"; eta aramaioarrek ere bai: "Esaten dute eurek ere badutela zer ikasi gugandik"; Anduezak dio dantza kontuetan, adibidez, aramaioarrek esan dietela eredu litezkeela eurak.

Txirritola elkarte

Hortik harago, ikasteko moduko asko ikusten ditu Txirritolako Rosa Mondragonek lapurtarren gan –euskara elkarteak ere parte hartzen du harremanotan–, ekimenari dagokionez, adibidez, "euskal komunitate moduan nahikoa mugimendu" dutela eta: "Hara joan garen bakoitzean transmititu digute talde moduan ze indar duten; euskararekin lotuta zerbait dagoen bakoitzean kalera irteten dira, eta erraz biltzen dira 50-60 pertsona ekitaldi horretan, eta beti modu aktiboan, lana egiteko prest, eta indarrak batzeko; nik uste dut zentzu horretan badugula zer ikasi. Hemen dena dugu askoz errazago; bai udalek, bai euskara elkarteek aurrekontu zehatza dute, badute egitura bat, eta han ikusten dugu herria bera dela, euskaldun sentitzen direnak mugitu egiten direla, kalera irteten direla, eta hori oso aberasgarria iruditzen zait".

HIZKUNTZA ETA KULTURA BULTZATZEN LAN HANDIA EGITEN DU ZURAUDE INDARREAN TALDEAK



Txirritolako eta Aramaio Udaleko ordezkariak, iaz, uztailean, Zuraiden. TXIRRITOLA

Eta horrez gain: "Guretzat ere aberasgarria izan daiteke hango ohiturak ezagutzea, gureekin partekatzea, jaiak... Inguruko herriak ezagutzen ditugu, agian, Senpere eta Ezpeleta ondoan daude, adibidez, baina Zuraide ezagutzea deskubrimendu bat izan da, eta beti da aberasgarria". Gainera, joan diren bakoitzean "oso ondo" hartzen dituzte, eta "gozatua, plazer bat" izaten da hara joatea, Mondragonen esanetan.

Etorkizuneko hartu-emanei dagokienez, ezer ez dute zehaztuta, oraingoz, baina jarraitu jarraituko dute: "Dantza taldeak [Lagun Arteaneko kide ere bada Mondragon] badugu asmoa harremanetan jarraitzeko. Nik uste dut zailena erakunde mailan dela, hangoen interesa euskal komunitate bezala delako. Interesgarria litzateke udalen arteko kontaktua ere, aberasgarria delako"; baina... Era batera edo bestera, segi beza bi herrien arteko harremanak urte askoan.

Aramaio Udalak, bai

Zuraiderikiko harremanerako interesa badu Aramaio Udalak: "Beste Udala prest egongo balitzateke, gu gertu egongo ginatke harremana formalizatzeko, noski", dio Lierni Altunak. Baina hangoak nahi ez izatea ez da gaindiezineko traba; Zuraide Indarrean ere aintzat hartzen du alkateak: "Beraiek izugarriko lana egiten ari dira euskal kulturagatik eta euskaragatik; orduan, trukerako edozein gonbidapenatarako edo antolatzen duten edozertarako prest, nahiz eta elkarte bat izan". Urtarrilean ere izan zen alkatea Zuraiden.

Urteroko batzarra egin eta zuzendaritza berri du Txirritolak

Loli Lasagak, Ana Martiarenak eta Rosa Mondragonek utzi egin dute zuzendaritza, eta Jon Herrarte, Itziar Blazquez eta Maitane Gomez de Segura sartu dira –beste hiru kidek jarraitu egiten dute–. Aurtengorako ekimenetako bat izango da Euskaraldian parte hartzea eragile gisa, dinamikaren partaideetako bat izango da eta Aramaio.

Euskaraldiari buruzko bilera izango da eguaztenean

Euskaraldia azaroaren 23tik abenduaren 3ra bitartean egingo da Euskal Herri osoan. 11 egunez erabat euskaraz jardutea izango da erronka. Herri herri ari dira aztertzen gaia, parte hartzeko izena apirilaren 8rako eman behar da eta. Aramaion hilaren 28an izango da bilera, 18:30ean, udaletxean.

'Ibabeko Bertaren bilobak' taldekoen txanda aste honetan

Arabako Bertso Kuadrilla Artekoaren barruan, bigarren finalerdia jokatu da zapatuan, Amurrioko gaztetxean, 19:00etan. Aramaio Udaleko *Ibabeko Bertaren bilobak* eta Gasteizko *Bapateroak* ariko dira kantuan. Lehen finalerdian, *Aramaio Udaleko sobrak* taldeak galdu egin zuen Arabako Errioxako *Txandrio* rekin.

Aramailur elkartearen ekonomatua, eguenetan ere bai

Aramailur Kontsumo Elkarteak urtarrilean egindako batzarrean erabaki zuen ekonomatua asteen beste egun batez irekitzea. Ondorioz, ordutegi berria izango da martxotik aurrera: martitzen eta eguenetan, 17:30etik 20:00etara; eta zapatuetan, 11:00etatik 13:00etara. Bost urte bete dira proiektua sortu zela, eta 80 bazkide ditu egun.

NIRE USTEZ



JOKIN LARRAÑAGA

Pentsa dezagun

Pentsa dezagun momentu batez posible dela. Posible dela gustuko ez dugun guztia desegitea eta aldatu nahiko genukeen guztia aldatzeko adorea dugula. Posible dugula irribarre egitea. Posible dela, egunero inguratzen gaituen iskanbila ozen honetan, bihotzaren hitzak entzun eta ametsen atzetik bizitzea.

Imajina dezagun diruak ez duela gizakia kutsatu eta berdintasuna bere zentzu zabalenean egiazkoa dela. Imajina dezagun neskak mutilak direla eta mutilak neskak, beltzak zuriak direla eta zuriak beltzak, itsusiak ederrak direla eta ederrak itsusiak, gauak egun eta egunak gau direla.

Imajina dezagun lotsa guztiak galdu ditugula, eta, zergatik ez, suposa dezagun denbora eten dezakegula. Ez dugula lanera zein klasera joan beharrik, eta benetan nahi duguna egiteko guztiz askeak garela. Suposa dezagun ez dugula ordutegi eta betebeharririk, espresuki guk bete nahi dugunik baino. Kasu horretan, zer egingo zenuke?

Gu geu gara gure ametsak errealitate ez bihurtzearen arrazoia. Pentsa, imajina eta suposatu dezagun.

OHARRAK

LTD seinalea

Arzoak badira, litekeena da 4G teknologia jartzeko lanengatik izatea. Deitu, doan, LLEGA800 enpresara: 900 83 39 99. Hilaren 28tik, kobratu egingo dituzte egokitzapenak.

EHIZAREN EDUKIONTZIA

Induspe inguruko bidegurutzeko edukiontzia ondo erabiltzeko ekatzen du Udalak.

Oinezkoen herrirantz jotzeko lehen pausoak

Herri irisgarria izateko bidean jarraitu gura du Udalak, eta, horretarako, hainbat lan egingo ditu aurten: Deba ibai alboko pasealekua bukatu, Santa Kurtz kaleko bidegorria lekuz aldatu eta oztopo arkitektonikoak ezabatzen jarraitu

Mirari Altube ARETXABALETA

Udaleko alderdi guztien kezka eta nahia da oinezkoak eroso mugitzeko herria izatea Aretxabaleta, eta, otsailaren 8an onartutako udal aurrekontuan, diru partida garrantzitsuak onartu zituzten horretarako.

Ildo horretatik, Deba ibaiaren ezker aldeko pasealekuaren lanak lizitatzeaz daude; Urak Agentziaren baimena heldu ondoren egingo dute. Horren helburua da Lausittatik doan pasealeku hori Ibarra kiroldegiraino luzatzea. "30 metroko kontua da, baina ez da obra samurra; izan ere, aldapa malurtsua dago, eta menditik datorren ura bideratu beharra ere bai. Bide batez, goi-tentsioko kablea lurperatuko dugu", adierazi du Unai Elkoro alkatea. 225.000 eurotan zehaztutako lanak lehenbailehen hasi gura dituzte, udarako bukatuta izateko.

Santa Kurtz kaleko bidegorria

Santa Kurtz kaletik pasatzen den bidegorria bideratzeko asmoa ere badu Udalak, Kurtzbarri eskolako kantxatik ateratzeko, hain zuzen. Horretarako, 42.000 euro bideratu dituzte: "Lur azpiko saneamendu lanik ez dugu egingo, bidea lekuz aldatu bakarrik. Orain aparkalekuak dauden lekuan egingo da bidegorria; baina aparkalekuak ez dira kenduko lekua egon bada-goelako horiendako ere". EH Bilduk eskolaren eta Iturrigorri pilotalekuaren atzetik pasa zedin proposamena aurkeztu zuen orain dela hilabete batzuk: "Horren gaineko kontsulta egin dugu Aldundian eta ez da irtenbide aproposatzat ikusi".

Behin horiek eginda, ibaiaren ezker aldeko pasealekua eta eskumako bidegorria lotzea da asmoa. "Horretarako zein den puntu aproposena pentsatuko dugu eta herrian zirkular ezteko bat sortuko da".



Deba ibaiaren ezker aldeko pasealekua, kiroldegia ikusten dela. MIRARI ALTUBE



Txarapea ibilbideko zebra-bidea egokitzen. M.A.

Oztopoak kentzen kaleetatik

Kaleetako oztopoak kentzeko erabakia hartu zuen Udalak agintaldi hasieran, herri irisgarria izateko ahaleginean, eta lan horiek egiteko diru partidak zehaztu dituzte urtero aurrekontuan. Iaz egitea aurreikusitako lanak abenduan esleitu zituzten, 85.000 eurotan, eta oraintxe dabilza horretan. Hainbat zebra-bide egokitzea da asmoa; Txarapea ibilbidekoa eta Loramendi kalekoa, besteak beste. "Aurten, beste 200.000 euro aurreikusi ditugu lan horiei bukaera emateko. Hala, zebra-bide gehienak egokituko dira, batetik, eta, bestetik, Santa Kurtz kaletik kenduko ditugu oztopoak".

Elkoro alkatea pozik agertu da: "Horren aldeko apustu sendoa egin dugu, eta uste dut herri txukuna geratuko dela", adierazi du, eta gaineratu: "Beste herri askoren aldean, benetan itxurosoa".



Eskoriatzako Apotzaga auzoko kanposantua. IMANOL BELOKI

Apotzaga aldeko altxorren berri emango du Aitor Antxiak etzi

Ibarra kiroldegitik abiatuko dira, domekan, 10:30ean, eta gomendatu dute izena aurrez ematea, Arkupen

M.A. ARETXABALETA

Apotzaga (Eskoriatza) eta Apotzagaetxebarri (Aretxabaleta) auzoek dituzten altxorrek agerian utziko ditu domekan, otsailak 25, Aitor Antxia Leturia historian eta artxibo kontuetan adituak. 10:30erako egin dute hitzordua, Ibarra kiroldegian, handik abiatzeko –autoan zein oinez–. Aurrez izena ematea gomendatu dute, Arkupen.

Kanposantua, eliza eta ermitak

"Apotzagako kanposantua bisitatuko dugu. Sarreran dagoen Galartzatik eroandako bataio-

ponte erromanikoaren eta Marindik eramandako bidegurutzegotikoaren gainean jardungo dugu, besteak beste", jakinarazi du Antxiak. Elizara ere joko dute erretaula eta aldarea ikusteko, eta San Bernabera ere joango dira San Trokazi bisita egiteko.

Apotzagaetxebarri dagoen Salluente ermita izango dute hurrengo jomuga. "Han dauden hiru erretaulak eta harlauza dotorez egindako zorua ikusiko ditugu, besteak beste". Ohi duten legez, bisita gidatua bukatuko dute mokadutxo batekin.

Frontenis txapelketan izena emateko azken eguna, otsailaren 27a

UDAk bosgarrenez antolatu duen emakumeen frontenis txapelketa martxoaren 3an, 4an, 10ean eta 11n jokatu da, Iturrigorri pilotalekuan, eta izena emateko epea bukatzeaz da; otsailaren 27an, hain zuzen ere. Hona hemen horretarako bidea: emakumeen-frontenisaUDA@gmail.com. Bikoteak 10 euro ordainduko du lehen partiduan.

Emakumeen Nazioarteko Egunaren bueltan antolatu dute txapelketa, beste behin, "gozatzeko eta, aldi berean, aldarrikatzeko". Txapelketa herrikoia da eta aparteko giroa sortu izan da pilotalekuan. Hortaz, UDak emakume guztiak animatu gura ditu parte hartzera.

Ixadebalde azoka martxoaren 2an eta 3an egingo dute

Martxoan sartzearekin batera egingo dute Aretxarte merkatarien elkarteko kideek XVI. Ixadebalde merkealdien azoka, hilaren 2an eta 3an, hain zuzen. Oraingoan ere, mojena izandako komentua izango dute topaleku, eta hona hemen elkartuko diren merkataria: Asensio, Belar Meta, Haurrak, Kilima, Tak eta Titare. Egubakoitzean goiz eta arratsalde izango da zabalik azoka: 10:00-13:00 eta 16:30-20:30; eta zapatuan, goizez bakarrik: 10:00-14:30.

Udazken eta negu parteko generoa eskainiko dute; beherapen handiekin, beste behin. Gainera, 100 euroko bonuak zozketatuko dituzte bezeroen artean.

Loramendi liburutegia erabilgarri dago

Udaletxe zaharreko bigarren solairuan dagoen gela hainbat erabilpenetarako atondu dute Loramendi Elkarteko kideek. Herritarrek erabilgarri izango dute, baina, horretarako, elkartean giltzak eskatu eta ordua adierazi beharko dute

Imanol Beloki ARETXABAETA

Loramendi Elkartea azken asteetan udaletxe zaharreko gela bat txukuntzen aritu da, eta erabilpen ezberdinetarako gauzatu dute ekimena. Dagoeneko prest dago herritarrek erabiltzeko, eta *Loramendiko liburutegia* izenez bataiatu dute.

Eskaera egitea ezinbestekoa da

Udaletxe zaharreko bigarren solairuan dago gela, eta, txikia izan arren, irakurzaletasuna sustatzeko, taldeak biltzeko, lan egiteko, elkarriketak egiteko, eta abarretarako atondu dute lekua. Honela azaldu du Martin Berrizbeitiak, Loramendi elkarteko kideak: "Apalategi bat jarri dugu, liburuak eraman ditugu, arbela dago, eta baita Internet ere. El-kargune bezala, nahi duenak erabiltzeko. Bazkideen, Aretxabaletako herritarren eta taldeen esku egongo da, eta, erabiltzeko, Loramendin eskatu egin behar dira giltzak, zein ordutan erabili nahi den adierazita. Eskaera bat baino gehiago badago ordu berean, euskarazko jarduerak eta irabazi asmorik gabekoak lehenetsiko dira".

Erabiltzeko deia herritarrei

Udaletxe zaharreko beheko aretoa gela soziala dagoen moduan, herrira zabaldu nahi dute liburutegia erabilgarri dagoela. "Orain arte, gela sozialak -lehenengo solairuan dagoen aretoa- berdin funtzionatu du, eskatuz gero, irekia izanez. Hala, liburutegia ere modu berean erabiltzea nahiko genuke. Jendeak badaki non dagoen aretoa, eta, liburutegia erabilgarri dagoela

**UDALETXE
ZAHARREKO
BIGARREN SOLAIRUKO
GELA ATONDU DUTE
LORAMENDIKOEK**



Loramendi liburutegia. LORAMENDI ELKARTEA

jakinda, nahi duenak erabiltzea nahiko genuke".

Irakurle kluba, aurrera

Hainbatek eman dute izena apirilaren 17an izango den irakurketan parte hartzeko. Lehena

poesia izango da, Karmele Igartuarena; hurrengoa nobela izateko nahi dute; eta hirugarrena, ipuina. Hala, genero guztiak diren liburuak parte hartzen dutenen artean adostuko dira.

Irakurle kluba: 'Itsaso kontra bat'

Loramendi elkarteak izen-ematea ireki du irakurle klubean parte hartzeko. Gutxieneko talde bat osatu nahi dute, eta, horretarako, *Itsaso kontra bat* (Karmele Igartua) liburuarekin hasiko dute. Norbanako bakoitzak bere kabuz liburuak irakurri, eta apirilaren 17an solasaldia egingo dute. Hori gauzatzeko, dinamizatzaile lanetan Itziar Gomez Sarasola idazle eta gidoilaria izango da.

Ekainean eta irailean beste bi saio egingo dituzte, nobela eta ipuina izango direnak seguruenik, eta data zehatzak eta irakurtzeko liburuak partaideen artean adostuko dituzte, taldea osatzen dutenean. Irakurle klubean parte hartzeko, izena ematea beharrezkoa izango da. Liburuak nola lortu, izen-ematea... Loramendi Elkartean komentatuko dute nola egin behar den, besteak beste.



Josemaria del Palacio, liburuaren aurkezpenean. MIRARI ALTUBE

Gurasoek bizitakoa ez ahazteko, jasota utzi du Del Palaciok

Aretxabaletarrak 'Secuelas de nuestras guerras y derrotas' liburuaren aurkezpena. MIRARI ALTUBE

I.B ARETXABAETA

"Nondik gatozen jakitea garrantzitsua da gaur egungo gizartearen kokatzeko", zioen Josemaria del Palaciok (Aretxabaleta, 1948) *Secuelas de nuestras guerras y derrotas* liburuaren aurkezpenean, Arkupen. Eta hori ikeritzeko zortzi urtean egindako lanaren emaitza izan da hain zuzen liburu hori.

Zamoratik "erbesterratuak"

"Memoria historikoa berreskuratzeko gogoia gurasoengandik jaso nuen. Durana kaleko 24. atarteko ganbaran Radio Pirenaica entzuten genuen bitartean", adierazi zuen. Haren gurasoak Zamoratik etorri ziren Aretxabaletara, 1946ean, "erbesterratuak" izan zirenean. Eta 14 urte inguru zituenetik amak kontatu zizkion familiak bizitako pasarterik garrantzitsuenak eta latzenak: "Aitak frankisten armadan sar-

tu behar izan zuen derrigortuta, haren bizitza arriskuan zegoelako. Madrilera iritsi zirenean, ostera, errepublikanoen aldean sartu zen. Gero, kartzela zigorra etorri zen, bai harendako, baita amarendako ere. Baina ez zuen damurik, oso harro zegoen egin-dakoarekin. Aitak, ostera, trantsizio garaia iritsi arte ez zuen sekula horren gainean berbarik egin".

Hala, errepublika sasoiak demokraziarainoko kontakizuna jaso du liburu horretan; aurretik, 2009an, *Matando sueños, sembrando miedos* idatzi zuen Candido Ruiz Gonzalezekin batera. "Gurasoen kontuak ikertzen hasi nintzen haien historia jasota uzteko asmoarekin, baina, ikerketak aurrera egin ahala, jende askoren berri jaso nuen, eta hori guztia nire kontaketa aberasten joan zen; hortaz, guztien oroitapenezko liburu bihurtu da".

Umeentzako eta nagusientzako zinema Arkupen

3 anuncios en las afueras filma izango da ikusgai Arkupen, hainbat egunetan. Gaur, 22:00etan, bihar, 19:30ean eta 22:00etan, domekan, 19:30ean, lau eurotan; eta astelehenean, 16:00etan, bi eurotan. Umeentzat, berriz, zapatuan eta domekan, *Ferdinand* pelikula izango da, 17:00etan. Zapatuan bi eurotan eta domekan hiru eurotan.

Mobiliario
ARENZA

**ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA**

Bizkaia I - Tel: 943 79 08 07
ARETXABAETA

Kepa Akixok 'Itzalean ikusi' erakusketa ireki du

'Itzalean ikusi' erakusketa ireki berri du Kepa Akixok, Miarrizten bizi den aretxabaletarrak, Le Bellevue gunean. 35 urteko lana 300 piezatan ikusteko aukera dago apirilaren 2ra arte, 13:00etatik 19:00etara, martitzenetan izan ezik

Imanol Beloki ARETXABALETA

Azken 35 urteetan egindako lanaren erreposoa egin du Kepa Akixo *Zigor* artistak. Miarrizten bizi den aretxabaletarrak *Itzalean ikusi* izeneko erakusketa jarri berri du Le Bellevue gunean, Miarrizten, eta apirilaren 2ra arte egongo da ikusgai.

"Bolumenean erakusketa handia izan arren, era xumean egin dut. Eskulturaz, marrazkiz, argazkiz eta testuz osatutakoa. Guztira, 300 pieza izango dira bertan, gutxi gorabehera; 100 eskultura inguru egurrezkoak, harrizkoak, brontzezkoak eta altzairuzkoak, beste hainbeste marrazki-pintura, eta besteak olerkiak...", adierazi du Kepa Akixok.

Erakusketako pieza guztiez gain, Caroline de Otero eta Catherine Guillaud zinemagileek egindako *Zigor*, *euskal zizelkaria* dokumentalaren zati bat ikusteko aukera ere izango da bertan, eta, gainera, lan guztien katalogoa atera dute, erakusketan dauden lan guztiak batzen dituen, 204 orritan.

Eskulturaren prozesua

Itzalean ikusi erakusketa didaktikoa da, eta lan horren helburua izan da eskultura bat hasieratik amaituta dagoen arte, prozesu osoa azaltzea. Jendeari sorme-



Kepa Akixo *Zigor* artista, argazkia ateratzen. KEPA AKIXO

naren mundua nolakoa den ulertzen laguntzeko asmoz.

Inaugurazio arrakastatsua

Miarrizten bizi arren, jaioterriarekiko lotura handia du Akixok, eta ireki berri duen erakusketan hainbat aretxabaletar izan dira. "Inaugurazioan, 500 pertsona inguru batu ziren, eta hainbat aretxabaletar etorri ziren. Hala ere, bertara etorri, eta ikusi nahi dutenek oraindik badute denbora. Izan ere, erakusketa apirilaren 2ra arte egongo da zabalik, eta, agian, epea luzatu egingo dute".

'Karapaixoa', lan esanguratsua

"Erakusketa osotik nire lan gus-tukoena zein den ez nuke jakin-

go esaten. Niri, pieza txikitxoak gustatzen zaizkit. Hala ere, *Karapaixoa* izeneko piezak interesa piztu du. Originala Washingtonen dago, 3-4 tonakoa da, brontzezkoa. Hango medioetan agertu izan da, eta ez dakite zer den; ahalegintzen naiz zen den azaltzen. Erakusketan, berriz, egurrezkoa dago ikusgai, 150 kilo inguru izango dituen".

Erakusketa zabalik dago

Erakusketa apirilaren 2ra arte egongo da ikusgai, martitzenetan izan ezik, Miarrizteko Le Bellevue gunean. Egunero, 13:00etatik 19:00etara bitartean. Gainera, euskarazko bisita gidatua eskainiko du lanen egileak, martxoaren 4an, 15:00etan.



IMANOL BELOKI

Antzerki Astean murgilduta

Lehenengo eta bigarren mailakoek eguaztenean hasi zuten Kurtzebarri eskolan Antzerki Astea.

Datorren astelehenean, martitzenean eta eguaztenean ere izango dituzte antzerki saioak, 17:30ean hasita. Kasu horretan, hirugarren, laugarren eta seigarren mailako ikasleek.



ESTHER BARCENILLA

UDAko gimnastak, eskolartekora

UDA kirol elkarteko benjamin kategoriako gimnastek Bergaran jokatu dute txapelketa zapatu honetan, 17:00etan hasita. Eskolarteko lehenengo fasean lehiatuko dira, Labegaraletan, eta, guztira, hemeretzi gimnasta joango dira Aretxabaletatik. Apirilaren 21ean, berriz, Arrasaten jokatu dute eskolarteko bigarren fasea.

Musika eskolako bandak emanaldia eskainiko du

Otsaileko kultura eskaintzaren barruan, Aretxabaletako Leizarra musika eskolako bandak kontzertua eskainiko du gaur arratsaldean, Santa Rita komentuan. Emanaldia 18:30ean hasiko da, eta ordu bete inguru iraungo du. Hainbat pieza eskainiko dizkie kontzertura gerturatu direnei, eta sarrera doan da.

Miriam Mendozaren ipuin kontaketa Arkupeko liburutegian

Miriam Mendoza ipuin kontakariak *Sutondotik jasotako istorioak* izeneko kontaketa eskainiko die Aretxabaletako neska-mutikoei. Zapatuan izango da, 11:30ean, Arkupeko haur liburutegian. Kontakizun zaharrak eta istorio berriak eskainiko ditu, asko gainera, aiton-amonen etxeko sutondoan entzundakoak, hain zuzen ere.



Karapaixoa lana. KEPA AKIXO



Dantzak lana. KEPA AKIXO



Eskoriatza Lagunkoia taldekoak, hamabostean behin egiten duten lan-bileran, kultura etxean. IMANOL BELOKI

Denok batera herri bat eraikiz

Eskoriatza Lagunkoia egitasmoarekin buru-belarri ari dira lanean Eskoriatzako hogeit bat erretiratu inguru. Aztertu beharreko zortzi gaiak jorratuta, diagnosiaren fasea amaitu dute, eta orain, txantilo bat betetzeko eskaera egin diete herritarrei

Imanol Beloki ESKORIATZA

Eskoriatzako adineko pertsonen bultzatu eta Eskoriatzako Udalak babestutako ekimena da Eskoriatza Lagunkoia. Egitasmoaren helburua herritarren parte-hartzea sustatzea da; hala, iritzi ezberdinak batuz, herria hobetu nahi du taldeak.

Zortzi arlo aztertu dituzte Eskoriatza Lagunkoia taldea osatzen dutenek, eta, ekarpenak batu ondoren, herrira zabaldu nahi dute egitasmoa. Orain, diagnosi fasea amaituta, herritarren esperientziak jasoko dituzte lagunkoitasunari buruzko galdeketa bidez. Horretarako azken eguna martxoaren 15a izango da, eta hona hemen bideak: Eskoriatzako webgunean dagoen loturaren bidez edo erretiratuen bulegoan, martitzenetan eta eguenetan, bete beharreko orria jasoz.

"Osasunaren Mundu Erakundetik (OME) datorren proiektu bat da Eskoriatza Lagunkoia, eta, hortik abiatuta, herri ezberdinetan ari gara lantzen. Honen helburua da hiri edo herri lagunkoia egitea, eta proiektu honek bi funtzio ditu: zortzi arlo aztertuz herri hobea egitea eta, proiektuak diogen moduan, hitz egiten ikastea eta entzuten jakitea", adierazi du Jose Mari Kortazarrek, Eskoriatza Lagunkoia taldeko ordezkaria.

Bi hanka ditu proiektuak: batetik, Udalak protokolo bat bete behar du, ekimenarekin bat

ZORTZI ARLO AZTERTU OSTEAN, DIAGNOSI FASEA AMAITU DUTE ESKORIATZAKO TALDEKOEK

egiten duena. Bestetik, herria ordezkatzeko duten hogeit pertsona inguruko talde bat sortu dute, ideologia eta iritzi ezberdinekin, denak balizkoak izanik, eta errespetu osoz denak jasoz.

Aztertutako zortzi arloak

Ezaugarri horiek kontuan izanik, herria hobetzeko proiektu bat egiten ari dira zortzi arlotan banatuta: aire zabaleko espazioak eta eraikinak; garraioa; etxebizitza; parte-hartzea eta gizarte sarea; herritarren parte-hartzea eta enplegua; errespetua eta inklusioa; komunikazioa eta informazioa; eta gizarte eta osasun zerbitzuak.

Horiek aztertzeke, hamabost egunean behin batzen dira Eskoriatza Lagunkoia taldekoak, kultura etxean. "2016ko urtarriela ezker, hamabost egunean behin batzen gara, eta, arlo

"Ekarpenak, herri osoko optikarekin"

JOSE MARI KORTAZAR
TALDEKO ORDEZKARIA

Eskoriatza Lagunkoia taldeko ordezkaria da Jose Mari Kortazar, eta egiten ari diren lana arrakastatsua izaten ari dela adierazi du.

Zer egiten duzue Eskoriatza Lagunkoia taldeko bileretan?

Hamabost egunean behin batzen gara hogeit bat erretiratu, eta bakoitzak dituen ideiak, zalantzak, herrian egin beharreko lanen gainean, aztertzen ditugu. Ideia guztiak



I.B.

batzen ditugu, betiere, txandak errespetatuz, eta ideia guztiei kasu egiten diegu, inor baztertu gabe. Gero, batutako aktak Udalari pasatzen dizkiogu, zer ari garen egiten jakin dezaten.

Nolako ekarpenak dira?

Guk, erretiratuok, egiten ditugun ekarpenak herri osoko optikarekin egiten ditugu. Izan ere, erretiratu batentzat ona dena etorkizunean besteentzat ere ona izango dela uste dugu.

bakoitza aztertzean, aktetan batzen duguna Udalari ematen diogu, zer egiten ari garen jakin dezaten...".

Herritarri zabalduz

Diagnosi fasea amaitu herri, Matia Fundazioak lagunduta dokumentu bat egingo dute, 70-80 galdera batzen dituen. Baina, horrekin batera, zortzi puntuetan batutakoa herritarrekin kontrastatu nahi dute, osagarri gisa.

"Debagoieneko Agijupens erretiratu eta pentsiodunen elkarteak deitu zuen Aretxabaletako batzarrean, Antzuolako alkateak adierazi zuen moduan, erretiratuek esaten duten guztiari ezin go diogu baiezko erantzunik eman... Hasiara batean, uste zuten 'etorriko zaizkit jubilatuek baldosa hautsita dagoela'... halako gauzekin, baina beste herri batzuetan erantzun ona ematen ari da ekimen hau, eta uste dut Eskoriatzako alkatea ere pozik dagoela gure lantaldea egiten ari denarekin. Hala, uste dugu ideia interesgarriak atera direla gure bileretan. Gero, aztertu egingo dugu posible den hauek gauzatzea, zer egin daitekeen, edo zer ez...".

LAGUNKOITASUNARI BURUZKO GALDEKETA EGITEKO AZKEN EGUNA MARTXOAREN 15A IZANGO DA

Udalarekin partekatuz

Proiektua guztiz osatu barik dagoen arren, Udalarekin bi hitzordu izan dituzte, ideiak partekatzeko. "Proiektua guztiz amaitzen dugunean, hobeto aztertuko dugu guztia. Bi modu daude egiten ari garena gauzatzeko: Udaleko norbait bileretan presente egonda, edo, guk aurreratu duguna, udal ordezkari barik; uste dugu forma libreagoa dela, baina akta guztiak beraie bidaltzen dizkiegu".

Hurrengo fasean murgilduta

Orain, lagunkoitasunari buruzko galdeketa jarri herri dute martxan, eta 18 urtetik gorako edozein eskoriatzarrek bete dezake, nahi izanez gero. "Oraingoz, Eskoriatzako ikastetxe guztietara bidali dugu galdeketa orria. Hala, herriko gurasoengana heltzeko. Formatu elektronikoa eta paperean betetzeko aukera dago, eta, horrez gain, udal webgunean ere badago lotura, eta Udaletik ere elkarte ezberdinei bidali dizkiegu, instituzio bezala erantzun dezaten".

"Herritarrei, galdeketa betetzeko eskatu nahi diegu, proiektua hobeto gauzatzen laguntzeko. Fase hau amaitzean, eta proiektua entregatzean, taldeak erabaki beharko du lanean jarraitu edo ez; proiektuak milaka daude, eta gustura ari gara. Hori bai, orain bezala, errespetuz eta bakoitzaren ideia eta txandak errespetatuz".

Kirola egiteko espazio handiagoa kiroldegian

Lanak dezente atzeratu diren arren, Manuel Muñozeko lanak amaitu dituzte. Harmailen atzean, bikoiztu egin dute kirola eremua, eta beiratea ere jarri dute kantxako zarata ez sartzeko. Bestalde, taberna ere kantxa aldera begira jarri dute

Imanol Beloki ESKORIATZA

Manuel Muñoz kiroldegia eraberritzeko lanak 2017ko azaroan hasi zituzten, eta dagoeneko erabilgarri dago, nahiz eta hainbat xehetasun falta diren. Obra-aren lizitazioa 102.000 eurokoa izan zen eta adjudikazioa, aldiz, 78.000 ingurukoa.

Bertan, harmailen atzeko gunea handitu egin dute; hala, gimnasioaren azalera bikoiztu egin da. Bizikleta estatikoak, korrika egiteko aparailuak eta eliptikoa egitekoak jarri dituzte bertan. Horrez gain, beiratea jarri dute, kantxatik datorren zaratatik babestuta egoteko eta kirola lasai egiteko.



Harmailen atzean kirola egiteko jarri berri duten gela. IMANOL BELOKI

Lanak atzeratu egin dira


Egin beharreko lanen atzerapenaren ondorioz, aurreikusitako prezioa baino gutxiago ordainduko dio Udalak lanak gauzatu dituen enpresari. Hala, aurreztutako dirua beste lan batzuk egiteko erabiliko dute. Honela adierazi du Hirigintza eta Mugikortasun batzordeburu Josu Ezkurdiak: "Leioa jartzean arazoak izan dira, eta horregatik irauan dute hainbeste lanek, nahiz eta urtarriletik erabilgarri egon den gunea. Hala ere gauza txiki batzuk geratzen dira, beiratean biniloak jartzea esaterako".

Aurreztutako diruaz lan gehiago

"Aurreko aldiaren egin genuen moduan, kiroldegiko erabiltzaileei inkesta bat pasako diegu otsail edo martxo aldera, kiroldegiko beharrak zeintzuk diren jakiteko, eta apirilean hartuko dugu erabakiren bat. Batetik, spinning gela biltegi batean egokitzea izan daiteke aukera bat, orain mini-frontoian egiten delako, eta, bertan aire giroturik ez dagoenez, kexak izan dira. Bestalde, harmailen atzeko gunerako makinak erostea ere aukera bat izan daiteke...".

LANEN ATZERAPENEN ONDORIOZ, GUTXIAGO ORDAINDUKO DU UDALAK, ETA DIRUA AURREZTUKO DU

Muskulazio aparailuak behean
"Gimnasio gelako aparailuak espazio berrira eramatekoak ziren hasiera batean, baina etorkizunean aparailu berriak jarri nahi direnez, beheko gelan mantenduko dituzte oraingoz.



Taberna, kantxa aldera

Egokitzen lan horiekin, kiroldegiko barra kantxa aldera jartzea erabaki dute. Hain zuzen ere, bertan lanean daudenen jokoan zer gertatzen den ikus dezaten, eta baita zerbait hartzea doazenez ere bertatik partidua ikusteko.



GARBINE URIBE

Elur artean eskiatzen, bikain

Pasa den asteburuan, Eskoriatza Kirol Elkarteak eta Namaste belar dendak antolatuta, Panticosara eski-irteera egin zuten hainbat herritarrek. Irteerara 36 lagun joan ziren, eskiatzen esperientzia dutenak eta ez dutenak, eta, antolatzaileen esanetan, "irteera arrakastatsua izan da". Datorren hilabetean beste irteera bat antolatzeko asmoa azaldu dute.

Testa anaiak Super Enduro txapelketara gonbidatuak izan dira

Aratz eta Enaitz Testa Eskoriatzako motorzaleak Bilboko BE-Cen Bizkaia Arenan izango den Super Enduro World Champions txapelketarako gonbidatuak izan dira. Motor lasterketak, show-a, ikuskizuna, eta erakustaldia izango da bertan. Martxoaren 3an izango da hori, eta Eskoriatzako gaztetxoak bertan izango dira.



Testa anaiak motorrekin. I.B

Bergarako eskolartekoan izango dira eskoriatzarrak

Benjamin kategoriako gimnasia erritmikoko Eskoriatzako kirolariak zapatu honetan Bergarako eskolartekoan hartuko dute parte, Labegaraietan, 17:00etatik aurrera. Gimnasta hauek joango dira eskolartekoan parte hartzera: Sara Otegi, Nora Be-rezibar, Ainara Arrate, Beatriz Da Silva, Maren Urrutia, Itziar Bengoa eta Jone Etxaniz.



Eskoriatzako gimnastak. ESTHER BARCENILLA

"Gure dinamikan, 'talde' hitza ondo islatzen da"

MIKEL ALKAIDE ARETO FUTBOLEKO OHOREZKO GAZTEEN ENTRENATZAILEA
Eskoriatzako taldea denboraldi aparta egiten ari da, hirugarrenak dira sailkapenean, eta 200 inguru zale batzen dira harmailetan haiek jokatzen dutenean

Imanol Beloki ESKORIATZA

Mikel Alkaide Eskoriatzako areto futboleko ohorezko gazteen entrenatzailea da, eta denboraldi honetan egiten ari den lan onaren errepasoa egin du.

Denboraldi bikaina aurtengoa, ezta?

Kategoria berria da guretzat, eta gustura ari gara. Egiten ari garen lanaren emaitza oso ona izaten ari da; izan ere, hirugarren postuan gaude, 29 punturekin. Aurretik, bigarrenen. Xota dago, 33rekin, eta liderra, berriz, Castro Urdiales da, 36 puntu dituen.

Harmailak inoiz baino beteago daude; zer dela eta?

Omar Martin bideoak grabatzen aritzen da, eta sare sozialetan egiten duen lana oso ona da. Astebururo, 250tik gora ikusle izaten ditugu kiroldegian, eta gu ere harrituta geratu gara. Gure taldeaz gain, areto futbolarientzat, orokorrean, aberasgarria da.

Zein zen denboraldi hasieran markatutako helburua?

Hasierako helburua lan ona egitea zen, gauza berriak lantzea, eta lehen taldera saltoa egiteko prestatzea. Gazteen mailan hiru urte dira, 16 eta 19 urte bitarteko gazteak dira, eta, denboraldia nola joan den ikusi ostean, liderrarengandik ahalik eta ger-



Mikel Alkaide. OMAR MARTIN

tuen geratzea da orain dugun asmoa. Horrez gain, gehiago ikastea, hobetzen joatea....

Epe laburrera, berriz, zein da zuen erronka?

Apirilaren 21ean Xota taldearen aurka jokatuko dugu, etxean, eta harmailak 500 pertsonaz bete nahi ditugu. Andoni Moto delegatuaren eta Omar Martinen gauzak dira [Barre]. Xota lehen mailako filiala da, eta, Osasuna taldearekin akordioa sinatu berri, partidu erakargarria izango delakoan gaude. Bestalde, irra-ti edo irratsaio txiki bat egiteko

proiektua ere badugu buruan, sare sozialetan taldea gehiago ezagutarazteko.

Orain arteko arrakastaren trukoa zein da: entrenatzaile onak izatea ala jokalarien jarrera?

Denon lana da. *Talde* hitzaren esanahia oso ondo islatzen da gure dinamikan. Bakoitzak badaki zein rol daukan taldearen barruan, eta bakoitzak bere lana egiten du, bai guk, eta baita jokalariek ere. Beti daude prest jokalariek entrenamendu bat gehiago egiteko... edo dena delakoa egiteko. Sekreturik ez, eguneroko lana, eta denok batera aurrera bidean joatea.

Hainbat jokalaria, gainera, Euskal Selektioarekin, ezta?

Jokin eta Ander aurre-dealdian egon ziren Euskal Selektioarekin. Eta gero, Espainiakora Jokin Rayo joan zen. Esperientzia aberasgarria, eta meritu guztia eurena izan zen.

Pasa den astean liderraren aurka, galdu. Hurrengoa?

Pena izan zen; irabaziz gero, eurengandik lau puntura jarriko ginen, baina ezin izan genuen irabazi. Asteburu honetan atsendaldia izango dugu, eta sagardotegira joango gara. Eguneroko lana ondo dago, baina kantxatik kanpo ondo pasatzea ere ezinbestekoa da.

Rock-metala, Inkernu tabernan, Jasan musika taldearen eskutik

Atxorrotx Kultura Elkarteak antolatuta, martxoaren 9an izango da kontzertua, Inkernun, 22:30ean hasita

I.B ESKORIATZA

Eskoriatzako Atxorrotx Kultura Elkarteak ibilbide berriari ekin dio Inkernu tabernan. Urteetan zehar emanaldi asko izan badi-ra ere, orain, hilero kontzertuak antolatu nahi dituztela adierazi

dute. Hurrengoa martxoaren 9an izango da, eta Eskoriatzan sorturiko Jasan taldekoak igoko dira oholtzara rock-metal doinuak eskaintzera. Emanaldia 22:30ean izango da. Ixak Sarasuak, Gari-koitx Barandiaranek, Asier

Mongelosek eta Jokin Uribetxe-barriak osatzen dute taldea. Lehenengo kontzertua 2015ean eman zuten, Oñatiko gaztelekuan; ordutik hona, beste hainbat kontzertu eman dituzte.

Unidad Alavesa taldea, bikain

Pasa den egubakoitzean disko berria aurkeztu zuen Unidad Alavesa taldeak Inkernun. Bailaratik jende asko joan zen eta bai antolatzaileak eta baita taldekideak ere gustura geratu ziren emanaldiarekin.

LEINTZ GATZAGA | 21

485.333 euroko aurrekontua onartu du Gatzagako udalbatzak

Inbertsioetarako, 49.000 euro bideratuko dituzte; batez ere, gatz fabrika martxan jartzeko erabiliko dute

Imanol Beloki LEINTZ GATZAGA

Eguenean, Leintz Gatzagako ohiko osoko bilkura egin zuten udalbatzako kideek, eta tratatu zituzten gai guztietatik aipagarriena 2018ra begirako aurrekontuak onartzea izan zen. Hala, 485.333 euro izango ditu aurten Udalak herria kudeatzeko, %7,74ko jaitsierarekin. "Iaz baino aurrekontu baxuagoa dugu; hala ere, bagoaz pixkanaka aurrera. Iaz inbertsio handia izan genuen, parkingaren bukaera zela eta... aurten ere baditugu inbertsio nagusi batzuk finkatuta", adierazi du Eneka Zankadak, Leintz Gatzagako alkateak.

Inbertsio nagusiak

Inbertsioetarako, 49.000 euro bideratuko dituzte, eta Eneka Zankada alkateak adierazi du, orokorrean, gatz fabrikarako erabiliko dutela dirua: "Gatz

fabrika martxan jartzea da gure asmoa. Gurpilaren eguneroko lanak egiteko diru bat jarriko dugu; izan ere, egurrezkoa da, eta konponketa batzuk behar ditu. Gatz fabrikarako lehenengo fasea egiteko obra zibila ere onartu dugu, balioaniztun gela egiteko. Ramel enpresa arduratu-tuko da lan hauek egiteaz. Proiektu honen bigarren fasean, aldiz, orain dugun denda eta turismo bulegoa Santa Columba ermitara bideratuko dugu. Lan hauek aurrera joateko diru laguntzak eskatuko ditugu...".

Inbertsio nagusiak horiek izango dira, eta, inbertsio txikiagoetan zentratuz, herria eguneratzeko hainbat lan ere egingo dituzte. Esaterako: herriko iturriko konponketa egitea eta autobus geltokia egokitzea espaloian lanak eginda, besteak beste.

Angula zozketarako txartelak salgai daude oraindik

Zapatuan bertso afaria izango da Soran Etxean, 21:00etan, eta afaria girotzen Jon Maia eta Unai Agirre bertsolariak izango dira. Oraingoan, 50 pertsonak eman dute izena, eta beste hamarrentzako lekua ere badago. Horrez gain, urtero, herriko Korrika Batzordeak antolatutako angula kiloaren zozketa egingo dute Korrikaren alde dirua

batzeko. Afal aurretik izango da hori, Labidea dendan, eta txartelak azken momentura arte erosteko aukera egongo da. Honela adierazi du Ixidor Salaberri: "550 txartel inguru saldu dira, oraingoan, eta gaur eta bihar erosteko aukera ere izango da. 700 txartel saltzera ere iritsiko garela uste dut nik; izan ere, angulak oso preziatuak dira... Deban batutako angula kiloak zozketatzen da, eta bizirik ekarriko dituzte, gainera. Beraz, animatu txartelak erostera".

Iraitz Agirrek hitzaldia eskainiko du gaur, kultura etxean

Elgeta, Leintz Gatzaga eta Antzuolako udalek osatutako Bideberri mankomunitateak antolatuta, Iraitz Agirre Aranguren, emakume eta genero gaietan aditua, Leintz Gatzagan izango da gaur, 19:00etan, XVI. mendeko emakumeak Gatzagan hitzaldia eskaintzen.

Historiaren ikuspegi ezberdina eskainiko du kultura etxean

izango den hitzaldian. Historian zehar emakumeek izandako garrantziaz eta bizitzaren arlo ezberdinetan emakumeek izandako rola hitz egingo du, besteak beste, galdera hauek ardatz hartuta: *Nortzuk ziren gazkinak? Ba al zegoen emakume idazlerik inguru hauetan? Zeri buruz idazten zuten? Zein paper jokatu zuen emakumeak negozioen munduan?...*

Horiek eta beste kontu asko era entretenigarri eta gertukoan azalduko ditu Iraitz Agirrek.

Sortzeko bidean da herriko emakume taldea

Hamabost bat emakume elkartzen dira, eguenetan, Martxoaren 8ko ekintzak prestatzeko. Taldea osatu eta urte osoko lan dinamika martxan jartzea dute helburu. Jakinarazi dute Elgetako emakume guztiei zabalik dagoen ekimena dela

Larraitz Zeberio ELGETA

Gertu dituzte Elgetan Emakumeen Nazioarteko Egunarekin lotutako ekintzak. Berritasuna, aurtan, lantaldere gerturatu den emakume kopurua da, eta, horrekin batera, herriko emakume taldea sortzeko dagoen helburua.

Martxoaren 8rako, elkarretaratze bat, ondorengo ekitaldia eta herriko emakumeen zaletasunak eta afizioak jasoko dituen erakusketa bat iragarri dituzte. Erakusketa hori elkarretaratzea egin ostean zabalduko dute eta domekara arte egongo da ikusgai buztin gelan. Martxoaren 5erako, bestalde, Julia Monge feminista arrasatearrak hitzaldia egingo du, 19:00etan.

Martxoaren 8rako, bestalde, lanuzteak egitera deituta daude emakumeak, eta deialdi horren inguruko informazio zehatza eskuratzeko konpromisoa hartu dute Elgetako lantaldean. Informazio hori hurrengo batzarretan emango dute. Taldea eguenetan

elkartzen da, 19:00etan, udaletxeko areto nagusian.

Elkarretaratzera amantalekin

Martxoaren 8ko elkarretaratzea 19:00etan izango da, udaletxe aurrean. Kontzentrazio hori amantalak soinean egiteko deialdia egin du lantaldeak. Gizonezkoak zein emakumezkoak daude ikur hori erabiltzera deituak. Emakumezkoen amantalek bereizgarri bat izango dute. "Emakumeak sukaldari, administratzaile, ekonomista, psikologo... dira etxean, eta lan hori guztia azpimarratzeko hitz gako batzuk ipiniko dizkiegu emakumezkoen amantalei", azaldu dute. Elkarretaratzearen ostean komuni-

ELKARRETARATZEAREN ONDOREN EGINGO DUTE EMAKUME TALDEAREN AURKEZPENA

katu bat irakurriko dute eta Elgetako emakume taldearen aurkezpena egingo dute. Gitarra doinuak, antzezlan txiki bat eta ekitaldirako propio sortutako bertsoak iragarri dituzte, guztiak Elgetako emakumeen eskutik.

Emakumeen zaletasunak

Lau txoko izango ditu emakumeen zaletasunak erakutsiko dituen erakusketak. Kirola, idazlanak, janaria eta eskulanak dira txoko horiek. Oraingoz, Elgetako hamasei bat emakumeren presentzia izango da bertan. "Taldean hainbat izen irten dira eta horiengana jo dugu, baina egon daitezke gehiago parte hartzeko gertu daudenak. Argazkiak, materiala... da eskatzen duguna", esan dute lantaldeko kideek. Materiala buztin gelara eraman behar da otsailaren 28an 11:00etatik 13:00etara edo martxoaren 1ean 19:00etatik 20:00etara. Martxoaren 2an hasiko dira erakusketa muntatzen.

"Ahoz aho joan da taldea handitzen, kate moduko bat izan da"

MIRARI LARRAÑAGA GIZARTE-ONGIZATE ZINEGOTZIA

Emakume taldea martxan jartzeko borondate eta indarra ikusten ditu Larrañagak.

Zenbat emakume zaudete lantaldean?

Hamabost bat elkartzen gara. Gaur-gaurkoz, Martxoaren 8ko ekintzak prestatzen ari gara, baina egia da emakume taldea osatzea eta dinamika bat martxan jartzea dela asmoa.

Zure ustez, nondik nora erantzun hori aurtan?

Udalak urtero egiten du Martxoaren 8ko egitaraua prestatzeko dei publikoa. Taldetxo bat hasita zegoen



ELGETAKO EH BILDU

zerbait pentsatzen. Aurtan, horri gehitu zaio herriko ama gazte batek egindako planteamendua. Kezkatuta dago gizartearen inguruko duen egoerarekin eta umeei eman beharreko

heziketarekin. Gaia aipatzen hasi zen kezka bera izan zezaketen emakumeekin. Ahoz aho joan da taldea handitzen, kate moduko bat izan da.

Eta hemendik emakume talde bat irtengo da.

Esperantzarekin gaude. Herri askotan ari dira emakume taldeak osatzen, egoerak bultzatuta, seguruenik. Nire ustez, garrantzitsuena da adin askotariko emakumeak ari direla gerturatzen. Ni naiz nagusiena. Akaso, indartu egin beharko genuke 30 urte inguruko belaunaldia.

Zer duzue buruan Martxoaren 8tik aurrera?

Lan dinamika bat martxan jartzea eta ekintzak antolatzea urte osoan. Ikusiko dugu zein maiztasunekin.

Udalari emango dizkio Gazte Asanbladak gaztetxeko giltzak

Aurretik, amaiera jaia iragarri dute martxoaren 17rako eta garbiketa lanak auzolanean apirilaren 14rako

L.Z. ELGETA

Hartuta zegoen Gazte Asanblada desegiteko eta gaztetxea ixteko erabakia, baina amaiera prozesua zelan egin zegoen erabakitzeko. Hamabost bat lagun elkartu ziren aurreko barikuko batzar irekian. "Belaunaldi desberdinetako jendea etorri zen, eta pozik gaude, alde horretatik", esan dute deitzaileek.

Amaiera festa prestatzen

Jai batekin emango diote amaiera Elgetako gaztetxearen ia 22 urteko ibilbideari. "Martxoaren

17an egitea adostu dugu. Garai horretan da, gainera, Elgetako gaztetxearen urteurrena. Trikipoteoa eta bazkaria aurreikusten ditugu. Arratsalderako ere antolatu gura dugu zerbait. Ikusiko dugu zer ateratzen den".

Garbiketa lanak egingo dituzte gero. "Urte hauetan guztietan material dezente pilatu da gaztetxean, eta, giltzak Udalari eman aurretik, lokala txukuntzeko erabakia hartu dugu. Auzolanerako dei egingo dugu. Argindar kontratuak eta antzerako guztiak likidatuta utzi nahi ditugu".



AITOR AGIRIANO

'Eskutitza' abestera Kantarira

Asteburuan grabatuko du Goienak Kantari karaoke ikuskizunerako saioa Bergarako Seminarixoa aretoan, eta 58 taldeetako bat Elgetakoa da. Dia Cot, Maia Erostarbe, Ehari Barquero, Uxue Martin eta Janire Lopez dira taldekideak. Prest dute At! taldearen *Eskutitza* kantua.

Andoingo piano jaialdian izango dira zazpi elgetar

Noa Migurak eta Amets Olosolok bihar joko dute Andoingo jaialdian. Domekan, berriz, Aner Garciaangok, Ehari Barquerok, Maia Erostarbek, Lorea Gallastegik eta Kattalin Otxoak. Lorea Larrañagaren eta Maitena Mañarikuaren ikasleak dira. Garciaangok eta Migurak izan ezik, gainerakoek ezagutzen dute aurretik Andoingo jaialdia.

OHARRAK

'Gu ere kontalari'


Gaur, 17:00etan, neska-mutikoak kontalari Udal Liburutegian. Kontalariak izango dira Ehari, Maia, Uxue, Janire eta Beñat.

Herrixa Dantzan

Domekan, 19:00etan, Patxi Monterok gidatutako dantza saioa Espaloia kafe antzokian. Sarrera doan da. Laguntzailea: Elgetako Udala.

GOIENA TELEBISTA

UDABERRIKO PROGRAMAZIO BERRIA



Eskalada jorratuko du *Barru* kirol erreportajeak, lehenengo atalean.



Aitor Montes medikua, *Hurretik* saioko lehen protagonista.

Goiena telebistak udaberrirako prestatu dituen saio berrien artean, gertuko istorioak izango dira nagusi. Mimo handiz egindako eta ikus-entzunezko estetikari dagokionez zaindutako erreportajeak izango dira. Horrela, debagoiendarrei emango zaie ahotsa, eta euren bizipenekin eta euren ingurukoekin kontaktuz euren jarduna ezagutzeko aukera izango dute ikus-entzuleek.

Erreportaje landuak

Dokumental itxurako gertuko erreportajeak bueltan etorriko dira udaberrian. Besteak beste, bikien gaineko *Biki bizi* ikus-entzunezkoa estreinatuko da martxoaren 8an. Nola sortzen dira bikiak? Genetikoki berdinak izateak badu eraginik euren izaeran? Zer-nolako lotura dute euren artean? Galdera askori eta uste oker batzuei erantzuten saiatuko da erreportajea.

Horrez gain, Loramendirekin elkarlanean, Urkuluko urtegia egin aurretik auzo horretan zeuden baserrien eta jendearen istorioak batuko ditu *Hura zen Goroeta* erreportajeak. Gainera, *Drogak nerabezaroan*, Leintz

Gertutasuna eta berritasun ugari

Gertuko historia eta istorioak, gertuko protagonistekin. Hori izango da Goienak programazio berriari begira egindako apustua. Erreportaje berezietz gain, 'Hurretik' eta '#HRMT'-ren lekukoa hartuko duen 'Barru' kirol erreportajeak estreinatuko dira

bailarako nerabeen artean drogaren kontsumo ohiturez kezkatuta, San Juan de Dios ospitalea eta UDA kirol elkartearen egiten ari diren lanketaren inguruko erreportajea ere eskainiko du Goienak.

'Hurretik'

Debagoieneko aurpegi ezagun batzuen jarduna gertutik ezagutzeko aukera eskainiko du *Hurretik* saiok. Julen Iriondo kazetariarekin, bertako protagonistak ezagutzeko aukera izango du ikus-entzuleak. 30



Bikien inguruko erreportaje berezian, Mikel eta Aitor Orobengoa arrasatearrak.

minutu inguru iraungo dute saioek, eta, besteak beste, Kepa Errasti Aretxabaletako aktorea, Aitor Montes Aramaioko medikua eta Itziar Arkauz Oñatiko *Lotx* pailazoa azalduko dira.

Hurretik saioaren lehenengo atala, Kepa Errasti aktorearen gainekoa, martxoaren 7an, eguaztena, estreinatuko da Goienan.

Kirolak barrutik

Iazko #HRMT saioaren lekukoa hartuko du *Barru* kirol erreportajeak. Xabier Urzelai kazetaria berriro murgilduko da bailarako kirolarien egunerokoan.

Lehenengo atalean, bailarako eskalatzaileak gertutik jarraituko ditu Xabier Urzelaik. Besteak beste, Miriam Mulas eta Mikel Linazisoro gazteek Araotzeko paretetan eta Ibarako boulderrean egiten dituzten entrenamenduak jarraitzeko aukera egongo da.

IKUSPEGI TEKNIKO LANDUAGOA ESKAINIKO DUTE ERREPORTAJE BEREZIEK

Udaberrian izango da zer aukeratu Goiena telebistan

Udaberriko programazioari begira, 'Hurretik' eta 'Elikatu' saio berriez gain, eguneroko 'Hemen Debagoiena' eta 'Albisteak' saioak ere izango ditu Goienak, erreportaje eta saio bereziekin batera



KANTARI

Debagoieneko herrietako neska-mutikoak protagonista dituen musika eta dantza saioa. Gaztetxoak kantuan eta dantzan aritzen diren ikuskizunak seigarren aldia du.

- Zapatua eta domeka
- 09:30 eta 16:30
- Aurkezleak: Amaia Txintxurreta eta Aitor Agiriano



KULTURRIKETAK

Arte eta kultura adierazpen askotariko sorkuntzaileen arteko solasaldiak eskainiko ditu, beste behin, saioak. Solasaldi formula erabilia, bi kultur gile, aurrez aurre, kulturaz berbetan, modu librean. 2017an Rikardo Arregi kazetaritza sari nagusia eskuratu zuen saioak.

- Eguena
- 21:00 eta 23:00



HEMEN DEBAGOIENA

Debagoieneko gertaerak, tokiak, jarduerak, berriak eta pertsonak protagonista dituen saioa. Kanpoko erreportajeak, platóko elkarrizketak eta solasaldiak batzen ditu, besteak beste, *Hemen Debagoiena* saioak.

- Egutero
- 18:00/20:00/22:00
- Aurkezlea: Txomin Madina



ALBISTEAK

Eguneko albistegia. Unean uneko albisteak, egunekoak eta gertukoak. Lekuko eta protagonisten testigantzekin. Asteleheneetik egubakoitzera bitartean. Aste bukaeretan, gainera, asteko albisteen errebasoa.

- Egutero
- 14:30/16:15/17:00/17:45



HURRETIK

Bertako pertsonak, bertako lekua eta bertako gaiak dira saioetarako aitzakia eta haien ardatz. Hurretik bertako protagonisten eta euren jarduna ezagutzeko aukera ematen diguten erreportajeak.

- Eguaztena
- 21:00 eta 23:00
- Aurkezlea: Julen Iriondo

**HARMAILATIK**

Debagoieneko kirola eta kirolariak protagonista dituen saioa. Aste bukaerako kirol kronikak, elkarrizketak, erreportajeak, eta abar, protagonisten ahotan. Eskualdeko kirola, sakon aztertuta.

- Astelehena
- 21:30 eta 23:30
- Aurkezlea: Xabier Urzelai

**BARRU**

Kirol erreportaje saioa. Debagoieneko kirolariak gertuagotik ezagutzeko aukera eskaintzen du Xabier Urzelai kazetariak, euren egunerokoan, entrenamenduetan eta txapelketetan barneratuta, besteak beste.

- Eguena
- 21:30 eta 23:30

**HARIRA**

Herri ordezkariekin, alkateekin, elkarte eta alderdi politikoetako ordezkariekin, solasaldiak. Gori-gori dauden kontuak, herritarrei zuzenean eragiten dietenak, elkarrizketa, eztabaida edo mahai-inguru formatuan.

- Martitzena
- 21:00 eta 23:30
- Aurkezlea: Eneko Azkarate

**OSOKO BILKURAK**

Arrasateko, Bergarako eta Oñatiko udalbatzen ohiko osoko bilkurak, oso-osorik. Hilean behin izan ohi dira herrietako ohiko osoko bilkurak, eta Debagoieneko hiru herri nagusietakoak osorik grabatu eta emititzen dira Goienan.

- Zapatua eta domeka
- 19:00 eta 22:00

**GALDEGAZTE**

Elkarrizketa saioa. Eskualdeko ikastetxeetako ikasleek eurek aukeratutako pertsonaia ezagunei elkarrizketa egiten diete, Jokin Bereziartua kazetariak lagunduta.

- Eguaztena eta egubakoitza
- 21:30 eta 23:00
- Aurkezlea: Jokin Bereziartua

**AMAIA DJ**

Musika saioa. Ikus-entzule gazteekin komunitatea osatuz, gazteek eurek eskatutako bideoklipak aurkezten ditu saioak. Zuk ere har dezakezu parte, sare sozialen bidez, gustukoaren duzun musika edo bideoklipa eskatuz.

- Egubakoitza
- 21:30 eta 23:30
- Aurkezlea: Amaia Txintxurreta

**ERREPORTAJE BEREZIAK**

Debagoienean kokatutako erreportaje bereziak, sakon landuta. Gertuko gaiak hainbat protagonistaren eta adituren ahotik hobeto ezagutzeko aukera eskainiko dute.

- Eguena
- 21:30 eta 23:30

**ELIKATU**

Elikadura ardatz duen saioa. Batetik, Naiara Uriarte elikadura kontsultoreak errezeta osasungarriak zelan egin erakutsiko digu, eta Debagoieneko ekoizleak gertutik ezagutzeko aukera Goiatz Arana kazetariaren eskutik.

- Egubakoitza
- 21:00



Imanol Agirretxe, Jokin Bereziartua aurkezlearekin eta Oñatiko Zuazola institutuko ikasleekin, *Galdegazte*-n.



Txomin Madina eta Monika Belastegi, *Hemen Debagoiena* saioko platoon.

Goiena telebistak udaberrira begira programa berriak izango ditu, baina dagoeneko ezagunak diren saioak ere indarrez bueltatuko dira denboraldi berri honetan. Besteak beste, gazteak protagonista izango dira *Kantari* eta *Galdegazte* saioetan, beste behin. *Albisteak* eta *Hemen Debagoiena* saioetan izango du isla gaurkotasunak, baita elkarriketen eta mahai-inguruen bidez *Harira*-n. Kulturazaleek ere euren hitzordua izango dute, beste behin, *Kulturriketak* programaren bidez.

Galdegazte, bueltan

Debagoieneko ikastetxeetako gazteak Goienako platora gerturatuko dira, laugarren urtez, eurek aukeratutako pertsonaiei elkarriketak egitera, Jokin Bereziartua kazetariak lagunduta. Laugarrenaldi honetan, besteak beste, arraun munduan eskarmentu handia duen Jose Luis Korta, Realeko jokalaria Imanol Agirretxe, Bizkaia Durango Murias taldeko zuzendari Agurtzane Elorriaga eta Aitor Arregi ziema zuzendaria elkarriketatuko dituzte gazteak. Otsailaren 28an, eguaztenean, estreinatuko dute denboraldia, eta, hain zuzen, elkarriketatua Huntza taldeko Josune Arakistain izango da.

Kantariren seigarren aldian

Inoiz baino indartsuago dator aurtien Kantari saioa, seigarrenaldian. 1.000 umek baino gehiagok parte hartuko dute ikuski-

Saioen aukera zabalagoa

Eguneroko informazioa jasotzeko, mahai-inguruetarako eta kultur solasaldietarako tokia eskainiko du Goiena telebistak udaberriko programazioan. Gainera, gazteendako, inoiz baino indartsuago bueltatuko dira 'Galdegazte' eta 'Kantari'

zunean. Izan ere, dagoeneko hamar urte bete ditu saioak, eta dekoratu berria prestatu du Goienak. Gazteak kantuan eta dantzan ibiliko dira, beste behin, Amaia Txintxurreta eta Aitor Agiriano aurkezleekin batera.

Kultura ardatz

2017an Rikardo Arregi kazetaritza sari nagusia eskuratu zuen *Kulturriketak* saioak. Eta aurtien, azken urteetako estiloari jarraituz, kulturgileen arteko solasaldiak eskainiko ditu Goiena telebistak. Solaskideak kulturaren inguruan berbetan arituko dira. Protagonisten artean, besteak beste, Zuriñe Hidalgo abeslaria, Amancay Gaztañaga musikari eta aktorea, Uxue Alberdi bertsolari eta idazlea eta Mikel Urdangarin musikaria elkarren artean arituko dira solasean.

Etorkizunari begirako inbertsioak

2017an, telebistara begira, inbertsio garrantzitsuak egin zituen Goienak, eta produkzio kate osoa HD formatuan egiten da dagoeneko. Besteak beste, platoko kamerak berriro dira, formatu horretan lan egin ahal izateko. Orain, hurrengo pausoa izango da HD produkzio horretatik emisioa bera HD kalitatean eskaintzea, eta, horretarako, dagoeneko lanean dihardu Goienak.

Horrez gain, Goiena aplikazio berezi bat sortzen eta garatzen ari da, telebistako eduki guztiak nahieran eskaintzeko asmoarekin. Gaur egun, www.goiena.eus/telebista webgunean eskaintzen dira Goienak ekoizten dituen ikus-entzunezko edukiak, baina mugikorretatik edota beste euskarri batzuetatik ere modu errazago eta erakargarrian eskaintzea da 2018ko helburuetako bat. Telebista eta ikus-entzunezkoak kontsumitzeko moduak oso azkar aldatzen ari dira gaur egun, eta bide berri horietara egokitzeko esfortzu berezia egingo du Goienak. Ikus-entzunezko edukiak edozein momentutan eta edozein tokitan kontsumitzeko aukera eskaintzea da bidea, eta, horregatik, garai eta plataforma berrietara egokitzeko ahalegin berezia egingo du Goiena telebistak 2018an zehar.

Protagonistekin, harira

Elkarrizketa formatuan Debagoieneko alkateekin eta Gipuzkoako Batzar Nagusietako eta Legebiltzarreko hainbat protagonistarekin denetariko ikuspuntuak eta pil-pilean zeuden gaiak landu ditu *Harira* saioak 2018 hasieran, eta martxoaren 6tik aurrera herriz herriko mahai-inguruen txanda izango da. Herriz handienetik txikienera, gori-gori dauden gaiak jorratuko dituzte udal gobernuetako eta oposizioako kideek, Eneko Azkarate aurkezleak gidatuta.

Elikadura hizpide

Naia Uriarte elikadura kontsultorearen gidaritzapean, elikadura ardatz duen *Elikatu* saioa estreinatuko du Goienak udaberrian. Errezeta osasungarriak egiten erakustez gain, ibarreko hainbat ekoizle gertutik ezagutzeko aukera egongo da, Goiatz Arana kazetariaren eskutik.

Gaurkotasuna

Debagoieneko egunerokoa albisteen, elkarrizketen eta erreportajeen bidez batuko dute *Albisteak* eta *Hemen Debagoiena* saioek, betiere, bertako protagonistei hitza emanez.

GAURKOTASUNA ETA AISIALDIA UZTARTUZ ADIN GUZTIETARAKO SAIOAK ESKAINIKO DITU GOIENAK



Bi herritar lrala kalean berbetan, eguazten arratsaldean. JOKIN BEREZIARTUA

Kalean euskarak gora egin arren, badago zer hobetu

2018tik 2022ra arteko Euskararen Plan Estrategikoaren oinarriak finkatzeko bi saio ireki antolatu ditu Udalak otsailaren 28rako eta martxoaren 14rako, udaletxean (18:30); azken neurketen arabera, ezagutza maila %66koa da eta kaleko erabilera maila %43 ingurukoa

Jokin Bereziartua BERGARA

2018tik 2022ra arteko Euskararen Plan Estrategikoaren oinarriak jartzeko herritarren "parte hartze zuzena ezinbestekoa" izango dela uste dute Udaleko Euskara Saileko arduradunek. Horretarako, bi saio egingo dituzte, otsailaren 28an eta martxoaren 14an, udaletxeko osoko bilkuren

aretoan (18:30). Saio irekiak izan arren, alde aurretik izena ematea komeni da, www.bergara.eus webgunean edota euskara@bergara.eus helbidera idatzita.

Guraso gazteen "palanka"

Bergaran euskararen ezagutza maila %66koa da eta euskaraz ez dakitenak %20 inguru izango

dira; aldiz, %15 inguruan dabil-tza euskaraz ulertu bai baina hitz egiteko zailtasunak dituztenak. Kaleko erabilera, berriz, %42-45 inguruan dabil. "Azken urteetan, kaleko erabilerak gora egin du; gaitasunean, berriz, beheranzko joera txiki bat dago. Duela hamar bat urte, %70 inguru zen ezagutza maila, eta %4 murriztu da",

adierazi zuen eguazten arratsaldeko agerraldian Euskara teknika-riburu Estepan Plazaolak. Era berean, euskaraz ikasi duten guraso gazteen artean euskara ezagutza ia erabatekoa dela azpimarratu du Plazaolak: "35-40 urte inguruko guraso belaunaldi hori gero eta euskaldunagoa da; etorkizunari begira horixe izango da palankarik garrantzitsua. Hala ere, esan beharra dago azken urteotako immigrazioak guraso euskaldunen igoera zertxobait apaldu duela". Hain justu, etorkinen integrazioarako euskarak oso eginkizun garrantzitsua izan dezakeela uste du: "Auzoko ekimena martxan dago, eta gure plan estrategikoan jasotzen da etorkinekin eraginkorrako izateko ekimen sendoagoak martxan jartzea".

Adibide zehatz bat jarri zuen Euskara zinegotzi Izaskun Labaienek etorkinak euskarara hurbiltzeko egindako saiakeren barruan: "Auzokora joaten direnak helduak dira, baina, umeei begira, bereziki, Oxirondoko eta Osintxuko ludoteketan, tarifa sozialaren aukera jarri genuen. Etorkinen seme-alabendako aukera bat da lagun euskaldunak egin ditzaten eta euskaraz bizitzeko lehena saiakerak egin ditzaten". Begirale berri bat jarri zuten Oxirondoko ludotekan, hizkuntza oztopo handia izaten delako: "Hala ere, herria euskalduntzeko balio duenez, merezi du".

Ondo detektatu eta sakondu

Eguaztenean, hilak 28, egingo den lehen saio horretan, taldeetan banatuta, orain arteko bi-dearen balorazioa egingo dute: zer hobetu, zer gehitu, zer kendu... Eta bigarren saioan, ordu-rako zehaztutako lehentasuneko arlo batzuetan sakonduko dute. Dagoeneko udal webgunean eskegita dagoen oinarriko dokumentua eramango dute batzar horietara. "Dokumentu hori guztiz irekia da, abiapuntu bat. Eta horren gainean idatziko dugu oraina eta etorkizuna. Gure asmoa da gizarteko arlo guztietan hizkuntza ohituretan eragitea eta horretarako baliabideak erraztea. Detektatuko ditugu ahulezia handienak eta baloratu ditugu orain arte jomugan izan ditugun arloak", gaineratu du Plazaolak.

Bi saio horietan jasotako ekarpenak eta hausnarketak Euskara Batzordera eramango dituzte eta han alderdiek ekarpen gehiago egingo dizkiete. Hori osatuta, osoko bilkurara eramango dute plana eta espero dute maiatzean onartzea. Kanpora begirako "parte hartze prozesuaz" gain, udal barruan era landuko dute.

OXIRONDOKO ETA OSINTXUKO LUDOTEKETA TARIFA SOZIALA DAGO, UME ETORKINEI BEGIRA



IMANOL SORIANO

Zaharberritu ostean, etxean

Sevillan zaharberritu ostean, zapatu iluntzean itzuli zen Hilzoriko Kristoa San Pedro parrokiako dagokion kaperara. "Kaperan egindako lanek ere merezi izan dute. Erretaula, ama birjinaren koadroa eta burdinazko itxitura zaharberritu ditugu, eta argiteria berria jarri. Kristoak merezi duen argiteria du orain", dio Jon Molina parrokoak, 260 kiloko artelan preziatuari erreferentzia eginez.

Etxean dago astelehenean auto batek harrapatu zuen udaltzaina

Ibargarai kalean gertatu zen ezbeharra, 07:30 aldera; buruan "kolpe handia" jaso arren, ez du hezurrik hautsi

J.B. BERGARA

Astelehenean, 07:30 aldera, zirkulazioa bideratzen ari zen udaltzain bat harrapatu zuen auto batek Ibargarai kalean. Zirkulazio handia egoten da ordu horretan Ibargarai inguruan, eta udaltzainek bideratzen dute zirkulazioa. Hain zuzen, egin behar horretan ziharduen udaltzaina harrapatu zuen auto batek ertzain-etxearen atarian -Arrizuri kalerako bidegurutzean-. Haren lankideek adierazi zuten, istripu larria izan zen, buruan "kolpe handia" har-

tu zuelako. Hala ere, Debagoieneko ospitalean bi egun egin ostean, etxean dago dagoeneko.

Zirkulazioa bideratu, ordu erdiz

Buruan kolpe handia hartu zuen, baina, "zorionez", ez zuen hezurrik hautsi. "Minarekin dago, baina etxean eta bajaran egongo da ondo errekuiperatu arte", adierazi du udaltzain batek. Auto batek udaltzain bat harrapatzea "oso ezohikoa" bada ere, eta egunero ordu erdiz zirkulazioa bideratzen aritzen direnez, gidariek adi gidatzea komeni da.

"Aukera da krisi bat, beti garamatza haztera"

ENRIQUE MARTINEZ LOZANO PSIKOTERAPEUTA, SOZIOLOGOA ETA TEOLOGOA
 'Nor naiz ni?' galderari erantzuten ikasteko aholkuak eman zituen martitzenean Martinez Lozanok Mariaren Lagundian; zoriontsu bizi izaten jakiteko oso garrantzitsua dela dio

Jokin Bereziartua BERGARA

Enrique Martinez Lozano (Teruel, Espainia, 1950) psikoterapeuta, soziologo eta teologo ezaguna Mariaren Lagundia ikastetxean izan zen martitzenean. Hitzaldia nola joan zen galdetuta, "interés eta atenzio handia" sentitu zituela erantzun dio GOIENARI. **Galdera baten bueltan joan da hitzaldia: Nor naiz ni? Zergatik da galdera hori horren garrantzitsua?** Gure bizitza galdera horri modu kontzientean edo inkontzientean ematen diogun erantzunak baldintzatuko duelako. Betidanik, erlijioa, filosofia eta zientzia erantzuten saiatu dira: *Nor naiz ni?* Gizaki guztiok bilatzen dugu zoriontsu eta sufrimendutik salbu bizitzea. Gertatzen dena da, askotan, horretarako bidea aukeratzekoan okertu egiten garela. Geure buruen eta bizi dugun errealitatearen gainean egiten dugun irakurketak, zoriontasuna bermatu beharrean, konfusiora edota sufrimendura garamatza askotan.

Eta zer egin bide hori saihesteko?

Finean, norbera aztertze gongibidapena egin gura dut *Nor naiz ni?* galderari erantzuteko. Bi egoera berezitu beharko lirake: egoera mentala eta egoera presentziala. Eguneroko egoera mentalean oinarritzen bagara, gorputz bat, burmuin bat edota psikismo bat garela ondoriozta genezake, eta horrek dakar burmuinak gure gaintetik agintzea. Hori horrela, gure benetako identitate ahaztuko dugu eta zoriontasunaren bidea aurkitzea askoz zailagoa izango zaigu. Bestetik, presentzia-egoera dago: burua isilaraztea lortzen badugu eta atenzioan oinarritu, presentzia-egoera kontziente batera jauzi egitea lortuko dugu eta hor dena da ezberdina; bide horretatik aurkituko dugu zoriontasuna.

Krisi bat gainditzeko aholkurik?

Hasteko, krisia aukera moduan ulertzea, krisi batek beti garama-



Enrique Martinez Lozano, artxiboko argazki baten. YOGAENRED.COM

tzalako haztera. Hori esanda, krisi bakoitza aztertu beharko litzake, baina, edozelan ere, jarrera egokia izatea oinarritzkoa da. Jarrera egokiaren barruan lau aipatuko nituzke: ez ekiditea –edo bizitzen ari garena onartzea–,

gertatzen dena ez murriztea –beti gara gertatu ahal zaiguna baino gehiago–; unea bera bizi izateaz akordatzeta –buruak biktimitismoan erortzea saihestuz–; eta norberarekiko maitasuna zaintzea –berreziki, mina agertzen denean–.



Mariaren Lagundia ikastetxeko aretoa txiki geratu zen hitzaldian. M. LAGUNDIA

Ikusmin handia piztu du hitzaldiak

Mariaren Lagundia ikastetxeko zuzendari Gotzon Iparragirre oso pozik agertu da martitzeneko saioak piztu zuen ikusminarekin: "Hitzaldia oso ondo egon zen. 150 lagun inguru bildu ginen; hizlari honek, han edo hemen izan, beti erakartzen du jendea".



NIRE USTEZ

MAIALEN MADARIAGA

Onar dezagun

Saiatuko naiz guztiok aipatzen. Aipatuz, koherentzia gutxi dugula. Dugula gutxi, edo ezer ez. Ez baikara gu egoistak, gizarte egoistaren parte garelako. Garelako tuitlari kritiko ez kritikagarriak. Kritikagarri ditugulako guk inoiz sortu ez ditugun ekintza kulturalak. Kulturala dugu txakurrak adoptatzea. Adopzioa bultzatzea, baina besteentzat bereiztea. Berezitu gabeko zaborrez betetako poltsa ekologikoak. Ekologikoa erosteko 30 litro gasolina erretzea. Erretzearen kalteez beldurtzen gaituen erretzaile ohia. Ohiko tradizio atzerakoiak. Atzera begirako proiektu berritzaileak. Berriz indartutako hetero-arauak.

Araurik sekula jaso ez dutenei arauak jartzea. Jarritakoak kentzea. Kendu ahala ematea. Ematea, bueltan gehiago jaso ahal izateko. Izan ezin diren etxeen hipotekak. Hipotekatutako oporrak. Oporrik gabeko lanak. Langile txarren aldarrikapen sindikalistak. Sindikatutako diruzaleak. Diruz ordaindutako maitasunak. Maitasun erromantikoak. Erromantikotasuneko tratu txarrak.

Tratu txarrak gertukoak badira, ez onartzea. Onar dezagun gure inkoherentzia. Herentzia duin bat sor dezagun, zor diegu.



B.U.

Aukeren Azokarekin "oso pozik"

Bedelkar eta Udala "oso pozik" daude hilaren 17ko Neguko Aukeren Azokarekin: "Salmentak oso ondo joan dira, dendariak oso pozik gelditu dira, eta hurrengoan ere parte hartzeko prest daude". Aurtengo nobedade bat izan da 1.560 euroko bonuaren zozketa; 450 lagunek hartu zuten parte eta Laura Cid Aldama izan da irabazlea. "Zorionak, Laura!", adierazi dute antolatzaileek.

'Goazen 4.0': sarrerak martxoaren 1ean jarriko dira salgai

Martxoaren 1ean jarriko dira salgai *Go!azen*-en azken ikuskizunerako sarrerak, 8 eurotan. Frontoian izango da ikuskizuna, martxoaren 25ean (18:00). www.ticket.kutxabank.es webgunean martxoaren 1ean jarriko dira (18:00); eta Seminarixoko txarteldegian egun berean (18:00etatik 20:00etara). Gehienez, sei sarrera eros daitezke pertsonako.

OHARRAK

'Familian gozaten'

Domeketan familian gozaten ekimenaren barruan, sormen tailerra izango dute etzi. Polimaker izeneko material berri batekin, nork bere irudiak egiteko aukera izango du Oxirondon (11:30-13:30).

Domeka Azoka etzi

Elkartrukea, berrerrabilera eta artisautza sustatzeko azoka, seminarioko karpan (11:00).

Ezkerraren eginbeharren gaineko saio "mamitsua"

Bergarako Eskola Herritarra ekimenaren barruan, Miren Larrionek, Arkaitz Rodriguezek eta Oskar Matutek bete egin zuten Irizar jauregiko areto nagusia; otsailaren 27an, herriko ELA, LAB, EH Bildu, Irabazi, Martxanterak eta Xaxau izango dira protagonista

T.M. / J.B. BERGARA

Bergarako Sortuk eta Iratzar fundazioak antolatutako Bergarako Eskola Herritarra izeneko hitzaldi zikloaren barruan "saio mamitsua" eskaini zuten Miren Larrionek, Oskar Matutek eta Arkaitz Rodriguezek. "Oso arrakastatsua izan zen, Irizar lepoino bete zen. Mahai-inguruaz gain eztabaida taldeak egin ziren entzundakoaz hausnarketa egin eta galdera berriak proposatzeko. Eskolaren filosofia ikasleak protagonista bilakatzea da eta arrakasta handia izaten ari da, parte hartzeko aukera ematen den bakoitzean erantzuna oso positiboa izaten ari delako".



Aurkezpenen ostean taldeetan banatu ziren. TXOMIN MADINA

Herriko eragileak azken saioan

Eskolak moldatzen ari dira parte hartzaileen nahietara eta beharretara: "Proposatutako irakurgetekin apunteak egin eta banatu dira. Gainera, bereziki azpimarragarria da liburu trukea egiteko proposamena egin dute-

la parte hartzaileek eta hirugarren saioan gauzatuko dela. Hau da, nahi duten parte hartzaileek liburuak eramango dituzte otsailaren 27ko saiora eta trukea egingo dugu bertan". Bergarako ELA, LAB, EH Bildu, Irabazi,

Martxanterak eta Xaxau konpartsa kideak izango dira protagonista azken saio horretan. Bergarako ezkerren egoeraz eta erronkez arituko dira eta herriko hainbat proiektu ezagutzeko aukera ere egongo da.

Zeintzuk dira ezkerren erronka nagusiak egun?



ARKAITZ RODRIGUEZ SORTUKO IDAZKARI NAGUSIA

"Frogatzea alternatiba izan badela, egin daitekeela eta haren alde borrokatu behar dela. Hori ez litzatekeela, sinestarazi nahi diguten moduan, historiaren amaiera. Ikusi besterik ez dago egungo sistema kapitalistak uzten dituen ondorio larriak munduan. [...] Kontzientzia kritikoa pizteko ekimen oro oso interesgarria da".



MIREN LARRION EH BILDUKO LEGEBILTZARKIDEA GASTEIZEN

"Udal mailan zein beste maila baten aritu, gure erronka nagusia da zehaztea ze bide aurkitzen dugun gauzak guztien artean erabakitzeko, boterea ez dadin lau paretetan geratu. Neurrikerik eraldatzaileena hori gauzatzea litzateke. [...] Halako eskolak egokiak dira, baina guztiok izan behar dugu protagonista".



OSKAR MATUTE ALTERNATIBAKO BOZERAMAILEA

"Beharrezkoa bada inurriak bezala, kontrabotere hegemoniko bat eraikitzea, zeinak ahalbideetako digun ez bakarrik ordezkari keta handiagoak eta hauteskunde zein erakunde eskala handiagoak lortzea, baizik eta eraldaketa maila handiagoak lortzea. [...] Halako formakuntza guneak beharrezkoak dira".



Mariñe Azkarate, Naroa Aranguren eta Lierni Errasti, Josune Arakistainekin. OIHANE ISASI

Ipintzak eta Josune Arakistainek estreinatuko dute 'Galdegazte'

Laugarren denboraldiko lehen saioa otsailaren 28an ikusi ahal izango da Goiena telebistan, 21:30ean hasita

Jokin Bereziartua BERGARA

Badator 14 eta 18 urte arteko ikasleak protagonista dituen *Galdegazte* saioa, eta, denboraldi berria gogotsu eta indartsu hasteko, Ipintza institutuko Mariñe Azkarate, Naroa Aranguren eta Lierni Errasti ikasleek Huntza taldeko abeslari eta trikitilari Josune Arakistain elkarrizketatu dute.

2017a urte ezin mugituagoa izan ostean, 2018ari begira lasaiago ibiltzeko asmoa dutela aurreratu du Arakistainek: "Kontzertu gutxi emango ditugunez sorkuntzan zentratuko gara, eta, ikusten badugu zer grabatu badagoela, grabatuko dugu. Presio barik". Euskal Herritik kanpo ere ari dira jotzen, "oxigeno apur bat" hartu eta beste publiko batzuei zabaltzeko; hain zuzen, martxoaren 9an Madrilen joko dute eta martxoaren 17an Parisen. Ikasleek, besteak beste,

Aldapan Gora abestiak eragin zuen fenomeno a –euskarazko historiako bideorik ikusiena da, lau milioi eta erdi ikustalditik gora ditu-eta- nola bizi izan zuten galdetu diote: "Sorpresaz bizi izan genuen. Hasieran, kantuak sortu genituenean, gure inguruan geratuko zirela uste genuen... Baina *Gaztea*-n jarri zutenetik elur-bola gero eta handiagoa egin da eta, izan duen oihartzuna oso ongi etorria bada ere, sustoa ere eman zigen. Ez dago zure abestiekin jendea mugiaraztea baino sentsazio politagorik".

Ikasleekin batera platoan jotzen

Hainbat galdera egin ostean, eta elkarrizketa borobiltzeko, Arakistainek Huntzaren *Iñundik Iñoare* abesti ezaguna jotzen amaitu zuen ikasleekin batera. Hori guztia ikusteko aukera egongo da Goiena telebistan otsailaren 28an, 21:30ean hasita.

'Emakumeok planto' egiteko, Martxanterek prest dute egitaraua

Emakumeok planto lelo hartuta, Martxoaren 8rako iragarrita dagoen greba lan esparrutik harago kokatzen du Martxanterak taldeak: "Enpleguaren alorraz gaindi, dei egiten dizuegu zaintzak eta ugalketa lanak ez egitera, eta, grebaren seinale gisa, besoko morea jantzera, eta balkoi nahiz leihoetan amantalak eskegitzera". Martxoaren 3an,

bailara mailako deialdiari eutsiz, Elorregira martxa egingo dute, eta, horretarako, Oxirondon elkartzeko dira, 12:00etan.

Martxoaren 8an, Martxanteren arabera, lanuztea 11:00etatik 15:00etara dago deituta eta elkarretaratzea 12:00etan egingo dute San Martin plazan; 13:30ean bazkaldu egingo dute janaria etxetik eramanda. Arratsalderako lanuztea 18:00etatik 22:00etara izango da; 18:00etan mahai-ingurua egingo da plazan eta 20:00etan abiatuko da manifestazioa

"Aurrerapauso handia egin dut urtebetean"

ANDONI CALBANO ATLETA

Bergarakoak urtebete darama atletismoan eta dagoeneko Euskal Herriko abiadura lasterkari onentsuenekin lehiatzen dabil. Espainiako Txapelketarako sailkatuta dago

Xabier Urzelai BERGARA

Duela hamabost egun Ibai Fernandez atleta arrasatearrak Euskadiko Txapelketan egindako marka azpimarratu zuen GOIENAK –urrezko domina 60 metrokoan–. Podiumean, baina, ondoan bergarar bat zuen, atletismora iritsi berritan marka ikusgarriak egiten dabilen Andoni Calbano (Bergara, 2000). Martxoko lehen asteburuan Ourense lehiatuko da, 20 urtez azpikoan Espainiako Txapelketan parte hartzeko txartela eskuratu du eta.

Bergara futbol taldeak hegaleko jokalaririk ez duen bat galdu du.

[Barre] Futboleko jokatu dut 16 urtera arte, eta gustura nengibilen, egia esateko. Baina oso kirolzalea naiz, eta atletismoa probatzeko harra nuen barruan. Bada, arrebak Eibarko atletismo taldekoekin harremana zuen, eta haren bitartez joan nintzen 2016ko abenduko egubakoitz iluntze batean Unbera [Eibar] saio batzuk egitera. Eta, gaur arte.

Iaz futbol eta atletismoa bateratzen ibili zinen.

Bai; baina oso nekagarria zen. Asteazken entrenamendu saio nituen, ikasketak... Gogoan dut ikastolan lo geratzen nintzela, eta aukeraketa egiteko orduan



Andoni Calbano, haren entrenatzaile Inma Urkiolarekin, Anoetan. A.C.

"ATLETISMOA KIROL INDIVIDUALA DA, BAINA OSO GIRO POLITA EGOTEN DA TXAPELKETETAN"

atletismoaren aldeko apustua egin nuen.

Eta aukeraketa ona izan da?

Bai. Atletismoak benetan harropatu nau, eta konturatzen zara kanpotik jendeak ze gutxi dakien kirol honi buruz. Kirol indibi-

duala da, norberaren markak dira garrantzitsuak, baina sekulako giroa dugu, txapelketetan oso saltsa polita egoten da... Eta entrenamenduak ere oso dibertigarriak dira.

Ez da ohikoa urtebete daraman batek halako markak egitea.

Oso harrিতuta nago denbora laburrean egin dudako saltoarekin, sekula ere ez nuke halakorik amestuko. Entrenatzen hasi eta gutxira hasi nintzen markak lortzen [60 metrokoan 7.15eko marka du eta 100 metrokoan, berriz, 11.44koa].

Begarararen eta Oñatikoaren arteko derbia, Gipuzkoakoan

Soraluce BKEk eta Sesiñena Aloñak elkarren kontra jokatuko dute zapatu iluntzean Labegaraietan

X.U. BERGARA

Gipuzkoako Lurraldeko Txapelketan, bergararren eta oñatikoaren arteko derbia jokatuko dute zapatuan (20:00, Labegaraieta): "Taldea joan den astean Urolaren kontra izandako sentsazio onei eutsi gura die, eta defentsa on batean oinarritu nahi dute jokoa, horrek emango die eta partidua irabazteko aukera", adierazi du, aste barruan, klubeko ordezkaririk Josetxo Muniatetik. Izan ere, Edu Orgazek taldeak, nahiz eta baja dezente izan, itxura polita erakutsi zuen Urolaren kontra (24-21), eta, bigarren taldeko gazteek lagunduta, etxean jarraian jokatu duen bigarren partiduan ere bi puntuak batu gura dituzte.

Biak ere puntu beharrean

Sailkapenean Soraluce BKE (12 puntu) Oñatiko Sesiñena Aloña



Begarararen jokalaria erasoan. I.S.

(7 puntu) baino apur bat aurrerago dago, baina oñatikoaren partidua dute oraindik jokatuko. Bada, bi taldeak dabilte atzealdeko postuetatik urruntzeko borrokan, eta zapatuko bi puntuak balio handia dute. Zazpi jardunaldi geratzen zaizkie.

Etxaniz eta Gartzia finalerdietan, gaur irabazten badute

Gazte mailako norgehiagokak jokatu dituzte gaur, Bergarako Udal Pilotalekuan (19:30). Lehenengo partiduan, Oberena eta Bergara lehiatuko dira, eta mahoneroen ordezkaririk Etxaniz eta Gartzia izango dira. Bada, bikote bergararrak irabazten badu, finalerdietarako sailkatuko da. Beste partiduan, Añorga eta Oberena lehiatuko dira.

Eskolarteko gimnasia erritmikoko txapelketa, bihar

Ariznoa gimnasia erritmikoko taldeak antolatuta, zapatuan Gipuzkoako eskolarteko gimnasia erritmikoko txapelketa egingo dute Labegaraietan. B mailako lehenengo fasea jokatu dute goizean zehar eta arratsaldean Gipuzkoako benjaminen topaketa egingo dute. Goizeko txapelketan Ariznoak hamar gimnasta izango ditu lehiatzen.

"Ze garrantzitsua den burua!"

Atletismoan daraman urtebetean, Calbano Gipuzkoako eta Euskadiko txapelketetan nabarmendu da –asteburuan urrea jantzi du Gipuzkoako Txapelketan, 60 eta 200 metroko probetan–. "Oso ehunen gutxitan erreagionatu behar da, eta konturatzen zara txapelketetan ze garrantzitsua den erabat kontzentratuta egotea. Buruak agintzen du hemen".



Durangon, iaz egindako Euskadiko Txapelketa absolutuan, 200 metrokoan. A.C.

Frontenis txapelketa mistoa antolatu dute Soraluzen

Frontenisa eta emakumeen eta gizonezkoen arteko parekidetasuna bultzatu nahian, frontenis txapelketa mistoa antolatu dute Soraluzen. Hala ere, txapelketa ez dago herritarrei mugatuta, eta debagoiendarrei ere gonbita egin diete antolatzaileek. Martxoaren 24an jokatu dute; parte hartzeko, 943 75 24 66 zenbakira deitu behar da.

Lokatzak zapatuan aurkeztuko ditu 2018ko taldeak

Hainbat kategoriatako txirritulariek asteburuan ekingo diote 2018ko denboraldiari. Esaterako, zapatuan, Euskaldun Sarikoak Zumaian lehiatuko dira, emakumezkoak eta kadeteak Ibaetan, eta juniorrek domekan Eibarren izango dute hitzordua. Lokatza Ziklismo Eskolakoek, berriz, zapatua aprobetxatu dute taldeen aurkezpenera egiteko.



Hardflip taldea taula gainean zuzeneko musika eskaintzen. GOIENA

Hardcore musika izango da asteburuko doinua

Tapoi Fest musika jaialdia egingo dute gaur eta bihar kartzela zaharreen. Gaur, Bergarako Hardflip taldeak 10. urteurrena ospatuko du herritarren aurrean. Bihar, bi saio egingo dituzte: bi saio horien artean afari irekia egingo dute, 2 euroren truke

Arantzazu Ezkibel BERGARA

Aste bukaera zaratatsua izango dute oraingoa gaztetxean. Txapa Irratiko *Jar itzazu tapoiak* irratiaiko kideek antolatuta, Tapoi Fest jaialdia egingo dute gaur, egubakoitza, eta bihar, zapatua, kartzela zaharreen.

Hardcore musika gustuko dutenendako prestatutako jaialdia izango da. Euskal Herriko eta baita kanpotik etorritako musika taldeen emanaldiak izango dira. Aurtengoa, dagoeneko, 7. jaialdia izango da.

Gaur, etxeko taldea

Gaur, egubakoitza, hasiko dute musika jaialdia. 22:00etan hasiko da zuzeneko musika kartzela zaharreen: Hardflip, Norkzerk?! eta Take Warning taldeenekin. Jaialdirako sarrerak 3 euroko kostua izango du.

Hardflip Bergarako hardcore-punk taldea da. Aurten 10 urte bete dituen taldea da, eta modu ezin hobean ospatuko dute urtemuga herritarrekin. Norkzerk?!

Beasaingo taldeak, aldiz, lehenengo diskoa aurkeztuko du kartzela zaharreen. Eta, azkenik, eskola zaharreko hardcorea entzuteko aukera egongo da. Bilbotik etorrira, Take Warning taldeak doinu gogorrek eskainiko ditu.

Kontzertuak amaitu ondoren, Dj's Hard of Beats musikariak girotuko dute gaztetxea.

Herstura eta Uther, doan

Zapatuan bi saio egingo dituzte. Lehenengo saioa 19:00etan izango da, doan. Herstura talde oñatiarrak eta Uther taldeak eskainiko dute kontzertua. Lehenek post-hardcorea egiten dute eta bigarrenek musika azkarra jotzen dute, fastcore eta power-

**ZAPATU ILUNTZEAN
HERSTURA ETA UTHERTALDEEN KONTZERTUA
IZANGO DA
GAZTETXEAN, DOAN**

violence koordenadetan. Uther taldea musikari arituek osatzen dute.

Saio horren ondoren afaria egingo dute gaztetxean bertan, 2 euroren truke. Afaria bukatutakoan hasiko dute bigarren saioa.

Bigarren saioa, 5 euroren truke

Zapatu gaueko bigarren saioko sarrera 5 euro izango da. Blood Brothers, Ansia, Paniko eta Holy Nuns taldeak igoko dira taula gainera. Blood Brothers Errioxako taldeak hardcorea eskainiko du; Kataluniako Ansia taldeak crust-punk doinuak lantzen ditu; Paniko taldea Zarautzik eta Oreretatik dator, hardcore-punk estiloko disko berria aurkeztera; eta Holy Nuns talde donostiarrak punk-rocka egiten du. Zati azkarrak eta zati punkak nahasten ditu Holy Nuns-ek.

Oihartzun handia duen jaialdia izaten da Tapoi Fest hardcore musika jaialdia.

Soinu elektrikoak eskainiko ditu Muguruzak disko berriarekin

'Leiho bat zabalik' lana aurkeztuko du musikariak Seminarixoa aretoan; gaur izango da, 20:00etan

A.E. BERGARA

Leiho bat zabalik diskoa aurkeztuko du Jabier Muguruzak Seminarixoa, gaur, egubakoitza. Emanaldia 20:00etan izango da, 8 euroren truke.

Muguruzaren lan egiteko moduan aldaketa ekarri du disko berriak; oinarri akustikoa alboratu du, eta gitarra elektriko eta elementu elektronikoekin lagunduta soinu-paisaia berria sortu du. Diskoan "gustura" geratu zela dio, baina "zuzenekoetan larritasun" puntu bat sentitu zuela, hasieran.



Jabier Muguruza. GOIENA

Kolaboratzaile ugari


Zortzi abestiz osatutako diskoa da. Abestietako letrak ez dira Muguruzarenak, guztiak kolaboratzaileek sortutakoak dira: Iñaki Irazuk, Gerardo Markuletak eta Lourdes Oñederrak, besteak beste.

Ander Mujika, Javi *Carasueño* eta Mireia Otzerinjauregi ditu bidelagun disko berriari Muguruzak. Intuizio handiko musikariak bilatzen ditu kolaboratzaile lanetarako; Muguruzaren esanetan, "moldaketa onak" egiten dituzten musikariak dira.

Iritsi da Laburbira

Film laburren zirkuitua hasiko dute eguaztengoa, otsailaren 28an.

Gainera, aurten, Bergaran izango da estreinaldia: Zabalotegi aretoan, 20:00etan. Euskal Herriko zinema sortzaileen filmak eskaintzen ditu Laburbirak. Zortzi film labur eskainiko dituzte aurten, 77 minutuko iraupenarekin: *Kreba, Ilunpetan, Night Shift, Higardurak, Ejecutor, Zulo, Areka* eta *Tazan*.



TOPAGUNEA

'Bergarako agurra' estreinatuko dute txistulariek domekan

Txistulari Bandari babesa erakusteagatik eskerrak emanez, Jose Migel Laskurain bandako zuzendari berriak *Bergarako agurra* sortu du. Domekan estreinatuko dute, Udalarri eta herriari eskerrak emanez, 13:00etan, udaletxean. Oinarrian txistu bakarrarekin interpretatzeko pieza den arren, bandarekin ere jotzeko modukoa da.

Maidar Alzelairen eskutik umeendako ipuin kontaketa saioa

Udal Liburutegian umeendako ipuin kontaketa saioa eskainiko du Maidar Alzelaik. Gaur, egubakoitza, 18:00etan izango da saioa, doan. Martitzenean, aldiz, nagusien txanda izango da. Liburutegian bertan, nagusiei zuzendutako ipuin kontaketa saioa egingo dute. 19:00etan izango da eta saio hori ere doan izango da.



Emakume sahararrak tea prestatzen eta hennaz eskuan marrazkia egiten. JABIER ETXANIZ

Saharako errepublikaren aldarrikapena, gogoan

Anelkar eta Sagiri elkarteek antolatuta, saharar kutsua duen festa egingo dute bihar, zapatua, Zurrategi plazan. Bertan batzen den diru udan haur sahararrak ekartzeko erabiliko du Sagirik. Martitzenean, berriz, elkarretaratzea egingo dute Herriko Plazan

Maidar Arregi ANTZUOLA

1976ko otsailaren 27an aldarrikatu zen Saharako errepublika. 42. urteurrena beteko da martitzenean, eta, hori gogorarazteko eta gaur egun oraindik bizi duten gatazka politikoaz herritarrak sensibilizatzeko, aldarrikapenez beteriko festa egingo dute zapatuan, otsailak 24, Antzuolan. "Asteartean, SEADen aldarrikapena egiteko elkarretaratzea egingo dugu, baina ospakizunak zapatuan, bihar, hasiko ditugu herri ezberdinetan. Haima bat jarriko dugu eta bertan tea eta pintxoak dastatzeko aukera izango da, besteak beste. Hennazko marrazkiak egiteko aukera ere izango dute antzuolarrek, haimara gerturatzen badira. Arratsaldeko zazpitan Zurrategi plazan egingo dugu jai eta herritar guztiak daude gonbidatura parte hartzera. Aurrez, baina, gai libreko gaztetxoendako marrazki lehiaketa egingo dugu, 17:00etan hasita", azaldu du Sagiri elkartearen kide Marta

Sanchezek. Saharar eta euskal musika ere ez dira falta izango bihar.

Anelkarren laguntza ere badu, noski, Sagiri elkarteak. Baina Sagirirendako lehen aldia da saharar herriaren egoera salatzen eta aldarrikatzen duen festa antolatzearen ardura. "Urtebete inguru da Sagiri sortu genuela. Oraindik balorazioa egiteko goiz da, baina herrian sumatu dugun harrera oso ona da. Gure proiektuari babesa erakutsi diote bai Piztu Itxaropena kanpainaren bitartez eta baita santa eskean egindako diru batzarekin. Izan ere, uztailerako eta abuzturako hamar haur saharar ekarri gura ditugu Arrasateko aterpetxe

UDALETXEKO BALKOIAN SAHARAREN BANDERA JARRIKO DUTE ZAPATUAN

batera", argitu du Sagiri elkartearen kideak.

Elkartasunezko tortillak

Antzuolan dagoeneko tradizio bilakatu da herritarren tortillei esker batzen den dirua Saharako proiektuetara bideratzea. Orain arte, Anelkarrek antolatuta, orain Sagiri elkartearekin elkarlanean egingo dute. Hala, antzuolarrek egindako tortillak dastatzeko aukera egongo da Sahararen aldeko festan. "Herritarrei dei egin gura diet aurreko urteetan erakutsitako borondate onari eutsiz, aurten ere animatzeko eta ekartzeko tortillak Zurrategi plazara".

Konpromiso falta

Lehen haur asko ekartzen zituztela etxetara azaldu du Sanchezek. "Krisia eta konpromiso falta dago orain. Saharako haurrek sekulako beharra dute hona etortzeko. Euren osasunak hobera egiten du. Elikadurak eta klimak on egiten die".



Torresoroa aretoan herritarrak eta adituak hezkuntzaz berbetan. IMANOL SORIANO

Hezkuntzaren gaineko ikuspuntu ugari Torresoroan

Eskolei autonomia handiagoa eta baliabide gehiago eman behar zaizkiela ondorioztatu dute jardunaldian

Maidar Arregi ANTZUOLA

Berezia da Antzuolako eskolako hezkuntza eredua. Sozio-konstruktibismoan oinarritua, 30 urteko ibilbidea egin du eta aditu askoren interesa piztu du. Hala, zapatuko jardunaldian hainbat aditu eta herritar elkar-tu ziren gaiak sakon jarduteko.

Esperientzia eredugarria

"Eredu honetatik asko dugu ikasteko. Desadostasunak alde batera utzi eta elkarrekin proiektu bat eraikitzea lortu zuten. Hori, gainera, kanpoko iturrietatik edan baina bertakoa eraikitzeke... edozein lekutan egiteko gaitasuna izan dezakegula uste dut", esan zuen Hik Hasiko kide Xabier Sarasuak.

Antzuolako eredua bikaina dela esan zuen EH Bilduren Hezkuntza arduradun Rebera Uberak. "Gizartea eraikitzeke tresna bat da hezkuntza, eta

guztien inplikazioa eskatzen du horrek. Gaur moduko dinamikak auzo eta herri guztietan egin behar direla uste dut; izan ere, arazoak eta erronkak ez dira eskolarenak bakarrik. Azken urteotan gertatzen ari dena da ditugun arazo guztiak eskolaren gain uzten ditugula, eta, hala, herritarren inplikazioa ezinbestekoa da".

Erronka berriak

Hezkuntza sistemarekin lotuta dauden erronkei aurre egiteko Hik Hasitik antolaketa eredu berri bat proposatzen dutela esan zuen Sarasuak. "Finantzazio eta kontrol publikoa behar ditugu; eskolek autonomia handiagoa eduki behar dute". Uberak kohesio sozialaren eta inklusioa ziurtatzearen beharraz jardun zuen: "Proiektuak aurrera ateratzeko, ikastetxeek irakasle finkoak behar dituzte".

Mendiaz eta historiaz gozatzeko irteera antolatu du Arrolak

Domekarako, otsailaren 25erako, irteera antolatu du Arrolak, goiz parterako, Zumarragako parajeetara. Hango naturaz eta historiaz gozatzeko aukera izango dute.

"08:30ean Olarandik autoetan irtengo gara. Ibilbidea zirkularra izango da, eta, Zumarragan hasita, Izaspi mendia igoko dugu (967 metro). Zumarragako bidean,

Antiguako ermitan geldituko gara, Oleta eta Samiño artean historiaurreko monumentu megalitikoak ikusteko aukera ere badago eta -tumuluak-. Bukarera, Jorge Oteizak ermiten katedrala izendatu zuen Antiguako baseliza ikusteko aukera izango dugu, eta baita bertan ezkututzen den dragoia ere. Sari berezi bat egongo da dragoia aurkitzen duenarentzako! Lau orduko ibilbidea izango da, erakargarria eta lasaia", azaldu dute antolatzaileek.



Jon Sarasua Xabier Leteri eginiako omenaldia, Aretxabaletan. GOIENA

Leteri omenaldia, Jon Sarasuaren bihotzetik

Zapatuan, Jon Sarasua musikari aretxabaletarra Torresoroako agertokira igoko da Xabier Leteri omenaldi pertsonala eskaintzeko. Kantaldi mintzatua egingo du eta oso gertukoa eta intimoa izango da, gainera; 19:30ean hasiko da emanaldia

Maidar Arregi ANTZUOLA

Leteaz kantuberbetan emanaldi gertuko eta intimoa eskainiko du Jon Sarasua zapatuan, otsailak 24, Torresoroan. Musikari aretxabaletarra agertoki gainera igoko da berriro. Izan ere, azkeneko, 2011n omendu zuen Xabier Lete taula gainean. "2010ean, Xabier Lete hil zenean, sentitu nuen gustura egingo nuela bere ibilbidearen interpretazio pertsonala. Hitzaldi kantatua eta kantaldi mintzatua egin gura nuen. Formatu txikiak, gertukoa, egin gura nuen, sofistikazio gutxiak: gitarra eta pianoa lagun. Gogoeta pertsonala egitea Lete egindako ibilbideaz eta izandako jarreraz", azpimarratu du Jon Sarasua.

Hasierako ideia Aretxabaletan behin egiteko izan bazen ere, urtebeteko bira egin zuen Sarasua aretoz areto. "Hamar edo hamabi lekutan ibili ginen. 2011n azkena egiteko erabakia hartu genuen. Baina ia ahaztutzat ge-neukana orain berriro piztu da

Antzuolatik egindako eskaera bati esker. Berriro animatu naiz!".

Leteren jarrera

Biharko emanaldian, Xabier Leteren jarrera azaleratzen duten kantuak izango dira nagusi: "Betiko kantu ezagunak kantatuko ditut, baina Leteren jarraz eta eboluzioaz berba egiten dutenak ere interpretatuko ditut. Asmoa da omenalditxo egitea, haren gaineko gogoeta eginez".

Sarasua gaineratu du belau-naldi honetan eragina izan duten adreiluak jarri dituenetako bat dela Lete: "Uste dut Xabier Lete beste batzuekin batera belau-naldian adreilu batzuk jarri zituela gure horma egiteko.

**FORMATU TXIKIKOA
ETA OSO GERTUKOA
IZANGO DA SARASUAK
ESKAINIKO DUEN
KANTALDI MINTZATUA**

Harri poetikoez, berak esanda-koez eragina izan dute eta gure kulturaren".

Leteren plagioaz

Zenbait hedabidek Xabier Leteren inguruko ustezko plagioak jaso dute. Baina Jon Sarasua zein iritzi dauka gai honetaz? Garrantzirik eman al dio? "Nik uste dut txikieria bat dela. Esaten da poema bat besteren batetik hartu duela... bueno, horri garrantzia emateko lupa jarri behar zaiola uste dut. Niretzako, ez dauka garrantzi handirik. Egia da gure euskal kulturagintzatxo oso mundu txikia dela eta askotan egon direla harreman pertsonaletan istorio txikiak, ezin ikusiak, mendeku txikiak... hortik ere, agian, izango duela esango nuke nik. Baina txikieria bat da, niretzako", esan du Sarasua, galderari erantzunez.

Torresoroako emanaldia 19:30ean hasiko da -sarrera 3 euro da-.

Ione Larrañaga ilustratzailearen lanak Aitz Garbin daude ikusgai

Ukitu surrealista duten hamar artelaneko bilduma ikusgai dago martxoaren bigarren astera arte

M.A ANTZUOLA

Ione Larrañaga ilustratzaile gaztea (24 urte) eskarmentua daukan artista da. 15 urterekin Olanan etxean, lehenengoz, hainbat margolan ardatz ziren erakusketa zabaldu zuen. "Hasieran, pintura lanak egiten nituen. Arte Ederrak ikasi nituen, eta orain, Ilustrazio ikasketak egin ditut. Pintura eta ilustrazioa uztartzen duten lanak egiten ditut orain. Hain zuzen ere, lan horiek dira Aitz Garbin jarri ditudanak", kontatu du Bartzelonan bizi den artistak.



Larrañagaren ilustrazioa. @IONE_LARRAGO

Martxo arte

Erakusketa hilabete hasieran zabaldu zuten eta oso harrera ona izaten ari dela dio Larrañagak: "Lanen bat ere saldu da, eta jendearen artean mintzagai da erakusketa. Oso pozik nago, harrera ona izaten ari da eta".

Surrealismo kutsuko lan sorta martxoa erdira arte bisitatze-ko aukera egongo da. "Herriko jendea, lagunak eta familiakoen argazkiak ilustratzen ditut. Izan ere, ikusleei gustatu egiten zaie eta errekonozitzeko, gainera, errazagoa dela uste dut".



JOSE MARI GALEANO

Galeano ahizpak, txapeldun

Leire eta Nagore Galeano ahizpa antzuolarrek zapatuan jokaturako Eskolarteko Pilota Txapelketa irabazi dute alebin eta kadete mailetan. Biek erraz irabazi zuten jokaturako partiduak. Leire Galeanok, alebin mailan, 16-5 irabazi zuen binakako partidua, Ataunen. Nagore Galeanok, berriz, 16-3 irabazita jantzi zuen txapela.



Saiak moxala jaten Urbian 2017an. JULEN IRIONDO

Gipuzkoako sai arre gehienak Oñatin bizi dira

Gipuzkoako hegazti sarraskijaleen egoera zein den eta sai arreak nola markatzen dituzten eta nola bizi diren azalduko dute datorren astean kultura etxean egingo dituzten hitzaldi banatan. Oñatin dago sai arreen Gipuzkoako koloniarik handiena

Oihana Elortza OÑATI

Hegazti sarraskijalea da aurtengo Ingurumen Jardunaldietako ardatza, eta animalia horrek Gipuzkoan bizi duen egoera eta sai arreek Oñatin duten koloniaz eta egiten dizkieten markatze lanez hitz egingo dute datorren astean kultura etxean.

Orkatzategi

Sai arrea, sai zuria, miru gorria eta ugatza dira, hurrenez hurren, Gipuzkoan dauden hegazti sarraskijaleak. "Horietan, sai arreak du populazio handiena Gipuzkoan, eta ugatzak, aldiz, txikiak. Aralar inguruan bizi den hirukote bat baino ez dago gaur egun", azaldu du Mikel Olanok basozainak.

Sai arreen populazioaren zatirik handiena, gainera, Oñatin dago, Orkatzategin. "Inguru horretako parajea, hor dauden harkaitzak, oso egokiak dira kumeak izan eta hazteko. Arroila horiek politak dira eta normala da hor eroso egotea sai

arrea. Habitat naturala da gure hori eurendako", dio Olanok.

Hegazti horien kontrola bi modutara egiten dituzte basozainek: zentsuak egiten dituzte, batetik, urtetik urtera, eta, bestetik, markatze bereziak egiten dizkiete, eratzunak jartzeaz gain. "Uda honetan ere ibili gara animalia horiek markatzen. Kode bat duten kolore biziko goma antzeko bat jarri diogu hainbati hegaletan. Teleskopio bidez egiten diegu jarraipena", azaldu du Gipuzkoako Aldundiko basozainak. Sistema horren bitartez, sai arreak non ibiltzen diren, kumeak non izaten dituzten eta beraien artean nola moldatzen diren ikusten dute basozainek. Biltzen dituzten datuak ordena-

SAI ARRE BATEK BEDERATZI KILO IZAN DITZAKE ETA HIRU METRO HEGALEKO PUNTATIK PUNTARA

gailuan gordetzen dituzte, ondoren publikatzeko. Uda honetan, Orkatzategin bizi diren hamar sai arre gazte eta 50 heldu markatu dituzte goma horiekin.

Mantentzen

Azken 50 urte hauetan hegazti sarraskijaleek Gipuzkoan izan duten eboluzioari dagokionez, kopuruak mantentzen direla dio Olanok, ugatzarena arriskuan dagoen arren. "Europa barruan penintsula da horrelako hegazti gehien dituen lurraldea, eta, horren barruan, kantaurialdean dago multzorik handiena. Ganadua dagoen lursailak behar dituzte bizitzeko, hori da-eta euren elikagaia; hildako animalia horien garbiketa isila egiten dute eta beharrezkoak dira", aipatu du Mikel Olanok.

Gipuzkoako hegazti sarraskijaleen inguruko hitzaldia eguaztenean izango da eta Oñatiko koloniar buruzkoa, martitzenean. Biak dira 19:00etan, kultura etxean.

Neguko arropa eta osagarriak aterako dituzte herriko dendek

Egubakoitzean eta zapatu goizean udazkeneko eta neguko denboraldiaren 'Azken txanpa!' eskainiko du Txandak

O.E. OÑATI

Udazkeneko eta neguko denboraldiari amaiera eman eta udaberrikoari ongiatorria eman gura dio Txanda dendari elkarrekin eta *Azken txanpa!* izeneko egitasmoa antolatu du gaurko eta biharko. "Aurrekoetan egin dugun bezala, denda bakoitzak ate aurrera aterako ditu neguko arropa eta osagarriak, bakoitzak bere deskontu edo beherapenarekin", azaldu du zuzendaritzako kide Irma Juaristik.

Gutzira, Txandako 25 komertzio hartuko dute parte.

Batzarra

Bestalde, datorren martitzenean, otsailak 27, egingo du Txanda elkarteak urteko batzar orokorra. Azken urtearen balantzea eta hurrengorako dituen asmoak eztabaidatuko dituzte, besteak beste, eta zuzendaritza berri egingo dute; lau komertzio ordezkariek zuzendaritza utziko dute -Luhar arropa denda, Arkauz optika, Rosa bitxigintza eta Ane mertzeria- eta beste lau sartuko dira. Bederatzi lagunek osatuko dute hurrengo zuzendaritza berria.



MIREN ARREGI

Indianaren kapela, Arregirentzat

Euskal zinemagintzaz, zinemagile moduan egin duen ibilbideaz, zinemazale moduan duen iritziak eta *Handia* filmaz hitz egin zuen Aitor Arregik astelehenean Santa Anan. Indiana Jones-ek piztu zuen haren zaletasuna. Eta Indiana Jonesena bezalako kapela bat oparitu zion Udalak ekitaldiaren amaieran, lore sortaz eta oroigarriaz batera.

Aste Santu ostean hasiko dira Udanako errepedea konpontzen

Gipuzkoako Foru Aldundiak baieztatu duen moduan, lanak lizitazio fasean daude eta Aste Santu ostean hasia aurreikusiten dute. Eskoilera eta terraplan bat egingo dituzte. Bi hilabete eta erdi iraungo dute lanek eta 242.000 euroko aurrekontua dute. Obrak iraun bitartean, egun dauden semaforoaren bitartez arautuko da zirkulazioa.

Malirako izango da afarian eta antzerkian batutako dira

Hermansoloñak elkartasun afaria egingo du gaur, egubakoitza, Bidaurretan, 20:30ean, eta han batutako dirua Togoko (Mali) Saint Paul ikastetxeko elikaduran laguntzeko izango da. Baita domekan, 19:00etan, Santa Anan, Ikusi Makusi antzerki taldeak egingo duen *Nos vamos de vacaciones* antzezlanen batutako dirua ere.

"Hizkuntza erabilera aldatzea da helburua"

IKER MARTINEZ DE LAGOS TOPAGUNEKO KIDEA

Norbanakoek eta eragileek parte hartuko duten batzorde bat osatuko dute, 'Euskaraldia, 11 egun euskaraz' egitasmoa Oñatin nola bistaratu antolatzeke

Oihana Elortza OÑATI

Euskaraldia, 11 egun euskaraz ekimenarekin bat egin du Oñatik ere. Eguaztenean, otsailak 28, egingo dute egitasmo horren aurkezpena, 18:30ean, udaletxe-ko osoko bilkuren aretoan.

Zer da Euskaraldia?

Hizkuntzaren erabilera ohiturak aldatzeko ariketa soziala da, herritar euskaldunak aktibatuz.

Eta nola egingo da hori Oñatin?

Helburu batzuk baditu egitasmoak, baina egia da herri bakoitzaren egoera soziolinguistikoaren arabera aldatu daitezkeela. Oñatin bere neurrirako ekintzak egingo dira.

Eta nola antolatuko da?

Eguazteneko aurkezpenean egitasmoa bera azalduko dugu: nondik datorren, nola garatu den, nortzuk babesten duten, dituen helburuak, datak... Eta datozen asteetan bi saio egingo dira dinamika parte-hartzaileen bidez. Batzorde bat osatuko da eta bederatzi hilabetez lanean jardungo du hizkuntza erabilera aldatzen laguntzeko.

Ahobizi eta Belarriprest. Zer dira kontzeptu horiek?

Azaroa eta abendua bitartean egingo da *Euskaraldia, 11 egun euskaraz* egitasmoa Euskal Herri osoan eta egun horietan Ahobizi edo Belarriprest txapa jantziko dute herritarrek. Lasarten sortutako kontzeptuak dira biak. Ahobizi txapa eramango dute hamaika egun horietan euskaraz hitz egiteko konpromisoa hartzen dutenek. Belarriprest txapak, berriz, euskaraz ulertu bai baina hitz egitea kosta egiten zaienek.

Irailean zabalduko da epea herritarrek Ahobizi edo Belarriprest izan gura duten erabaki eta izena emateko.

Herritarrek hartuko duten konpromisoaren arabera izango da?

Bai. Pertsona bakoitzak bere gaitasunen arabera eta egin gura duenaren arabera erabaki de-



Iker Martinez de Lagos eguaztenean Durangon. TOPAGUNEA

"GEURE HIZKUNTZA ERABILERA OHITURAK ALDATU GURA DITUGU GEURE INERTZIAK ASTINDUZ"

zake kontzeptu baten edo bestearen alde egitea.

Zer egingo da Euskaraldia Oñatin zabalteke?

Egingo diren saio dinamikoan osten sortuko den batzordearen esku egingo da zabalteke hori antolatzea eta gidatzea. Topaguneko kideok ere laguntzeko egingo gara, baina herri bakoitzean herrian sortutako batzordea izango da eragile nagusia. Funtzio batzuk erakutsiko edo emango zaizkie talde horretako kideei, adibidez, formazio tailerak eskainiko dira, baina eurek erabakiko dute Euskaraldia nola bistaratu Oñatin.

Nortzuk egingo dira batzorde horretan?

Herritar guztiek dute tokia hori. Norbanakoek zein eragileek har dezakete parte. Eta ez bakarrik euskalgintza inguruan dihardutenek, baita bestelakoek ere.

Zenbat eta batzorde osatuagoa izan, orduan eta hobeto. Horixe da lortu gura dena.

Ohiturak aldatzea, askotan, ez da samurra izaten. Nola erraztu daiteke hori?

Ohiturak inertzien ondorioz sortzen diren praktikak dira, gehienetan, eta inertziak astindu gura ditugu erabilera praktikak aldatzeko. Ohitura aldaketa modu kolektiboan egitea errazagoa izango dela iruditzen zaigu, babestuago sentitzen garelako.

Zergatik orain Euskaraldia?

Euskaraz hitz egiteko gaitasunak hazkunde handia izan du urteetan, baina erabileraren datuak egonkorak dira azkenaldian eta alarma piztu du horrek. Uste dugu momentu egokia dela urrats berriak egiteko eta erabilera indartzeko.

Noiz eta non izango da aurkezpen ekitaldia Oñatin?

Datorren eguaztenean, otsailak 28, izango da, 18:30ean, udaletxe-ko osoko bilkuren aretoan. Egitasmoaren nondik norakoak azalduko ditut nik eta egitasmoa Oñatin nola kaleratu pentsatzen hasiko gara gero. Hurrengo saiorako datak ere aipatuko ditugu. Denak daude gonbidatuta.



Urtarrilaren 31n egindako bilera. POTOTAK

Datorren astean hasiko dira Martxoaren 8ko plantoak sustatzen

Oñatiko sare feministak antolatuta, elkarretaratzeak eta zuhaitz eta monumentuen apainketak egingo dituzte

O.E. OÑATI

Urtarrilean hasi zen Oñatiko sare feminista Martxoaren 8rako iragarrita dagoen greba deialdia antolatzen. Hainbat bilera egin dituzte, bailarako ordezkariekin ekintza bateratuak antolatzeke zein herritarrekin herri barruan nola ospatu erabakitzeke. "Martxoaren 3an Elorregira joango gara jai giroan eta kale agerraldia egingo dugu han beste debagoiendarrekin batera. Herriko gune ezberdinak amantalez apainduko ditugu eta egunean bertan elkarretaratzeak egingo ditugu Olakua auzoan eta Foruen

plazan. Atarrietan oharrak jarriko ditugu, antolatu diren ekitaldien berri emanaz. *Emakumeok planto!* da aurtengo leloa", dio sare feministako kide Lurdes Arregik.

Martitzenean, otsailak 27, egingo dute hurrengo topaketa, gaztetxean, 18:30ean. Eskulanak egin eta materiala prestatzeko elkartuko dira: mezuak idatzi, kartelak prestatu, amantalekin herriko txokoak noiz eta nola apaindu adostu, besoko moreak egin... Bilera irekia da eta lagundu gura duen edonor joan daiteke.



NIRE USTEZ

MIREN ZUBIA

Gogorik ezak esana

Gaur ez dut idazteko gogorik. GOIENAKO zutabe bat zapuztera nator, aurpegi guztiarekin. Nahi dudana esateko aukera luzatu didate, baina oraingoan uko egingo diot, apetak eman didalako. Zer axola du, bada? Inor ez dago nire iritzia zain, inor ez dago nire hausnarketaren esperoan, eta ez dut mundua aldatuko paperaren beste aldetik. Zertarako plazaratu hiritar soil baten usteak? Zertarako mantendu zerbait aldatuko dudan esperantza?

Hor goian zaudetenok, lasai, oraingoan lana aurreztuko dizuet, ez nago prest nire iritzia hartu, zimurtu eta zuek hau zakarrontzira botatzeko.

Horixe egiten ikusi zaituztet haien sinesmen, printzipio, balore... guztiaren gainetik defendatzen eta aldarrikatzen saiatu diren horiekin.

Publikoki haien iritzia plazaratzen saiatu diren horien adierazpen askatasuna bortxatu duzue lotsa eta muga gabe zuen berdin pentsatzen ez dutelako, pentsatu "behar" ez dena pentsatzearen. Gure beldur al zarete?

Gaur ez nuen idazteko gogorik eta nahikoa esan dizuet.



Pasa den zapatuan aurkeztu zuen denboraldia Aloña Mendik. IMANOL SORIANO

Errepidera irteteko prest daude Aloñako ziklistak

2018ko denboraldia aurkeztu du Aloña Mendiko txirrindularitza sailak; 24 ziklista izango dira, eta aurre-benjamenen taldea osatuko da lehenengoz; horrez gain, Oñatiko beste bi neska eta lau mutil kanpoko taldeetan arituko dira

Eneko Azurmendi OÑATI

Aurre-benjamenetan, Manex Erle, Peru Guenetxea, Alan Hernandez, Liher Legorburu eta Jon Zelaia ariko dira taldean. Kimuetako ordezkariak Alex Beristain eta Jon Sanchez izango dira eta infantiletakoak, Aritz Arregi, Beñat Buquete, Xabat Kastaños, Aimar Madina eta Markel Zubia. Hiru talde horien

zuzendariak Ruper Arkauz eta Juan Carlos Buquete izango dira eta babeslea, berriz, Bizipoz Kafe. Kadete mailan, Aitor Altube Unax Arregi, Danel Casai, Unai Cueva, Aimar Erostarbe eta Aritz Torres ariko dira. Zuzendariak Julen Arkauz eta Mikel Fernandez izango dira. Junior mailan, azkenik, Ander Blazquez, Iosu Gartzia, Gaizka Maiztegi,

Julen Otero, Egoitz Perez eta Aritz Plazaola ariko dira eta zuzendariak Iñaki Mugarza, Aitor Umerez eta Kepa Umerez izango dira. Azken bien babeslea Ulma izango da. Bestalde, Julen Umerez eta Xabi Murgiondo Ampon ariko dira, Ekaitz Txintxurreta eta Ander Gartzia Debabarrenan eta Garazi Erostarbe eta Sara Arregi, Ogi Berrin.

Kanpoan jokatu dute eskubaloiko bi taldeek asteburuan

Batetik, gizonezkoetan, Fagor Industrial Aloña Mendik Bidasoa-Irunen aurka jokatu du bihar, zapatua, 19:00etan, Irun-go Artaleku kiroldegian. "Egia da denboraldi gorabeheratsua izaten ari garela. Baina bigarren itzuli honetan egonkortzen ari gara. Azken bost partiduetatik bakarria galdu dugu, eta konfiantza berreskuratzen ari gara.

Guztia ematera joango gara, dinamika onarekin jarraitzeko", dio Ander Varela jokalaria.

Bestetik, emakumezkoetan, Ereintza Barymont izango du aurkari Aloña Mendik bihar, 15:45ean, Erreterriako Udal Kiroldegian. "Aurkari zuzena da, gure maila antzekoa duena, eta partidu gogorra espero dugu, intentsitate handikoa. Gainera, baja dezente ditugu partidurako, eta hori ere nabaritu dugu. Hala ere, irabaztera goaz", dio Ane Kortabarria atezainak.

Zumaiako hartuko du Azkoagainen Aloña Mendik, domekan

Pasa den asteko porrota ahaztu, eta lehenbailehen dinamika onera itzuli gura dute Gotzon Urtzelaireren mutilek. "Emaitzei dagokienez, urtea gaizki hasi dugu, eta horrek eragina izan du taldearengan. Gauzak hobetu besterik ezin da egin hemendik aurrera eta gogo handiarekin gaude berriro dinamika ona hartzeko. Ea afizioaren aurrean

itxura ona emateko gai garen", azaldu du Gaizka Irizarrek, taldeko jokalaria.

Zumaiako izango dute aurkari domekan, 16:30ean. "Han irabaztea lortu genuen, oso partidu serioa eginda. Hala ere, talde zaila da, jokalaria azkarrak dituzte, eta kontuz ibili beharko dugu", nabarmendu du Irizarrek.

Emakumezkoen Kopari dagokionez, Aloña Mendik atsedena izango du asteburuan. Pasa den astean, 5-0 irabazi zioten oñatiarrek Intxurre taldeari.

Aitor Ugarterenek Donostian dute hitzordua bihar

Saskibaloian, Aloña Mendik etxetik kanpo jokatu du bigarren partidua errenkadan, biak ere Donostian. Pasa den asteburuan Atletico San Sebastian taldearen aurka galdu ostean -54-48-, bihar, zapatua, Donostia Dolphins taldearen aurka jokatu dute Aitor Ugarteren mutilek, 18:00etan, Benta Berri kiroldegian.



JULEN OTERO
GAZTE MAILAKO ZIKLISTA

"Gazte mailan bigarren urtea izango dut, eta, esperientzia baliatuta, aurrean ibiltzea eta lasterketetan protagonista izatea izango da helburua".



KEPA UMEREZ
PRESIDENTEA

"Taldea polita osatu dugula uste dut. Kopurua mantentzen ari gara eta aurten, gainera, aurre-benjamenen taldea izango dugu. Polita da hori".




SARA ARREGI
KADETE MAILAKO ZIKLISTA

"Taldea berria izango dut aurten eta gustura nago, denboraldia hasteko gogotsu. Taldean Garaziren konpainia izatea garrantzitsua izango da".



GARAZI EROSTARBE
GAZTE MAILAKO ZIKLISTA

"Bigarren urtea izango dut gazte mailan. Asmoa da iazko emaitzak hobetzea. Espainiako erlojupekoa begiz jota dut, ea iazkoa hobetzen dudana".



JULEN UMEREZ
AFIZIONATU MAILAKO ZIKLISTA

"Belauna oraindik ere ez dut guztiz ondo, eta ea, behingoz, errekuperatzen naizen. Uda inguruan hasi, eta denboraldia ondo amaitzea espero dut".



XABI MURGIENDO
AFIZIONATU MAILAKO ZIKLISTA

"Iazko denboraldia uste baino hobeto joan zen, eta ea aurten beste jauzi bat egiten dudana gora. Denboraldi-aurrean, behintzat, ondo prestatu naiz".



La casa de Bernarda Alba antzezlaren irudi bat. ABRETELIBRO.COM

Literatur topaketa egingo dute martxoaren 5ean

Emakumeen Nazioarteko Egunaren harira, 'La casa de Bernarda Alba' antzezlaren gaineko solasaldia egingo dute hilaren 5ean, eta, parte hartzeko, kultura etxean eman beharko da izena; hilaren 11n emanaldia bera izango da ikusgai Santa Anan

Eneko Azurmendi OÑATI

Caritasko ordezkari Iratxe Barrusoren ekimenez eta Pototak Emakume Asanbladaren eta Oñatiko Udalaren partaidetza-rekin antolatu dira topaketa eta emanaldia. "Bilboko Pabilioi 6 taldeko bazkide naiz. Horrez gain, gaztelaniako eta literaturako irakaslea ere banaiz. Urtero joan izan naiz ikasleekin antzezlari hau ikustera. Aurten goa berria izan da eta iruditu zitzaidan oso ona zela. Beraz, Udalarekin harremanetan jarri nintzen. Bernardak jasaten duen erreprosioren gaineko solasaldi bat egitea proposatu nion Nerea Zubia zinegotziari, eta hark baiezkota eman zidan", azaldu du Barrusok.

Izan ere, Federico Garcia Lorca idatzitako lanak XX. mende hasierako matxismoa ondo islatzen du eta testu aproposa da berdintasunetik ezaz edo emakumeen kontrako indarkeriaz go-goeta egiteko. Beraz, ideia hori baliatu gura dute antzezlari

protagonistak jasaten duen minaren inguruan hausnarketa egin, eta norbanako ezberdinen esperientziak partekatze.

Hala, Barrusok azpimarratu du "herritar guztiak" daudela topaketan parte hartzeraz gonbidatuta, eta, bereziki, herrian aktibo dauden irakurketa taldeak: liburutegiak, Pake Lekukoak eta gaztetxeak.

Caritasen gertuko harremanak du Barrusok zenbait emakume etorkinekin. "Eguneroko bizitzan ezkutuan daude, eta haiek solasaldi honetan parte hartzea ere oso garrantzitsua iruditzen zait, esperientzia partekatze".

Kultura etxetik bideratu da testuaren irakurketa. "Ordu eta erdian irakur daitekeen testua

"HERRITAR GUZTIAK DAUDE GONBIDATUTA PARTE HARTU ETA ESPERIENTZIA PARTEKATZERA"

da. Gaia oso ederra da oñatiarrentzat, eta polita izango da adin eta jatorri askotariko herritarrek duten ikuspuntua partekatzea", dio Barrusok.

Izen-ematea

Topaketa martxoaren 5ean izango da, 18:30ean, eta, parte hartzeko, izena eman beharko da, liburutegira joanda, 943 71 61 11 telefonora deituta edota liburutegia@onati.eus helbidera mezua bidalita. Solasaldian parte hartuko dutenen kopurua jakin nahi dute antolatzaileek; horren arabera erabakiko da eta non egingo duten.

Emanaldia, Santa Anan

Topaketaren ostean, antzezlana egongo da ikusgai Santa Ana antzokian, hilaren 11n, 19:00etan. "Polita izango da hausnarketa egin eta esperientziak partekatu ostean emanaldiaz gozatzea", azpimarratu du Barrusok.

Sarrerak salgai daude jada Bibe.me webgunean, 10 eurotan.

"Zortziko txikikoa ona atera zitzaidan, eta gora egin nuen"

URKO ARREGI BERTSOLARIA

Txinparta Gazte Sariketako txapelduna da Arregi

E.A. OÑATI

Ordura arte bikotekide izan zuen Gartxot Ramirez gailendu zitzaion oñatiarra buruz burukoan. **Zorionak! Azkenean, txapela etxean geratu zen, zuk nahi moduan.**

Eskerrik asko! Bai, hala da. Gogotsu joan nintzen gaztetxera, saio polita egiteko intentzioarekin. Hasieran, zortziko handian, nahiko galduta sentitu nintzen, baina gero, zortziko txikiko lehen bertsoa ona atera zitzaidan, eta gora egin nuen. Bukararako, esango nuke saio txukuna atera zitzaidala.

Buruz burukorako oso justu sailkatu zineten, puntu bat baino gutxiagotatik. Lehia estua egon zen, ezta?

Egia esan, ni nire baitan nengoen atzean eta ez nuen saioa askorik jarraitu. Nik, momentu hartan, Ane Beloki eta Iraitz Sarasola ikusten nituen indartsuen, nahiz eta, gerora, jendeak esan gu hobeto ibili ginela. 0,6 punturen aldea egon zen gure eta haien artean, baina Oihana Arana eta Garazi Navarro ere ez dut uste askoz atzerago geratuko zirenik.

Buruz burukoan ondo aritu zinen. Aurretik egindako lanaren ostean, gogotsu nengoen kantura-



Urko Arregi. U.A.

ko, eta hori transmititu nuen, saio txukuna eginez. Gartxot momentu batzuetan estu samar ikusi nuen, baina hark ere oso saio polita egin zuen.

Txapelketa zer moduz joan da?

Lehenengo aldia izan da eta momentu batzuetan berandu ere ibili gara zenbait gauzatan. Hala ere, oro har, balorazio guztiz positiboa egiten dut. Herriko eta inguruko bertsolariei abes- teko aukera eskaintzea izan da helburua, eta jendea hurbildu da gu entzuterara. Beraz, pozik gaude sariketarako emandakoarekin.

Goi mailako musikaz gozatzeko aukera asteburuan Antixenean

Gaur, egubakoitza, MICE eta Libe taldeek eskainiko dute kontzertua eta domekan, berriz, Willis Drummond

E.A. OÑATI

Goi mailako euskal musika izango da Antixena gaztetxean asteburu honetan.

Gaur, egubakoitza, MICE eta Libe taldeak ariko dira oholtza gainean, 22:00etan hasita –sarrera, bost euro–. Lehenari dagokionez, Napoka Irian aritutako Miren Narbaiza da MICE izenaren atzean ezkututzen den musikaria. Bakarkako diskoaren birarekin ari da orain. Erritmo pausatuak, ilunak eta rockzaleak uztartzen ditu azaroan argitaratutako izen bereko diskoak.

Ondoren, Libe Garcia de Cortazar protagonista duen Libe taldea igoko da oholtzara. Sorkun, Izaki Gardenak eta Ekon taldeetan ibili ondoren, talde berriarekin argitaratu duen *Ilargia erori da* diskoarekin dator orain. Pop-rock malenkoniatsua jorratzen du taldeak, eta teklatu eta ahotsek atmosfera berezia ematen diete abestiei.

Asteburua behar bezala amaitzeko, Willis Drummond taldea etorriko da Antixenera domekan. 20:00etan izango da bai onarren emanaldia –sarrera, bost euro–.

Duatloirik ez, baimenen atzerapenengatik

DUATLOIA Ibarreko kirol hitzordu nagusietako batek huts egingo du aurten, ez da egongo 1991 ezkeror urtero antolatu izan duten Oñatiko lasterketa. Arrazoi nagusia da geroago eta traba handiagoak dituztela lasterketa antolatzeke; batez ere, Trafiko aldetik

Xabier Urzelai OÑATI

Jon Aperribai –2002– eta Zuhaitz Ezpeleta –2005– arrasatearrak podiumean ikustea, Ainhoa Muruak urteetan erakutsitako nagusitasuna –2005ean, 2006an, 2008an eta 2011n irabazi zuen–, Mainer Gaztañagak 2012an eta 2014an emandako erakustaldia, Patxi Vilak 2009an Deskargan

egindako kronoigoera ikusgarria –nahiz eta ondoren Capoferri korrika gehiago izan zen– edota azken edizioan Beñat Arnaiz aretxabaletarraren ondoan duatloia barrutik bizitzea. Modu batera edo bestera, kirol horretako zaleek askotariko momentuak bizi izan dituzte Oñatiko duatloian, eta lasterketa horrek,

urte hauetan guztietan, punta-ko atletak ekarri izan ditu Oñatira. 2018an, berriz, Oñatiko plazako boxak ez dira bizikle-teen beteko.

Erabaki gogorra


"Erabaki honen aurrean jende askok hartu du pena handia, oso kontziente gara. Guretako, oso gogorra izan da erabaki hau hartzea. 26 urtez egon gara lasterketa hau antolatzen, eta talde barruan jendea pena handiarekin dago. Baina halako lasterketa bat antolatzeko gutxieneko baldintzak behar ditugu, eta ezin gara baimenak azken orduan jasotzen ibili", adierazi du Andoni Correasek.

Araudia, zorrozuta

Zirkulazio arauak aldatu zituztenetik hona, arazoak handitu egin dira halako proben antolatzailendako –Antxintxiketan taldeak ere arazo berberak izan ditu urteotan Arrasate-Oñati lasterketa antolatzeko orduan; lasterketa hori desagertu egingo da aurten–. Duatloia antolatzeko, Elorregi eta Oñati arteko errepidea erabat itxita egon behar izaten da ordu eta 40 minutuz. Hori horrela, iazko duatloiak balorazio negatiboa jaso zuen Trafikotik. Eta bestalde, halako



Capoferri, Galinier eta Vila (2009). GOIENA



Gurutze Frade, 2016an, helmugan. GOIENA



Lasterkariak, 2008an, irteera puntuan, lasterketa hasteko gertu. GOIENA

"2019an egingo dugu antolatzeko ahalegina"

ANDONI CORREAS
ANTOLATZAILEA

Berez, martxoaren 11n ziren aurtengo edizioa egitekoak, baina antolatzailerek erabaki mingarria hartu behar izan dute.

Zein izan da lasterketa bertan behera uzteko motiboa?

Motibo nagusia da lasterketa antolatzeko beharrezkoak ditugun baimenekin arazoak izaten ditugula urtero, batez ere, Trafiko Saitetik. Iaz, lasterketa domekara pasa



M.BIKUÑA

behar izan genuen azken momentuan, eta horrela ezin gara ibili. Aurtengo lasterketaren gainean oraindik ez dugu erantzunik jaso, ez digute ez baiezkorik edo ez ezezkorik esan, eta 80 laguneko lantaldea mobilizatu behar dugu; bi hilabete behar ditugu gauzak ondo antolatzeko. Horrez gainera, azkeneko urteotan asko zorroztu dituzte zirkulazio baimenak.

LGBTIfobiaren kontrako ekimena Bergarako futbol taldean

FUTBOLA Ohorezko Erregionalean, mahoneroek etxean jokatu dute; baita Aretxabaletak eta Mondrak ere

X.U. BERGARA

Joan den astelehenean ospatu zuten *LGBTIfobia kirolean* izeneko nazioarteko eguna, eta ekimenarekin bat egingo dute Bergara Futbol Taldekoek aste-buruan: "Gizonezkoen eta ema-

kumezkoen lehen taldeetako kapitainek besoko berezia eramango dute. Kirolean ere pertsona guztien sexu eskubideak errespetatu daitezke", adierazi dute klubeko ordezkariak. Era berean, zuzendaritzak babesa

adierazi die Idiazabal eta Elgoibar taldeei aurreko asteburuko norgehiagokako epaileak izan zuen jarreraren aurrean: "Futbolearen euskaraz bizi nahi dugu".

Hireurek etxean jokatu dute

Ohorezko Erregionaleko 23. jardunaldira etorrita, Bergarako sailkapenaren erdian dagoen Oñatun hartuko du bihar, Mondrak sailkapenean ondoan duen Mutrikuren bisita izango du eta UDak seigarren dagoen Zarautz izango du kontrario.



Maialen Esnaola eta Iñaki Mardaras jokalaria, besokoekin. BKE

"Esprintean ateratzen dut daukadan onena"

TXIRRINDULARITZA Garazi Estebez aretxabaletarra Espainiako Kopa txapeldun izan da pistan, Euskal Selekzioarekin, kontrarioei eta asma eraso gogor bati aurre eginda; asteburuan, berriz, errepideko denboraldia hasiko du, Donostian

Xabier Urzelai ARRASATE

Gura baino kontrario gehiago izan zituen Garazi Estebez aretxabaletarrak Mallorcako Palma Arenako pistan jokaturako Espainiako Kopako azken jardunaldian: kontrarioa hiru puntura dagoela jakiteak dakarren presioa, txapelketako ohiko urduritasunak eta asma erasoak izan zezakeen susmoa. Hirurak koktelera batean sartuta, asteburua ondo kudeatzea lortu zuen.

Oraindik kadete mailako ziklista bada ere, Estebez dagoeneko ederto ezagutzen du bere burua, zeintzuk diren indarguneak eta ahulguneak. Eta, tarteka bada ere, asma erasoak hor egoten dira: "Urduritasun eta estres handiko asteburua izan zen, hori da egia. Aurretik, asma arazoak izango nituen susmoa neukan, baina, zapatutik domekara lo gutxi egin banuen ere, domekan ondo har nezakeen arnasa".

Jarrera erasokorra

Gipuzkoa Ogi Berri taldeko ziklista sailkapeneko bigarren postuan iritsi zen Kopako azken jardunaldira; hiru puntura baino ez zuen etxean jokatzeko zuten Marina Grau ziklista: "Pista ederto ezagutzen zuen eta aurretik zegoen sailkapenean; hortaz, jarrera erasokorra izan behar nuen



Estebez, erdian, podiumaren gorenean, Grauren eta De Roaren ondoan. JOSU ESTEBEZ

derrigor. Eta bai, horrek presioa gehitzea dakar".

Zapatuan bi proba izan zituen, *Scratch* eta *Puntuaketa*. "*Scratch*-ean bi ziklistak aurrera egin zuten -Lucia Gomez eta Jimena de Roa-, eta utzi egin nien, nire borroka ez zelako eurekin". Estebez Marina zaindu behar zuten gertutik, eta hirugarren postua lortzeko esprintean irabazi egin zuen. Atsedean hartu eta hurrengo probara. Eta hor etorri ziren arazoak: zazpi kilometro aurretik, eta hiru esprint puntuagarri. Bada, lehenengo

bi esprintetan atzean utzi zuen Grau, baina hirugarren itzulian asma eraso izan zuen, eta ezin izan zuen proba errematatu -laugarren-. "Hori izan zen une kritikoa. Eguna puntu bateko aldearekin amaitu nuen, baina errekeratu beharra neukan".

Hala, domekan berehala ohartu zen ondo hartzen zuela arnasa. Beste krisialdi bat izateko beldurra gainditu, eta *Tempo* eta *Kanporaketa* lasterketak irabazi zituen. Izan ere, aretxabaletarrak esprintean ematen du onena.

ASTE BUKAERAKO HITZORDUAK

FUTBOLA

EUSKAL LIGA, EMAKUM.

Goierrri-Leintz Arizmen.

Domeka. 16:30. Beasain.

OHOREZKO ERREGIONA.

Aretxabaleta-Zarautz

Domeka. 16:30. Ibarra.

Bergara-Oiartzun

Zapatua. 16:15. Agorros.

Mondra-Mutriku

Zapatua. 16:30. Mojategi.

ERREGIONAL PREFERE.

Elgoibar-Antzuola

Zapatua. 16:30. Mintxeta.

Aretxabaleta-Soraluze

Zapatua. 17:30. Ibarra.

Mondra-Zestoa

Domeka. 16:00. Mojategi.

Bergara-Beasain

Domeka. 16:30. Ipintza.

Aloña Mendi-Zumaiako

Domeka. 16:30. Azkoagai.

EMAKUMEZK. IGOERA

Bergara-Urnieta

Zapatua. 16:00. Ipintza.

EMAKU. IGOERA FASEA

Bergara-Touring

Zapatua. 17:30. Ipintza.

ARETO FUTBOLA

NAZIONAL MAILA

Aretxab. UDA-Santurtzi

Zapatua. 17:30. Ibarra.

EUSKADIKO TXAPELK.

Mallabia-Mondrate

Domeka. 17:30. Zaldibar.

Eskoriatza (atsedena).

SASKIBALOA

EBA

MU-Pas Pielagos

Zapatua. 18:30. Iturripe.

GIPUZKOAKO LEHEN M.

Dolphins-Aloña Mendi

Zapatua. 18:00. Donostia.

GIP. BIGARREN MAILA

Berg. Soraluze-Añorga

Domeka. 16:00. Lab.

EMAKUMEZKOKOAK

Eskoriatza-Take Aralar

Gaur. 20:15. Manuel M.

ESKUBALOA

EUSKADIKO TXAPELKE.

Urdaneta-Ford Mugarri

Domeka. 12:00. Bilbao.

Bidasoa Irun-Aloña M.

Zapatua. 19:00. Artaleku.

EUSKADI. TXAP. EMAK.

Ereintza-Aloña Mendi

Zapatua. 16:00. Erreterri.

GIPUZKOAKO TXAP.

Soraluze BKE- Sesiñena

Zapatua. 20:00. Labegara.

ERRUGBIA

EUSKADIKO TXAPELKE.

Getxo Artea-ART

Zapatua. 14:00. Getxo.

PILOTA

PILOTA FEDERATUA

Oñati:

Gaur. 18:30. Lau partidu.

Bihar. 18:30. Hiru partidu.

Aretxabaleta:

Gaur. 19:00. Hiru partidu.

Bergara:

Bihar. 18:15. Bi partidu.

Martitzenean, berriz,

Soraluze Lau t'erdiko partiduak.

SASKIBALOA Hirugarren garaipena jarraian, hori da MÜren asmoa

Ordiziaren eta Gimnastica Sport Cafe taldeen kontra irabazi eta gero, MUK arnas apur bat hartu du. Baina, konformatu barik, garaipena gura dute, ligan hirugarrena jarraian izango litzatekeena. Bihar (18:00), Iturripen, seigarren postuan dagoen Pas Pielagos taldea izango dute aurrean. Joanekoan 80-71 irabazi zuten kantabriarrek.


ERRUGBIA Kanpanzar ARTk Getxon du partidu garrantzitsua

Joan den asteburuan Gaztediren kontra etxean galdu eta gero, hil edo biziko hitzordua dute Arrasate Kanpanzar taldeko mutilek; izan ere, azken asteotako emaitzen ondorioz, atzaldeko postuak pil-pilean daude, asko estutu da-eta sailkapena. Getxoren egoera, berriz, beste-lakoa da, bizkaitarrak hirugarren daude-eta sailkapenean.

ARATUSTEETAKO ARGAZKIEN
GOIENA LEHIAKETA 2018

ANTOLATZAILEA:
goiena
Zu hemen zaude.

LAGUNTZAILEAK:



Jon harategiaren eta
Hankabeltz urdaitegiaren
produktuekin osatutako
otarre bikaina
Aladji Saarrek eta bere
kuadrillakoek irabazi dute.

Eskerrik asko lehiaketan parte hartu
duzuen debagoiendar guztiei!



Desioa gaitzat hartuta, 'talk show' musikatua

Asier Etxeandia, Arrate Etxeberría eta Ander Lipus aktoreek, Jon Maia bertsolariak, Enrico Barbaro musikariak eta Valerie Tasso idazlea eta sexologoak antzezten duten 'Los visitantes' ikuskizuna eskainiko dute Amaia antzokian, 19:30ean, etzi, domeka

Aitziber Aranburuzabala ARRASATE Bilboko Khea Ziater taldearen azken lana da *Los visitantes*. Antzerki moduan defini daiteke, baina ez da ohiko formatua. *Talk show* bat dela dio Unai Garate zuzendariak. "Antzerki bezala saltzen dugu. Ikusleari ezaguna eta gertuko egingo zaio eszenografia. Terraza handi baten itxura duen dekoratua, kultura arloan diharduten sei pertsona agertuko dira; piknik bat egiten ari dira, eta, ardoa edaten eta hestebeteak jaten dituzten bitartean, gai baten inguruan solas egiten dute; oraingoan, desioa edo desioak da aukeratu duten gaia".

Etzi, domeka, Amaia antzokian eskainiko dute, 19:30ean. Sarre-rak 15 eurotan eros daitezke, *Arrasate.eus* atarian eta antzokiko leihatilan.

80ko hamarkadako telebista

Garai baten telebistan egiten ziren tertulia formatuko saioen itxura dauka. "Gaur egungo saioetako tertuliakideak euren paperean sartuta daude: serioak izan behar dute; denetik jakin behar dute; elkarri hitza zapaltzen diote... Gureak kontrakoak dira; balioa duena, anekdotikoa, historikoa edo bakoitzaren bizipenak dira. Umorea da osagai



Los visitantes ikuskizunaren une bat. SON AOUJIL

garrantzitsua eta ez nor baino nor listoagoa izatea. Batak beste-ari laguntzen dio, batak esandakoarekin besteak beste istorio bat lotzen du, eta lagun arteko afari bat denez, opari moduan kantak eta bestelako sorpresak ere badaude".

"SAIOAREN BIZKARREZURRA MUSIKA DA; ASMOA, ENTRETENITZEA"

UNAI GARATE, ZUZENDARIA

Artista ezagunak elkarrekin

Afariko anfitrioiak Bilboko Arrate Etxeberría aktorea dela azaldu du Garatek. "Hark gonbidatzen ditu Asier Etxeandia eta Ander Lipus aktoreak, Enrico Barbaro musikaria, Valerie Tasso idazlea eta sexologoa eta Jon Maia bertsolaria; eta gonbidatuei desioaren inguruko zalantzak, galderak... planteatzen dizkie. Hortik abiatuta, bisitari bakoitzak bere bizipenak eta iritziak azaleratuko ditu. Ikuskizunaren bizkarrezurra musika da, eta asmo nagusia, entretenitzea".

Gipuzkoako Eskolarteko gaurko saioan, bailarako bi ordezkari

Larrain-Gain elkartean izango den bertso-afarian Haizea Arana eskoriatzarra eta Oñatiko Aitor Tatiegi izango dira

A. Aranburuzabala OÑATI

Egubakoitzean abiatu zuen Bertsozale Elkartek Gipuzkoako Eskolartekoa. Sei bertsolari lehiatu ziren Zestoako Lau Iturri Elkartean -horien artean zen Bittor Zubiagirre oñatiarra-, eta Imanol Albizuk lortu zuen apirilaren 2an Lasturren jokatuko den finalerako txartela.

Haizea Arana eta Aitor Tatiegi

Gaur, egubakoitza Oñatiko Larrain-Gain elkartean jokatuko dute bat-bateko bigarren kanporaketa. Debagoieneko bi ordezkari izango dira: Aitor Tatiegi oñatiarra eta Haizea Arana eskoriatzarra; horiekin batera, Oier Ibarzabalek, Jon Azpirozok, Joane Aldalurrek eta Iker Letamendiak osatuko dute seikotea. Tatiegik eta Aranak aurreko astean bukatu zen Oñatiko Txinparta Gazte Sariketan parte

hartu dute eta indartsu daudela erakutsi dutela diote Oñatiko bertso eskolakoek.

Txapelketako kanporaketa guztien moduan, bertso-afari formatuan izango da gaurko saioa ere. "Dagoeneko itxita dago afarirako izena emateko epea, 40 bat lagun elkartuko gara 20:00etan; saioa 21:30 inguruan hasiko da, eta bertaratu gura duten guztientzako izango dira Larrain-Gain elkarteko atea zabalik", azaldu du Txinparta Bertso Eskolako Iñaki Olalde.

Idatzizko atala ere bai

Bat-bateko sei saioez gainera, idatzizko zortzi saio ere izango dira aurtengo Eskolartekoan. Bailaraka antolatuta dituzte eta martxoaren 6an egingo dute lehenengoa, Lezon. Debagoienekoak martxoaren 13an elkartuko dira, Amaia antzokian.

Fun Dantz! lehiaketan 150 dantzari baino gehiago izango dira

Laugarrenez egingo dute dantza urbanoen sariketa Aretxabaletan; Ibarra kiroldegian izango da, martxoaren 3an, zapatua. Euskal Herriko 26 dantza talde elkartuko dira, eta bi kategoriatan banatuta hartuko dute parte dantzariak: gaztetxoek euren koreografiak erakutsiko dituzte eta helduek lehiaketan hartuko dute parte. Irabazleek diru saria

eta apirilaren 21ean Derion egingo den BreakOnStage jaialdira-ko txartela lortuko dute.

18:00etan ateak zabaldu eta 18:30ean egingo dute Zaragozako dantzari eta aurtengo epaimahai-kide diren Rubenek, *Pitu-k* eta Sarak lehenengo erakustaldia. Gaztetxoek hartuko dute lekukoa agertokian ondoren, eta 19:30ean hasiko da lehiaketa nagusia.

Sarrerak salgai daude Arkupe kultura etxean, 3 eurotan; lehiaketaren egunean ere izango dira, kiroldegiko leihatilan, 5 eurotan.

GALDEGAZTE

GOIENA TELEBISTA,

OTSAILAREN 28AN, EGUAZTENEAN, 21:30EAN


MARTXOAREN 2AN, EGUBAKOITZEAN, 23:00ETAN

GONBIDATUA: JOSUNE ARAKISTAIN HUNTZA TALDEKOA

JOKIN BEREZIARTUAK AURKEZTUTA ETA BERGARAKO IPINTZA

INSTITUTUKO IKASLEAK ELKARRIKETATZAILE LANETAN

BABESLEA:



LAGUNTZAILEAK:

DEBAGOIENOKO
IKASTETXEAK

goiena

Zu hemen zaude.



Seminarixoa, Kantariren geltokia asteburuan

7 eta 11 urte bitarteko Bergarako, Antzuolako eta Elgetako 258 gaztek hartuko dute parte bihar eta etzi grabatuko dituzten Kantari karaoke saioaren grabaketetan; apiriletik aurrera izango dira saio horiek Goiena telebistan ikusgai

Aitziber Aranburuzabala BERGARA
Aretxabaletako Arkupe kultura etxean eta Oñatiko gaztelekuan grabatu dituzte dagoeneko Goienak Debagoieneko ikastetxeen eta udalen laguntzarekin antolatzen duen Kantari saioa atal berriak. Bihar eta etzi, Bergarako Seminarixoa bihurtuko dute euskal kantuak oinarri dituen karaokearen plato.

Hiru herritako artistak

Bergarako, Antzuolako eta Elgetako neska-mutikoak izango dira oraingoan protagonista. Guztira, 258 gaztetxo izango dira oholtzaren gainean -Bergarako 196 lagun, Antzuolako 57 parte hartzaile eta Elgetatik bost gazte osatutako taldea-. Ohi moduan, grabazio egunetarako dena prest izateko, aurreko asteburuan entsegu orokorrak egin zituzten Zabalotegi aretoan, Aitor Agirianok eta Miren Iabek gidatuta. "Oso ondo prestatuta daudela ikusi dugu entseguetan. Sekulako artistak daude Bergaran, Antzuolan eta Elgetan. Kantuak ondo prestatuta ekarzteaz gainera, oso koreografia landuak zituztela erakutsi zigiten; bitxikeria moduan, esan, askok gimnasia erritmikoan erabiltzen diren pausoak eta teknikak sartu dituztela koreo-



Zabalotegi aretoan egin zituzten entsegu orokorrak, aurreko asteburuan. A. A.

grafietan; hortaz, txiri-bueltak, erruberak, eta horrelako hainbat ikusiko dituzue. Kantu zerrendari dagokionez, orain arte moduan, euskal kantu tradizionalak eta modernoagoak entzungo dituzue: *Ilargia, Iñaki, Lazata, Euskaraz bizi nahi dut, Beldurrik ez, Aldapan gora...*", kontatu du Aitor Agirianok.

Hamar telebista saio

Eguneko bost saio grabatuko dituzte, eta bi egunetan ordutegi bera izango dute grabaketek: 16:00etatik 20:00ak bitartean.

